

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2021 Foru Dekretua, martxoaren 9koa. Onespena ematea Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren osaera eta funtzionamenduari buruzko arauketari

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 11ko 12/2014 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Kontratazioen Zentrala sortu eta arautu zen. Geroago, 23/2014 Mozioak, apirilaren 16koak –horen bidez, Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatu zioten kontratazio zentralaren osaera eta funtzionamendua arautzeko foru arauaren proiektu bat aurkez zezala–, dioena betetzeko, urtarrilaren 14ko 1/2015 Foru Araua, Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren osaera eta funtzionamendua arautzen dituen, onartu zen. Azkenik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Foru Administrazioaren foru diputatuaren 162/2015 Foru Aginduak, abenduaren 11koak, Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren funtzionamenduari buruzko barne erregelamendua onartzen duenak, zentral horri aplikatu beharreko foru arau esparrua itxi du.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, onartu zenez geroztik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 214/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egin da Espainiako ordenamendu juridikora, eta kontratazio publikoaren legezko esparru berria ezarri da, eta, bereziki, 227. eta 228. artikuluetan, kontratazio zentralizatuaren arautzeari doakiona.

Administrazioaren ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko bide hutsetik harago, bai Europako zuzentarauetan, bai azaroaren 8ko 9/2017 Legean, kontratazio publikoa era estrategikoan baliatu nahi da tresna eraginkorra izan dadin politika publikoak gauzatzen eta kontratazioaren xedea zehazten eta bideratzen duten helburuak eta konpromisoak lortzeko. Ikuspegi hori bera zeharo finkatu da Nazio Batuen Erakundearen 2030 Agendan, kontratazio publiko jasangarria garapen jasangarrirako 12.7 helburutzat (GJH) ezarri baitu.

Kontratazio publikoa, oro har, eta kontratazio zentralizatuak, bereziki, kontratazioaren arrazionalizazio teknikoaren neurria den aldetik, baliabide publikoak interes orokorraren mesedetan erabiltzean eraginkortasuna eta eragingarritasuna lortu nahi izateaz gain, funtsezkoa da jasangarritasuna, zirkulartasuna eta berrikuntza sustatzeko. Eskalako ekonomiak baliatzeaz gain, kontratazio zentralizatuak, jasangarritasunaren ikusmoldetik, oreka bilatu eta lortu behar du garapen jasangarriaren hiru zutabeen artean: ekonomia, gizartea eta ingurumena. Erosketa jasangarria eta zirkularra ingurumen- eta garapen jasangarriko helburuak lortzeko bidea izan daiteke (adibidez, berotegi-efektuko gasak murrizteko helburuz aztarna ekologiko txikia duten produktuak erosiz, edo hondakinak gutxiagotzeko helburuz lizitazioetan berrerabiltze- edo birziklatze-irizpideak txertatuz). Halaber, beste helburuetako batzuk izan ditzake eragin soziala sortzea eta genero berdintasuna sustatzea, kolektibo jakin batzuk laneratzea edo hirugarren herrialdeetako langileen lan-baldintzak hobetzea ere bai. Azkenik, berrikuntza bultzatzeak, irtenbide berritzaileen garapena ahalbidetuz eta sustatuz.

Hala berean, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, erakunde publikoen arteko lankidetzat edo atxikitze hitzarmenak lege horren 49. artikulutik 53.era artekoek xedatutakora egokitzea behartzen du. Besteak beste, hitzarmenean ezarritako betebeharrak ez betetzearen ondorioak eta, hala badagokio, balizko kalte-ordaina zehazteko irizpideak jasotzeko betebeharra ezartzen da horietan.

Honako Foru Dekretu hau bat dator urtarrilaren 14ko 1/2015 Foru Arauarekin, Arabako Foru Kontratazioko Zentralaren osaera eta funtzionamendua arautzeko helburuari dagokionez. Hori dela eta, nabarmendu behar da erregelamendu-arau hau sortu dela, batetik, goragoko arauaren edukiak ez errepikatzeko eta haren xedapenak garatzeko asmoz, eta, bestetik, Foru Araua indarraldian izan den urte hauetan, arauzko garapen handiagoa behar duten edukiak txertatzeko asmoz. Beraz, Foru Dekretu hau onartu da erregelamendu bidezko arauketari koherentzia emateko eta 1/2015 Foru Arauaren alderdi berritzaileak garatzeko beharrari lotuta, hala nola gizartearen ikuspegitik arduratsua den erosketa publikoa sustatzea, edo eskarmentuak iradokitzen duenez, sistemari segurtasun juridikoa emateko zehaztasun maila jakin batez hornitzea eta, gainera, kontratazio publikoaren arloan eta administrazio erakundeen arteko lankidetzaz edo atxikitze hitzarmenen araubidearen ildoan, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, eta urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, hurrenez hurren, dakartzaten arauzko berritasunetara egokitzea.

Foru Dekretu hau egiteko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, araututako erregulazio onaren printzipioei jarraitu zaie, bai eta Foru Gobernuaren Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako ere –Foru Dekretu horrek xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen du, bai eta arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidaliburuak eta teknika arauemailearen gidalerroak ere–.

Arestian aipaturiko urtarrilaren 14ko 1/2015 Foru Arauaren azken xedapenetatik lehenaren arabera, ahalmena ematen zaio Ekonomiaren Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuari (gaur egun, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila) Arabako Foru Kontratazioko Zentralaren osarari eta funtzionamenduari buruzko arauak garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Horregatik guztiagatik, Enplegua, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak eta Lurralde Oreka foru diputatuak proposatuta, eta nahitaezko txostenak eginda, Foru Gobernuaren Kontseiluak gaurko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Foru Dekretu honen xedea da Arabako Foru Kontratazioko Zentralaren osaera eta funtzionamendua arautzen duen urtarrilaren 14ko 1/2015 Foru Araua garatzea.

2. artikulua. Eragin eremu subjektiboa

Arabako Foru Kontratazioen Zentrala laguntza organo gisa eratzen da zentralak honako erakunde hauentzat egiten dituen kontratu prozeduretan:

a) Arabako Foru Aldundia.

b) Arabako foru sektore publikoa osatzen duten erakundeak (erakunde autonomoak, foru sozietate publikoak, foru fundazioak eta partzuergoak), kontratazio sistema honi askatasunez atxikitzen zaizkionak.

c) Arabako Lurralde Historikoko tokiko sektore publikoa osatzen duten erakundeak (udalak, kuadrillak, mankomunitateak eta kontzejuak), kontratazio sistema honi askatasunez atxikitzen zaizkionak.

3. artikulua. Eremu objektiboa

Arabako Foru Kontratazioen Zentralak zerbitzu eta hornidura kontratuak sustatuko ditu, ez besterik. Kontratazio zentralizatuaren xede izan daitezkeen gaiak, adibide gisa, honako hauek izango dira:

- Energia elektrikoa.
- Gas naturala.
- Berokuntzako gasolioa.
- Telekomunikazioak eta telefonia.
- Mezularitza eta posta zerbitzuak.
- Informazioa lantzeko ekipo eta sistemak (ordenagailuak, zerbitzariak, biltzeko sistemak eta abar).
- Bulegoko material suntsikorra.
- Inprimatzeko ekipoak (inprimagailuak, fotokopiagailuak, multikopiagailuak, eskanerrak) eta horien material suntsikorra.

Hasierako zerrenda horri gai berriak gehitu ahalko zaizkio, atxikitako erakundeek interes erkidea dutela egiaztatzen denean eta multzokatu daitekeen erosketa bolumenak erabakia justifikatzen duenean.

4. artikulua. Atxikitzea

Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailari atxikitzen zaio Arabako Foru Kontratazioen Zentrala.

5. artikulua. Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren osaera

1. Arabako Foru Kontratazioen Zentrala ondokoek osatuko dute:

– Presidentea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Zerbitzu Orokorren zuzendaria, edo haren eskuordetza daukana.

– Kideak:

– Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikoko burua, edo haren eskuordetza daukan pertsona; idazkari-lanak egingo ditu.

– Lurralde Orekaren Saileko Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuko burua, edo haren eskuordetza daukana.

– Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Saileko Esku-hartze eta Kontrol Zerbitzuko burua, edo haren eskuordetza daukana.

– Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko edo Lurralde Orekaren Saileko funtzionario teknikoa-letradua, edo, hala badagokio, Diputatu Nagusiaren Saileko Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzako funtzionario teknikoa-letradua, edo horretarako gaitutako funtzionarioa.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 23. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arabako Foru Kontratazioen Zentralean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeko (sexuetako bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkariak duenean joko da presentzia orekatua dagoela), artikulua honetan jasotako ordezkariak izendatzearen bidez sustatuko da presentzia orekatua egotea, beharrezkoa izanez gero.

2. Arabako Foru Kontratazioen Zentralak beharrezkotzat jotzen duenean, kontratuaren xedearen konplexutasun teknikoagatik edo beste arrazoi batzuegatik, lizitazioaren xede den gaiari buruzko ezagutza berariazkoa duen pertsona batek edo batzuek parte hartu ahalko dute, hitzarekin baina botorik gabe, zentralari aholkuak emateko eskatzen zaizkien alderdiei buruz.

6. artikulua. Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren eskumenak

1. Arabako Foru Kontratazioen Zentralak kontratazio mahai gisa jardungo du foru dekretu honen 2. artikuluan adierazitako eta kontratazio sistema horri askatasunez atxikitako sektore publikoko erakundeek sustatzen dituzten kontratu-prozedurak izapidetzean.

2. Foru Kontratazioen Zentral honek, gainera, ondoko eskumenak izango ditu:

– Kontratazio zentralizatuko prozesuen azterketa, plangintza, jarraipena eta sustapena egitea.

– Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren eta zentralari atxikitako toki-erakundeen premiak aztertzea, horniduren eta zerbitzuen zentzuzko erosketa antolatzeke eta planifikatzeko.

– Kontratazio zentralizatuko prozesuen kudeaketaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, kontratu horien kudeaketan eraginkortasun, erabatekotasun eta funtzionaltasun handiagoa lortzeko behar diren neurriak sustatu eta aplikatzeko.

– Zentralak sustatutako kontratazioetan berdintasun-klausulak betetzen ote diren jarraipena egitea, eta Zentralaren kontratazioen xede diren gaien sektoreetako desberdintasunak aztertzeko dituzten datuak biltzea.

– Erakundeak Arabako Foru Kontratazioen Zentralari atxiki dakizkien sustatzea.

– Atxikitako erakundeek bidalitako zentralizazio-proposamenak aztertzea, eta kontratazio zentralizatuaren xede diren horniduren eta zerbitzuen proposamenak egitea, atxikitako erakunde guztientzat interesgarriak direlako eta, funtsean, eskalako ekonomiak aplikatzea ahalbidetzen duten ezaugarri berdintsuak dituztelako.

– Informazioa koordinatzea eta trukatzea beste administrazio publiko batzuetako antzeko organoekin.

– Foru Kontratazioen Zentralaren bidez izapidetutako eskuratze zentralizatuko kontratuak eta haietan oinarritutako kontratuak kudeatzeko eta koordinatzeko irizpideak ezartzea eta protokoloak egitea.

– Urteko txostena egitea, ekitaldian hasi diren edo gauzatzen ari diren eskuratze zentralizatuko kontratazioen zerrenda jasota. Txosten horretan, ondokoak ageriko dira: kontratuaren xedea, zenbateko osoa, ekitaldiari dagokion zenbatekoa, iraupen epea, kontratuen esleipendunak, atxikitako erakundeak, gauzatze maila eta gauzatzea kontratuaren hasierako aldiari edo luzapen bati dagokion.

– Indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkion edo eratxikitzen dizkion gainerako eskumen guztiak.

7. artikulua. Kudeaketa zentralizatuari atxikitzeke erak, Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez

1. Foru dekretu honen 2. artikuluan adierazitako Arabako sektore publikoko erakundeak Arabako Foru Kontratazioen Zentralari atxiki ahalko zaizkio, oro har, edo, zehazki, kontratazio espediente jakin bati:

2. Atxikitze generikoa dagokion hitzarmena sinatuz gauzatuko da, horretarako onartutako eta foru dekretu honen 1. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Bertan, erakundeak zentrallean sartzeko asmoa adieraziko du, eta horrek ez du ekarriko betebeharrak edo konpromiso zehatzik, ez finantzariorik, ez bestelakorik. Sinatzen den egunaren hurrengotik aurrera izango ditu ondorioak, hitzarmenak eta indarrean jarraituko du bere hizpaketei jarraiki, alderdietako batek azkentzen ez duen bitartean.

3. Kontratazio espediente jakin bati berariaz atxikitzeke, hura lotzeko gaitasuna duen erakundearen organoaren ebazpena beharko da, eta ezeztatzeko izango da lizitazioa arautzen duten agiriak onartzen diren unetik aurrera.

8. artikulua. Atxikitze prozedurak

1. Erakundeak Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren kudeaketa sistema zentralizatuarekiko atxikitze generikoa egiteko prozedurak urrats hauek izango ditu:

1. Erakunde interesdunak atxikitzea onartzea, osoko bilkuraren edo erabaki egokiaren bidez, kasuan kasuko erakunde motaren arabera.

2. Arabako Foru Aldundiari atxikitzearen berri ematea.

3. Arabako Foru Aldundiak atxikitze hitzarmena prestatzea eta erakunde interesdunari bidaltzea.

4. Erakundearen ordezkariak eta Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak hitzarmena sinatzea.

Atxikitze generikoa formalizatzeko, ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

– Osoko bilkuraren erabakia edo erakundearen ebazpena, atxikitzea onartzen duena.

– Erabiltzailea izango den eta Arabako Foru Aldundiak informazioa trukatzeko garatu duen tresnarako sarbidea izango duen erakundearen pertsona identifikatzea, Foru Dekretu honen 17. artikulua azaldutakoaren arabera.

– Bi alderdiek sinatutako atxikitze hitzarmena.

2. Lizitazio prozedura jakin bati berariaz atxikitze prozeduran, urrats hauek egingo dira:

1. Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikoak proposatutako lizitazio prozeduren egutegia prestatuko du, Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez izapidetu daitezten, eta atxikitze hitzarmena sinatu duten erakundeei helaraziko die.

2. Erakunde atxikiak beren intereseko prozedurak hautatuko dituzte.

3. Erakunde lotzeko ahalmena duen organo eskudunak dagokion ebazpena emango du (alkatetzaren dekretua edo antzekoa), lizitazio espediente zehatzari atxikitzea onartzen duena.

4. Erakundeak Arabako Foru Aldundiari igorriko dio espediente zehatzari atxikitze berriazko jakinarazpena, posta elektronikoki bidez, centraldecontratacion@araba.eus postontzira, edo Aldundiak horretarako adierazten duen postontzira.

3. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikoak atxikitze hitzarmenak artxibatu egingo ditu, bai eta Arabako Foru Kontratazioen Zentralak izapidetutako esparru akordio jakin bati atxikitze erakundeen erabakiak ere.

9. artikulua. Gastua egiteko eskumena

Gastua baimendu eta erabiltzeko moduz erabakitzeko eskumena, bai eta ordainketa agintzekoa ere, Arabako Foru Kontratazioen Zentralak izapidetutako kontratazio espedienteetan parte hartu duen erakunde bakoitzean horretarako eskumena duenarena izango da.

10. artikulua. Arabako Foru Kontratazioen Zentralak kudeatutako kontratuen lizitazio prozedurak

1. Arabako Foru Aldundiari dagokio, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren bitartez, Arabako Foru Kontratazioen Zentralak sustatu behar dituen lizitazio prozedurei buruzko erabakia hartzea, atxikitako erakundeen proposamenak entzun ondoren eta erosketa ahalmena metatzeko aukera eta kudeaketa zentralizatuaren abantailak kontuan hartuta.

2. Arabako Foru Kontratazioen Zentralak kudeatzen dituen kontratazio zentralizatuko espedienteak esparru akordio bidez izapidetuko dira, eta dena delako akordioari atxikitako erakunde publiko bakoitzari dagokio espediente horretan oinarritutako kontratuak esleitzea eta

formalizatzea. Nolanahi ere, kontratu horiek esparru akordioaren agirietan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki.

11. artikulua. Atxikitako erakundeek lizitazioa prestatzen parte hartzea

1. Kontratazio espedientea hasi aurretik, era generikoan atxikitako erakundeei eskatuko zaie ondasunak, zerbitzuak edo hornidurak eskuratzeko prozedura zehatz bati berariaz atxikitzeke interesa duten adieraz dezatela.

2. Prozedurarekin berariaz bat egin duten erakunde interesdunei eskatuko zaie kontratuaren xedearekin zerikusia duten eta beren erakundeari dagozkion datu garrantzitsuak bidal ditzatela, eta baldintza agiri teknikoak idazten parte hartzeko aukera emango zaie, proposamenak eta oharra egiteko epe jakin bat emanda.

3. Lizitazioa arautzen duten oinarriak onartu eta gero, atxikitako erakundeak ezin izango dira lizitazio prozeduratik eta emaitzatik askatu esparru akordioaren indarraldi osoan, harik eta akordio hori guztiz gauzatu eta likidatu arte.

12. artikulua. Administrazio klausula berezien agiri eta baldintza teknikoaren agiria

1. Arabako Foru Aldundiko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari dagokio Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez izapidetzen diren kontratazio espedienteen administrazio klausula zehatzen agiriak egitea.

2. Arabako Foru Kontratazioen Zentralak kudeatutako esparru akordioei aplikatu beharreko agiri ekonomiko-administratiboak bat etorriko dira foru dekretu honen 2. eranskinean ageri diren zerbitzuen esparru akordioaren eta 3. eranskinean ageri diren hornidura kontratuen esparru-akordioaren ereduarekin.

3. Kontratazio espedientearen gaia zein den, eskumen teknikoa daukan Arabako Foru Aldundiko sail edo unitateko langileek prestatuko dituzte preskripzio teknikoaren agiriak, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzarekin lankidetzan eta kasuan kasuko kontratu prozeduran parte hartzen duten gainerako erakundeekin koordinatuta. Gaiaren konplexutasuna dela eta, Arabako Foru Aldundiak arlo horretan adituak diren kanpoko erakundearen laguntza teknikoa eskatu ahal izango du preskripzio teknikoaren agiriak gertatzeko.

Arabako Foru Aldundia partaide ez den esparru akordioetan, lantalde bat sortuko da, gutxienez, espedientearen interesa duten erakundeetako teknikari bik osatuta, agiri teknikoak idazteko.

4. Atxikitako erakundeek baldintza agiriak prestatzeko prozesuan parte hartu ahaliko. Horretarako, agiriak ahalik eta ondoen idazteko egokitzat jotzen duten informazioa, iradokizunak edo iruzkinak aurkeztu beharko dituzte, premiei erantzunik onena eta orokorrena emateko helburuz.

5. Baldintza agiriak prestatzeko prozeduran, urrats hauek egingo dira:

1. Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikoak jaso egingo ditu, lizitazioaren xedea dela eta, prozedura jakin batean parte hartzeko interesa adierazi duten erakunde atxikiak.

2. Artikulu honen 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, baldintza teknikoaren eta administrazio baldintza zehatzen agiriaren proiektua idatziko da (genero ikuspegia kontuan hartuko da haietan) eta Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren informazioa trukatzeko foroan jarriko da erakunde interesdunen eskura.

3. Atxikitako erakunde interesdunek Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikoak eskatutako datuak emango dituzte, horretarako ezarritako epearen barruan. Datu horiek bildu eta aztertu egingo dira, kontratuaren xedea eta balio zenbatetsia ahalik eta zehatzen doitzeko.

4. Helburu horretarako, Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren foroa erabiliz, agiri tekniko eta administratiboaren proiektuaren nondik norakoak eztabaidatuko dira, araztu eta behin betiko idazketa landu arte.

5. Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikoak kontratazio espedientearen administrazio izapidetzea, hura plataformetan argitaratzea (kontratziokoan, lizitaziokoan eta Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren foroan) eta lizitazioa bultzatuko ditu, esparru akordioa amaitu eta formalizatu arte.

6. Eskumen teknikoa duten Arabako Foru Aldundiko organoen laguntzarekin, Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikoak aztertu eta baloratu egingo ditu enpresa lizitatzailerik aurkeztutako proposamen teknikoak. Aldundia alderdi kontratatzaile ez den esparru akordioetan, agiri teknikoak idazten parte hartu duten erakundeek aztertu eta baloratuko dituzte aurkeztutako eskaintza teknikoak.

7. Esparru akordioa formalizatu ondoren, atxikitako erakundeek oinarrizko kontratuak esleitu eta formalizatuko dituzte, eta Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren foroan ere argitaratu beharko dira.

5. Administrazio klausula berezien eta preskripzio teknikoen agiriek, hornidura eta zerbitzuak prezio eta kalitate baldintza onenetan eskuratzeko asmoz egiteaz gain, kontuan hartuko dituzte garapen jasangarria gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetan sustatzeko eta gizarte bidezkoagoa sustatzeko politikak. Hori dela eta, Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez izapidetzen diren kontratazioetan, 2030. urterako ezarri diren Garapen Jasangarriko Helburuak (GIH) lortzeko klausula espezifikoak txertatuko dira, eta aintzat hartuko dira Nazio Batuen Erakundeak eta Europar Batasunak horri buruz emandako jarraibideak eta gomendioak, bai eta Arabako Foru Aldundia atxikitako edo lotutako plan edo programak ere, hain zuzen, Kontratazio Publiko Ekologikoari (KPE), Gizarte Arduraz jokatzeko duen Kontratazio Publiko (GAKP) eta Berrikuntzarako Kontratazio Publikoari (BKP) buruzkoak.

13. artikulua. Esparru akordioen eta kontratu lotuen izapidetzea

1. Esparru akordio bakoitza prozedura irekiaren bidez esleituko da, kasuan kasuko agirietan ezarritako esleipen irizpideen arabera. Salbuespenez, lizitatzailerik aurkeztutako, eta kontratuaren xedearen izaerak hala eskatzen bada, prozedura murriztura jo ahal izango da.

2. Esparru akordio bidez kontratazio prozedurak esleitzen lagunduko duen kontratazio mahai foru dekretu honen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera eratu da. Hala ere, mahaiak funtzionarioak edo aholkulari espezializatuak bertaratzeko eskatu ahal izango du, aztertu beharreko gaiaren izaera dela eta beharrezkotzat jotzen bada. Hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botorik ez.

3. Esparru akordioaren gehieneko iraupena lau urtekoa izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 219. Artikulua xedatutakoari jarraiki. Baldintza agirietan luzapena arautu bada, Arabako Foru Aldundiari egokituko zaio, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren bitartez, esparru akordioa luzatzen den erabakitzea. Luzapena erabakiz gero, hura loteslea izango da atxikitako erakundeentzat. Kontratua ez gauzatzeko aukera justifikatuzat joko da, soil-soilik, erakundeak honako hau agerrarazten duenean: alde batetik, kontratazio zentralizatuko esparru akordio baten babesean, kontratu lotu bat sinatu ondoren, erakundeak kontratua luzatzeko interesik ez duela, aurreikusitako luzapen aldiaren ez dituelako beharko kontratu lotu horren xede diren ondasunak, hornidurak edo zerbitzuak, eta, bestetik, aldi horren barruan, ondasun, hornidura edo zerbitzu horiek beste zeinahi eskuratzeko sistemaren bidez kontratatuko ez dituelako konpromisoa hartzen duela.

4. Arabako Foru Kontratazioen Zentralak izapidetutako esparru akordioei lotutako kontratuak, gerora erakunde parte hartzaile bakoitzak formalizatzen dituenak, esparru akordioa arautzen duten agirietan ezarritako betekizun, muga eta baldintzei lotuko zaizkie.

14. artikulua. Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren kudeaketa-sistema zentralizatuari atxikitzea baliogabetzea

1. Erakundeek atxikitzea baliogabetu ahalko dute onarpenaren maila bereko ebazpen baten bidez, eta Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko diote. Hala ere, baliogabetze horrek ez du ondoriorik izango gauzatzen ari diren kontratazio zentralizatuko prozeduretan, harik eta haien likidazioa egiten den arte.

2. 11. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoa betetzen ez bada, eta erakunde batek beteazpen bidean dagoen kontratu bati atxikitzea baliogabetzen bada, erakunde horrek Arabako Foru Aldundiari egindako kalte-galerengatik erantzungo du. Kalte-galeren balorazio ekonomikoa kalkulatzeko, azken hamabi hilabeteei dagokien hileko fakturazioaren zenbatekoaren batez bestekoaren ehuneko 25 hartuko da kontuan (edo, bestela, kontratua gauzatzeko hilabeteen kopurua, 12 hilabetetik beherakoa izanez gero) kontratua gauzatzeko epea amaitzeko geratzen den hilabete bakoitzaz biderkatuta, baldin eta egiaztatzen ez bada eragindako kalteak handiagoak izan direla. Kalte-galerek erreklamatu aurretik, Arabako Foru Aldundiak entzunaldia emango dio eragindako erakundeari.

15. artikulua. Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren betebeharrak atxikitako erakundeen aurrean

Arabako Foru Kontratazioen Zentralak honako betebehar hauek hartzen ditu foru erakundeak sustatzen duen kudeaketa sistema zentralizatuari atxikitako erakundeekin:

- Erakundeen ondasunak, hornidurak edo zerbitzuak kontratatze beharrak aztertzea, eta eskuratze zentralizatukotzat jo beharreko ondasun eta zerbitzuei buruzko proposamenak egitea, Arabako Foru Kontratazioen Zentralari atxikitako erakundeen multzoarentzat interesgarritzat jotzen direlako, bai eta erakundeetatik datozen zentralizazio proposamenak aztertzea ere.

- Dena delako ondasun edo zerbitzu mota kontratatze esparru akordioa izapidetzeko asmoa duela erakundeei jakinaraztea, gutxienez, hilabete lehenago, erakundeen parte hartzea eta atxikitzea errazteko.

- Atxikitzea jakinarazi duten erakundeei egokitzen dituzten oharrak eta gastu aurreikuspenari buruzko informazioa eskatzea, Arabako Foru Kontratazioen Zentralak kasu bakoitzean ezarritako epearen barruan (gutxienez hamabost eguneko epea), baldintza teknikoaren agiria eraz prestatzeko behar diren kontsumoak eta bestelako datuak zehazteko beharrezkoa den informazioa eman dezan erakundeak. Horretarako, eta erakundeak egokitzen dituen oharrak proposa ditzan, baldintza agiri horren zirriborroa bidaliko zaie.

- Administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoaren agiriak behin betiko idaztea, atxikitako erakundeek emandako datuak eta agirien inguruan egindako ekarpenak kontuan hartuta.

- Atxikitako erakundeei amaitutako esparru akordioak eta horien ezaugarriak jakinaraztea (enpresa esleipendunak, prezioa, emateko epeak, bermeak eta abar) bai eta baldintza teknikoaren agiria eta administrazio-klausula berezien agiria ere, bai eta esparru akordio horiek indarrean dauden bitartean izan ditzaketan aldaketak ere. Nolanahi ere, aurreko informazio hori kontsultarako sarbidearen bidez ere eskuratu ahal izango da, Arabako Foru Aldundiko kontratatzailearen profilean.

- Arabako Foru Kontratazioen Zentralari atxikitako erakundeen kontsulterei eta gorabeheriei erantzutea.

- Egindako kontratazioei buruzko azterketa egokiak egitea, eta emaitzak kontratazio horri atxikitako erakundeei jakinaraztea.

16. artikulua. Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren kudeaketa-sistema zentralizatuari atxikitako erakundeen betebeharrak

Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren kudeaketa sistema zentralizatuari atxikitako erakundeek, zeinek bere atxikitze mailaren arabera, konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Arabako Foru Kontratazioen Zentralarekin koordinatzeko eta atxikitzeko hitzarmenaren arduradunen eta harremanetarako datuak eguneratuta izatea.

- Esparru akordio bat izapidetzeko asmoa jakinarazten zaionean, esparru akordio zehatz bakoitzari atxikitzen zaiola edo uko egiten diola jakinaraztea, Arabako Foru Kontratazioen Zentralak eskatzen duen epeetan.

- Esparru akordio jakin bati atxikiz gero, preskripzio teknikoan agiria idazten parte hartzea, erakundeari dagozkion datuak emanez eta, hala badagokio, egokitzen hartzen dituen oharrik proposatuz, betiere Arabako Foru Kontratazioen Zentralak horretarako ezarritako epeen barruan. Erakundeak antzematen badu proposatutako esparru akordioan jasotako ondasun edo zerbitzuek ez dutela premiaren bati erantzuten, Arabako Foru Kontratazioen Zentralari jakinaraziko dio, eta aurreikusten ez diren ezaugarri eta prestazio bereziak adieraziko dizkio, premia hori esparru akordioan txertatzea komeni den aztertu ahal izateko.

- Ondasun, zerbitzu edo hornigaiak erosteko kontratuak izapidetzea, dagozkion esparru akordioak xedatutakoarekin bat. Erakundeak uste badu esparru akordioaren xedean jasota egon litezkeen ondasunak edo zerbitzuak ez direla jaso eta, horregatik, sistema zentralizatutik kanpo kontratatu behar dituela, Arabako Foru Kontratazioen Zentralari jakinaraziko dio, premia hori etorkizuneko esparru akordio batean txertatzea komeni den aztertu ahal izateko.

- Esleipendunek esparru akordioaren baldintzak betetzen ez badituzte, zati batean edo orokorrean, adibidez, emateko epeak betetzen ez badituzte, edo hornitutako ondasunak edo emandako zerbitzuak edo beste akasduak badira, Arabako Foru Kontratazioen Zentralari jakinaraztea, neurri egokiak har ditzan.

- Arabako Foru Kontratazioen Zentralari eskuratze zentralizatuko kontratuak gauzatzean gertatzen den edozein gorabeheraren berri ematea, neurri egokiak hartzeko eta, hala badagokio, kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutako erantzukizunak eskatzeko.

- Botere esleitzailerik gisa kontratistarekin dituen betebeharrak betetzea, hala nola ezarritako prezioak ordaintzea, ondasunak edo zerbitzuak jasotzea, kontratuak likidatzea, gordailututako behin betiko bermeak itzultzea eta abar.

- Erakundeak atxikitzen zaion esparru akordioari doazkion baldintzak garaiz eta behar bezala ez betetzearen ziozko erantzukizunak bere gain hartzea, batez ere, nahitaezko administrazio kontratua formalizatzeari eta gauzatzen ari den kontratu bati atxikitzea ez baliogabetzeari dagozkienez. Ildo horretan, erakundeak Arabako Foru Aldundiari erantzungo dio kalte-galerengatik, baldin eta kontratua likidatu aurretik atxikitzea baliogabetzen badu, foru dekretu honen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

17. artikulua. Parte hartzeko, komunikazioa lantzeko eta kontratuei publikitatea emateko foroa

1. Arabako Foru Aldundiak tresna informatiko bat ezarrita dauka kudeaketa sistema zentralizatuari atxikitako erakundeen komunikazioa eta parte hartzea errazteko, Arabako Foru Kontratazioen Zentralari buruzko gai guztietan. Tresna hori informazioa trukatzeko bitarteko erkide eta bakarria izango da, eta baimendutako pertsonak soilik izango dute sarbidea.

2. Atxikitako erakundeek alta emateko erabiltzaileen datuak eman beharko dizkiote Arabako Foru Aldundiari; erabiltzaile horiek tresna informatikoan sartuko dira erakundearen ordezkari gisa jarduteko.

3. Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren edo kasu bakoitzean zehazten den unitatearen bidez, Arabako Foru Aldundiak sistemaren eskakizunei buruzko informazioa emango du eta erakundeak, berriz, baimendutako gehieneko erabiltzaile kopuruari buruz, eta alta emango die haiei sistema informatikoan, dagozkion sarbide gakoak eskuratuko dizkie eta tresna informatikoaren inguruko prestakuntza eskainiko du.

4. Arabako Foru Kontratazioen Zentralak sinatutako esparru akordioak eta atxikitako erakundeek izenpetutako oinarritzko kontratuak tresna informatikoan argitaratuko dira, modu erantsian eta indarrean dagoen araudiak galdatutako beste bitarteko edo kanal batzuetan publizitatea emateari kalterik egin gabe.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Foru Dekretu hau indarrean hasi ondoren, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 11ko 12/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako ereduaren arabera Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren kontratazio sistema zentralizatuari atxikitzeko hitzarmena sinatu duten erakundeek edo Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren funtzionamenduaren barne araudia onartzen duen Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren foru diputatuaren abenduaren 11ko 162/2015 Foru Aginduaren bidez egin dutenek, hiru hilabeteko epea izango dute atxikitze hitzarmen berria izapidetu, sinatu eta formalizatzeko, dekretu honen 1. eranskinean jasotako ereduari jarraiki.

Adierazitako epea igarotzen bada hitzarmen berria formalizatu ez dela, ulertuko da atxikitzea baliogabetu dela, foru dekretu honen 13. artikuluan ezarritako ondorioekin.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetuta geratzen dira Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren sorrera, osaera eta funtzionamendua arautzen dituen Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 11ko 12/2014 Foru Dekretua, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren foru diputatuaren abenduaren 11ko 162/2015 Foru Agindua, Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren funtzionamendurako barne-erregelamendua onartzen duena, bai eta Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren arauketaren arloan foru dekretu honen aurka dagoen beste edozein xedapen ere.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA

1. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko.

2. Era berean, baimena ematen zaio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuari atxikitzeko hitzarmenaren eredia, foru dekretu honen 1. eranskinean jasotakoa, eta zerbitzuen eta horniduren esparru akordioei aplika dakizkiekeen agiri ekonomiko-administratiboak, 2. eta 3. eranskinetan jasotakoak, hurrenez hurren, foru agindu bidez alda ditzala.

3. Lurralde Orokoren Saileko diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu honen 7. artikuluan araututako sistemari atxikitzeko hitzarmenak sina ditzan.

4. Zerbitzu Orokorren zuzendariari ahalmena ematen zaio gai hauei buruzko jarraibide egoiak eman ditzan: Arabako Foru Kontratazioen Zentralak kudeatutako kontratazio espedienteak antolatzea eta izapidetzea; sinatutako atxikitze hitzarmenak artxibatzea eta zaintzea; eta atxikitako erakundeei komunikatzeko eta parte hartzeko tresna informatikoa erabiltzeko eta eskuratzeko modua ematea.

5. Era berean, Zerbitzu Orokorren zuzendariari ahalmena ematen zaio Arabako Foru Kontratazioen Zentraleko Batzorde Teknikoko kideak izendatzeko eta kargutik kentzeko ebazpenak eman ditzan. Batzorde hori foru dekretu honen 17. artikuluan arautzen da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 9a

Diputatu Nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Arabako Bigarren Diputatu Nagusi-ordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Lurralde Orokaren foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Zerbitzu Orokoren zuzendaria

JAVIER MARDONES GÓMEZ-MARAÑÓN

Lurralde Orokaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA



1. ERANSKINA

ARABAKO FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALAREN ESKURATZE SISTEMA ZENTRALIZATUARI ATXIKITZEKO HITZARMENAREN EREDUA

Vitoria-Gasteiz, 202X (e) ko XXXXXaren XX (a).

HONAKOAK BILDU DIRA

Alde batetik, jauna/andrea, Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orokaren Saileko foru diputatua den aldetik, foru erakundearen izenean eta ordezkartzan diharduela, eman zaizkion eskumenak baliatuz.

Bestetik, jauna/andrea, erakundearen den aldetik, haren izenean eta ordezkartzan diharduela, eman zaizkion eskumenak baliatuz.

Dagokien ordezkartza aitortzen diote elkarri bi alderdiek, bai eta ahalmena ere, Arabako Foru Kontratazioen Zentraleko eresketa zentralizatuko sistemari atxikitzeke hitzarmen hau sinatzeko, eta ordezkartzen duten pertsona juridikoa bertan jasotakoarekin bat behartzeko.

Horregatik

HONAKOIA ADIERAZI DUTE

Lehenengoa: urtarrilaren 14ko 1/2015 Foru Arauaren eta Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 11ko 12/2014 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren sorrera, osarea eta funtzionamendua arautu zela, eta Arabako Lurralde Historikoko Arabako Foru Aldundiaren, foru sektore publikoaren eta udalen, kuadrillen, mankomunitateen eta kontzejuen (eta haien mendeko erakundeen) kontratazio organoei laguntzeko organo gisa eratu zela sistema horri borondatez atxikitzen zaizkion erakundeentzat.

Bereziki, Arabako Foru Kontratazioen Zentralak laguntza emango die ondasun, zerbitzu eta hornidurak kontratatzeke prozeduretan aipatutako erakundeei, baldin eta, beraien ezaugarri bereziengatik, orokorrean, eskuratze sistema zentralizatuari atxikitako erakunde guztiek erabil baditzakete.

Bigarrena: Arabako Foru Kontratazioen Zentral honen bidezko kontratazioaren bidez, aipatutako kontratuen lizitazioan ekonomikoki onuragarrienak, gizartearen ikuspegitik arduratsuak eta ingurumenaren aldetik jasangarrienak diren baldintzak lortu nahi direla, eta, ondorioz, egituratzen den kontratazio sistema zentralizatuari atxikitako erakundeen gastu publikoa murriztu eta, aldi berean, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko administrazio izapideak sinplifikatu nahi direla, ondasun eta zerbitzu horien garrantasuna eta segurtasuna indartuz, garapen jasangarrirako helburuak lortzeaz gain.

Hirugarrena: aurreko atalean adierazitakoarekin bat etorritik, Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren helburu nagusia dela aipatutako araudiaren eremu subjektiboa osatzen duten



erakundeei beharrezko dituzten ondasun eta zerbitzuen kontratazioa erraztea, kostuak aurrezte, eskuratze denborak murriztea, izapidetzea sinplifikatzea eta erosketa jasangarri eta gizarte ikuspegiz arduratsuarekiko konpromisoa ahalbidetuko duen sistema bat egituratuz.

Laugarrena: hitzarmenen erregulazioan izandako lege aldaketen ondorioz, batez ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Lege berriari (aurrerantzean, SPAJL) eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Lege berriari (aurrerantzean, SPKL) dagokienez, orain arte sinatutako atxikitze hitzarmenak egokitu behar direla. Horregatik, aldaketa horietara egokitutako atxikitze hitzarmenaren eredu bat proposatzen da, eta Arabako Foru Kontratazioaren Zentralari atxikita zeuden erakundeek ere sinatu beharko dute, hitzarmenean aldaketa horiek jaso aurretik. Aipatutako lege horietan eta SPKLn agindutakoaren arabera, atxikitze hitzarmen honek ez du kontratu izaerarik.

Bosgarrena: (Aurreko hitzarmen baten arabera jada atxikita zeuden erakundeen kasuan): <<EELL>> erakundeak, (adierazi erabakia hartu duen organoa) (data) ebazpenaren bidez, Arabako Foru Kontratazioen Zentralean gauzatutako eskuratze-sistema zentralizatuari atxikitzea erabaki zuen, eta Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren eskuratze sistema zentralizatuari atxikitzeko hitzarmena sinatu zuen XXXXXXXX (e) (a) n.

<<EELL>> erakundeak oraindik ere interesa du Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez zentralizatutako eskuratze sistemari atxikitzeko, eta, beraz, erabaki du aipatutako hitzarmenaren indarraldia amaitutzat ematea eta atxikitze hitzarmen berria sinatzea.

Bosgarrena: (Hitzarmen honen arabera atxikitzen diren erakundeen kasuan): <<EELL>> erakundeak, (adierazi erabakia hartu duen organoa) (data) ebazpenaren bidez, Arabako Foru Kontratazioen Zentralean gauzatutako eskuratze sistema zentralizatuari atxikitzea erabaki du.

Horren ondorioz, bi alderdiek atxikitze hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute, ondoko klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Hitzarmenaren xedea

<<EELL>> Arabako Foru Aldundiaren erosketa zentralizatutako sistemari atxikitzea du xede hitzarmen honek, horrela Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez zehazten diren ondasun, zerbitzu eta hornigaiak kontratatu ahal izango ditu aldundiak enpresa esleipendunekin sinatutako esparru akordioaren ondoriozko baldintza eta prezioetan.

Sistemarekiko hasierako atxikipen horrek ez du finantza konpromisorik sortzen, eta ez du esan nahi kontratazio guztiak Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez egin behar direnik. <<EELL>> aukera dezake sistema hori ondasunen eta zerbitzuen hornidura guztietarako edo horien zati baterako erabiltzea.

Dagokion esparru akordioaren baldintza agiriak onartu aurretik, <<EELL>> ondasunak edo zerbitzuak hornitzeko zein esparru akordiori atxikitzen zaion adierazi beharko du, haietan atxikitako erakunde gisa agertzeko. Atxikitzeak esparru akordioaren indarraldi osorako balioko du, eta nahitaez lotzen du erakundea.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiaren betebeharrak.



Erakundeen atxikipena sustatzeko eta kontratazio zentralizatuaren xede diren ondasun edo zerbitzuen hautaketa egokia errazteko, Arabako Foru Aldundiak honako betebeharrak hartuko ditu bere gain:

- Erakundeen ondasunak, hornidurak edo zerbitzuak kontratatze beharrak aztertzea, eta eskuratze zentralizatukotzat jo beharreko ondasun edo zerbitzuei buruzko proposamenak egitea, Arabako Foru Kontratazioen Zentralari atxikitako erakundeen multzoarentzat interesgarritzat jotzen direlako, bai eta erakundeetatik datozen zentralizazio proposamenak aztertzea ere.
- Dena delako ondasun edo zerbitzu mota kontratatze esparru akordioa izapidetzeko asmoa duela erakundeei jakinaraztea, gutxienez, hilabete lehenago, erakundeen parte hartzea eta atxikitzea errazteko.
- Atxikitzea jakinarazi duten erakundeei egokitzat jotzen dituzten oharrak eta gastu aurreikuspenari buruzko informazioa eskatzea, Arabako Foru Kontratazioen Zentralak kasu bakoitzean ezarritako epearen barruan (gutxienez hamabost eguneko epea), baldintza teknikoaren agiria eraz prestatzeko behar diren kontsumoak eta bestelako datuak zehazteko beharrezkoa den informazioa eman dezan erakundeak. Horretarako, eta erakundeak egokitzat jotzen dituen oharrak proposa dituzan, baldintza agiri horren zirriborroa bidaliko zaie.
- Administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoaren agiriak behin betiko idaztea, atxikitako erakundeek emandako datuak eta agiriaren inguruan egindako ekarpenak kontuan hartuta.
- Atxikitako erakundeei amaitutako esparru akordioak eta horien ezaugarriak jakinaraztea (enpresa esleipendunak, prezioa, emateko epeak, bermeak eta abar) bai eta baldintza teknikoaren agiria eta administrazio-klausula berezien agiria ere, bai eta esparru akordio horiek indarrean dauden bitartean izan ditzaketen aldaketak ere. Nolanahi ere, aurreko informazio hori kontsultarako sarbidearen bidez ere eskuratu ahal izango da, Arabako Foru Aldundiko kontratatuaren profileen.
- Arabako Foru Kontratazioen Zentralari atxikitako erakundeen kontsultei eta gorabeherei erantzutea.
- Egindako kontratazioei buruzko azterketa egokiak egitea, eta emaitzak kontratazio horri atxikitako erakundeei jakinaraztea.

Hirugarrena. <<EELL>> erakundearen betebeharrak

Erosketa zentralizatuak abantaila eta onura eraginkorrak eman diezazkien atxikitako erakunde guztiei, <<EELL>> konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:

- Arabako Foru Kontratazioen Zentralarekin koordinatzeko eta atxikitze hitzarmenaren arduradunen eta harremanetarako datuak eguneratuta izatea.
- Esparru akordio bat izapidetzeko asmoa jakinarazten zaionean, esparru akordio zehatz bakoitzari atxikitzen zaiola edo uko egiten diola jakinaraztea, Arabako Foru Kontratazioen Zentralak eskatzen duen epeetan.
- Esparru akordio jakin bati atxikiz gero, preskripzio teknikoaren agiria idazten parte hartzea, erakundeari dagozkion datuak emanaz eta, hala badagokio, egokitzat hartzen dituen oharrak proposatuz, betiere Arabako Foru Kontratazioen Zentralak horretarako ezarritako epeen barruan. Erakundeak antzematen badu proposatutako esparru



akordioan jasotako ondasun edo zerbitzuek ez dutela premiaren bati erantzuten, Arabako Foru Kontratazioen Zentralari jakinaraziko dio, eta aurreikusten ez diren ezaugarri eta prestazio bereziak adieraziko dizkio, premia hori esparru akordioan txertatzea komeni den aztertu ahal izateko.

- Ondasun, zerbitzu edo hornigaiak erosteko kontratuak izapidetzea, dagokion esparru akordioak xedatutakoarekin bat. Erakundeak uste badu esparru akordioaren xedean jasota egon litezkeen ondasunak edo zerbitzuak ez direla jaso eta, horregatik, sistema zentralizatutik kanpo kontratatu behar dituela, Arabako Foru Kontratazioen Zentralari jakinaraziko dio, premia hori etorkizuneko esparru akordio batean txertatzea komeni den aztertu ahal izateko.
- Esleipendunek esparru akordioaren baldintzak betetzen ez badituzte, zati batean edo orokorrean, adibidez, emateko epeak betetzen ez badituzte, edo hornitutako ondasunak edo emandako zerbitzuak edo beste akasunak badira, Arabako Foru Kontratazioen Zentralari jakinaraztea, neurri egokiak har ditzan.
- Arabako Foru Kontratazioen Zentralari eskuratze zentralizatuko kontratuak gauzatzean gertatzen den edozein gorabeheraren berri ematea, neurri egokiak hartzeko eta, hala badagokio, kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutako erantzukizunak eskatzeko.
- Botere esleitzailerik gisa kontratistarekin dituen betebeharrak betetzea, hala nola ezarritako prezioak ordaintzea, ondasunak edo zerbitzuak jasotzea, kontratuak likidatzea, gordailututako behin betiko bermeak itzultzea eta abar.
- Erakundea atxikitzen zaion esparru akordioari doazkion baldintzak garaiz eta behar bezala ez betetzearen ziozko erantzukizunak bere gain hartzea, batez ere, nahitaezko administrazio kontratua formalizatzeari eta gauzatzen ari den kontratu bati atxikitzea ez baliogabetzeari dagokienez. Ildo horretan, <<EELL>> erakundeak Arabako Foru Aldundiari erantzungo dio kalte-galerengatik, baldin eta kontratua likidatu aurretik atxikitzea baliogabetzen badu. Kalte-galeren balorazio ekonomikoa kalkulatzeko, azken hamabi hilabetei dagokien hileko fakturazioaren zenbatekoaren batez bestekoaren % 25 hartuko da kontuan (edo, bestela, kontratua gauzatzeko hilabeteen kopurua, 12 hilabeteik beherakoa izanez gero) kontratua gauzatzeko epea amaitzeko geratzen den hilabete bakoitzaz biderkatuta, baldin eta egiaztatzen ez bada eragindako kalteak handiagoak izan direla.

Laugarrena. Hitzarmena aldatzea

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, edozein unetan berrikusi ahal izango da, edozein alderdik eskatuta. Edukia aldatzeko, alderdi sinatzaileek ados egon beharko dute.

Bosgarrena. Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa da. Aurreko paragrafoan araututako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez ere, beste lau urtez, edo azkentzea.

Hala ere, parte hartzen duen edozein administrazioak berariaz salatu ahalko du hitzarmena azkendu baino, gutxienez, bi hilabete lehenago. Hitzarmenaren amaiera iragartzeak ez ditu alderdiak azkentzearen eragin datara arte hartutako konpromisoak betetzetik salbuetsiko.

Seigarrena. Hitzarmena azkentzea



Atxikitze hitzarmen hau iraungi egingo da indarraldia amaitzen denean, alderdiek aho batez erabakitzen dutenean, alderdien borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik hartutako konpromisoak bete ezin direla egiaztatzen delako edo ezintasuna bat-batean gertatu delako, edo SPAJLren 51. artikuluan edo hura ordeztzen duen araudian jasotako azkentzearen arrazoiengatik edozeinengatik.

Era berean, eragindako kaltearen larritasuna kontuan hartuta, atxikitze hitzarmena azkentzeko arrazoa izan daiteke <<EELL>> esparru akordio zehatzarekiko loturari indarraldi osoan eusteko betebeharra ez betetzea.

Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiengatik bat gertatzen denean, kontratazio zentralizatuko prozedura batzuk gauzatzen ari badira (esparru akordioak edo indarrean dauden kontratu lotuak) eta prozedura horietan <<EELL>> erakunde atxikia bada, hitzarmena azkentzeak ez du ondorioz izango prozedura horiek amaitu eta guztiz likidatu arte.

Zazpigarrena. Izaera eta interpretazioa

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta hari administrazioaren ordenamendu juridikoa aplikatuko zaio. Hura interpretatzean edo betetzean sor litezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenak jorratuko ditu, haren eskumen baitira.

Eta adostasunaren adierazgarri, bi ale izenpetzen dituzte bertaratutakoek, goiburuan adierazi leku-egunetan.

<<EELL>>en izenean

Arabako Foru Aldundiaren izenean

jauna/andrea

Irma Basterra Ugarriza andrea



2. ERANSKINA

ZERBITZUEN ESPARRU AKORDIOA
ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRI EREDUAZERBITZUEN ESPARRU AKORDIOA. Prozedura
irekia.

ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

I. - ESPARRU AKORDIOAREN XEDEA ETA KONTU OROKORRAK	2
1.- ESPARRU AKORDIOAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA 2	
2.- ESPARRU AKORDIOAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA. GEHIENENKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK, KREDITUA IZATEA ETA ESPARRU AKORDIOAREN PREZIOA.....	4
3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA	4
4.- AGIRIAK ETA DOKUMENTAZIO ETA INFORMAZIO OSAGARRIA	5
II.- ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIO-ERAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA..	6
5.- ENPRESA LIZITATZAILEAK	6
6.- LIZITAZIO-ERAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA	7
7.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA	10
III. ADJUDIKAZIOA	12
8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATUTAKO ENPRESA LIZITATZAILEAK EDO ENPRESA LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.....	12
9.- BEHIN BETIKO BERMEA	15
10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENEA.....	15
IV. ESPARRU AKORDIOA FORMALIZATZEA	16
11.- ESPARRU AKORDIOA FORMALIZATU AURREKO EGINBEHARRAK.....	16
V. ESPARRU AKORDIOA GAUZATZEA	18
13.- ARAU OROKORRAK	18
14.- ESPARRU AKORDIOAN OINARRITUTAKO KONTRATUEN ADJUDIKAZIOA.....	18
15.- KONTRATU OINARRITUAK GAUZATZEA	21
VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	32
16.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	32



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Foru Gobernu Kontseilua
Consejo de Gobierno Foral

ZERBITZUEN ESPARRU AKORDIOA

ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

I. - ESPARRU AKORDIOAREN XEDEA ETA KONTU OROKORRAK

1.- ESPARRU AKORDIOAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA

1.1.- Esparru akordio honen xedea da ezaugarrien taulako A) apartatuan azaltzen den zerbitzuaren baldintzak zehaztea eta hura emango dutenak aukeratzea, zeinen kopurua orobat ezaugarrien taulako A) apartatuan zehazten baita. Haiekin bidezko diren kontratu eratorriak izenpetu ahal izango dira.

1.2.- Ezaugarrien taulako A) apartatuan hala ezarritz gero, esparru akordioaren xedea bertan azaltzen diren loteetan zatiturik dago.

Ezaugarrien taulako A) apartatuan mugak ezartzen dira loteetarako eskaintzak aurkezteko eta loteak adjudikatzeko.

Baldin eta adjudikazio irizpideen aplikazioaren arabera enpresa lizitatzailerik batek gehienez jaso daitezkeenak baino lote gehiago jaso ahal baditu, ezaugarrien taulako A) apartatuko irizpideak edo arauak aplikatuko dira zer lote adjudikatuko zaion erabakitzeko.

1.3.- Agiri honetan eta baldintza teknikoaren agirian ezartzen denarekin bat etorritz eman behar da zerbitzua.

Ondorio guztietarako, administrazio baldintza berezien agiri hau, ezaugarrien taula, baldintza teknikoaren agiria eta horien eranskinak kontratu agiriak dira, eta halakoak diren aldetik alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte. Enpresa adjudikaziodunak esparru akordioa formalizatzeke egintzan sinatu beharko ditu, onartzen dituela adierazteko.



1.4.- Kontratazioa honako xedapen hauetan ezartzen denari lotuko zaie: agiri hau; baldintza teknikoaren agiria; 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, zeinaren bidez Espainiako antolamendu juridikora aldatzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak; 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Araubide Orokorra onesten duena (HAKLAO); eta Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuak arautzen dituzten gainerako xedapen aplikagarri guztiak.

1.5.- Esparru akordioa SPKLren 156. – 158. artikuluetan ezarritako prozedura irekiaren bidez adjudikatuko da, eta, salbuesenez, lege beraren 160. – 165. artikuluetan araututako prozedura murriztuaren bidez. Gainera, HAKLAOko edo hura ordeztzen duen erregelamendu xedapeneko artikuluko egokiak ere aplikatuko dira.

Aukeratutako enpresa hornitzaile batekin edo gehiagorekin burutu ahal izango da, ezaugarrien taulako A) apartatuan ezarritakoaren arabera. Horri buruz ezer ezarrita ez badago, enpresa adjudikazioduna bakarria izan daiteke.

SPKLren 221.4 eta 221.5 artikuluetan ezarritakoaren arabera, esparru akordioaren xedea enpresa hornitzaile bat baino gehiago aukeratzea denean, ezaugarrien taulako A) apartatuan adierazi beharko da kontratazio oinarrituaren termino guztiak ezartzen dituen eta, hala izanez gero, kontratazio eratorria lizitazioaz ala lizitaziorik gabe egingo den, ala biak erabil daitezkeen, eta zein kasutan erabiliko den bide bat edo bestea. Esparru akordioak ez baditu ezartzen termino guztiak, beste lizitazio bat egingo da.

1.6.- Esparru akordio honen indarrez kontratatzen diren zerbitzuen azken HARTZAILEAK ezaugarrien taulako oharren apartatuan zerrendatutako entitateak izango dira.

Esparru akordio honen aplikazio eremu subjektiboa zehazteko, entitate horiei "atxikitako organismoak" esango zaie agiri honetan.

1.7.- Esparru akordioa bukatzeko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) organo egokia izango da, akordioaren balio zenbatetsiaren arabera, Arabako Foru Kontratazioen Zentralak (aurrerantzean, Zentrala) lagundurik.

1.8.- Esparru akordio honetan oinarritutako kontratuak adjudikatzeko organo eskuduna, atxikitako organismo bakoitzean legeria aplikagarriaren arabera kontratazio eskudantzia egokiak dituen izango da.

2.- ESPARRU AKORDIOAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA. GEHIENKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA IZATEA ETA ESPARRU AKORDIOAREN PREZIOA

2.1.- Esparru akordioaren balio zenbatetsia agiri honetako ezaugarrien taulako B) apartatuan ageri da.

Esparru akordioaren prezioa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada administrazioaren beharrezanaren arabera, unitateko prezioak agiri honetako ezaugarrien taulako B) apartatuan ageri direnak izango dira.

Balio zenbatetsia orientatzailea da, eta hura indarrean dagoen bitartean egin daitezkeen kontratu oinarritu guztien zenbatekoaren gutxi gorabeherako kalkulua da.



Egiazko gastua, enpresa adjudikaziodunak eskainitako prezioen eta atxikitako organismoek kontratu oinarrituetan benetan eskatutako zerbitzu kopuruaren emaitza izango da.

2.2.- Lizitazioa oinarri baten pean ez dagoenez, ez da ezarri behar esparru akordioaren gehieneko aurrekontu bat. Adjudikazio aurrekontu zehatzak kontratu oinarrituetako bakoitzean ezarriko dira.

2.3.- Kontratu oinarrituen prezioa haien adjudikazioaren ondoriozkoa izango da.

Helburu guztietarako, ondoko hauek sartzen dira haren barruan: enpresa kontratistak kontratatu den prestazioa normalki gauzatzeko egin beharreko gastu guztiak, zuzenekoak zein zeharkakoak, indarreko xedapenen arabera aplikatu beharreko tasa guztiak, eta era guztietako zerga eta lizentziak, udalena, probintziakoak zein estatukoak.

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

3.1.- Esparru akordioa enpresa kontratistaren arrisku eta menturaz gauzatuko da.

3.2.- Prezioen berrikuspena hasiera batean bidezkoa den edo bidezkoa ez den zehazteko, ezaugarrien taulako D) apartatuan ezartzen denari jarraituko zaio. Berrikuspena bidezkoa ez bada, hala adieraziko da apartatu horretan. Prezioen berrikuspena hasiera batean bidezkoa bada, berrikuspenerako aplikatuko diren indizeak edo formula polinomikoak adieraziko dira, hala badagokio, apartatu horretan.

Prezioak berrikusteko araubide juridikoa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) 103.–105. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Arautegi Orokorren (HAKLAO) 104., 105. eta 106. artikuluetan ezarritakoa izango da.

3.3.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena ezartzen ez bada, kontratua gauzatzeko epealdia luzatzeak ez du inolaz ere hura aldatuko, luzapen horren arrazoia administrazioari egotzi ahal izan edo ezinbesteko kasua izan ezean (ezinbesteko kasuak SPKLren 239. artikuluan ezartzen dira).

3.4.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena jasotzen bada, hura egin ahal izateko ezinbestekoa izango da bi baldintza hauek betetzea: kontratu oinarrituaren zenbatekoaren ehuneko 20 gauzatuta egotea eta kontratua formalizatu zenetik bi urte igaro izana. Beraz, lehenengo ehuneko (ehuneko 20) eta gauzatze aldiko lehenengo bi urteak, kontratu oinarrituaren adjudikaziotik kontatuta, ezin daitezke berrikusi, SPKLren 103. artikuluan ezartzen den bezala.

4.- AGIRIAK ETA DOKUMENTAZIO ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

Administrazio baldintza berezien agiria, baldintza teknikoaren agiria eta gainerako dokumentazio osagarria kontratatzailearen profileen eskuratu ahal izango dira; gainera, SPKLren 138.2 artikuluan aipatzen diren kasuetan, ezaugarrien taulako E) apartatuan aipatzen den administrazio zerbitzuaren bulegoetan eskuratu ahal izango dira jendaurreko ordutegian, eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte.

Eskaintza aurkeztu aurretik enpresa interesdunek zerbitzu horretara jo ahal izango dute lizitazioaren inguruabar berezien berri jakiteko.



Enpresa interesdun batek, ezarritako epealdian, agiriei buruzko informazio osagarria eta gainerako dokumentu osagarriak eskatuz gero, SPKLren 138. artikuluan eta HAKLAOren 78. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Agiriez eta dokumentazio osagarriaz eskatzen den informazioa eskaintzak jasotzeko ezarritako epealdia amaitu baino sei egun lehenago gutxienez eman behar da (izapidetzea presazkoa bada, hiru egun lehenago; salbuespena: arau harmonizatuei lotutako esparru akordioetan, lau egun lehenago), baldin eta eskaera gutxienez hamabi egun lehenago aurkeztu bada, edo kontratazio organoak kontratuaren ezaugarriak eta prozedura kontuan hartuta agirietan ezartzen duen epealdian, ezaugarrien taulako E) apartatuan ezartzen den bezala.

Baldin eta eskaeraren xedea baldintza teknikoan agirian, administrazio baldintza berezietan edo gainerako dokumentazioan ezartzen den zerbait argitzea bada, erantzunak lotesleak izango dira eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

Kontratu espedienteari buruzko informazio guztia eta administrazioaren kontratu jardueraren inguruko beste datu eta informazio guztiak kontratatzailearen profilean agertuko dira, SPKLren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratatzailearen profila aztertzea, Administrazioaren atarian sartuz egin behar da; ataria aurretik aipatutako ezaugarrien taulako E) apartatuan azaltzen da.

II.– ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA.

5.– ENPRESA LIZITATZAILEAK

5.1. Esparru akordioaren lizitaziorako eskaintza aurkeztu ahal izango dute (aurrerago zehaztuko da nola) Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoek zein juridikoek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzea debekatuta ez badaukate SPKLren 71. artikuluan ezartzen denaren arabera, eta ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala frogatzen badituzte edo, SPKLk eskatzen duen kasuetan, behar den sailkapena badute.

Halaber, enpresek esparru akordioaren xedea den jarduera edo prestazioa egiteko galdagarria den enpresa edo lanbide gaikuntza eduki beharko dute (ezaugarrien taulako F) apartatuan zehazten da).

Pertsona juridikoek ezingo dute kontratueterako lizitatu, baldin eta horietako prestazioak ez badaude beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-esparruaren barruan.

SPKLren 75. artikuluan ezarritakoari jarraituz, esparru akordio jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresa beste entitate batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, haiekin dituen lokarrien izaera juridikoa gorabehera, baldin eta frogatzen badu esparru akordioaren gauzatze aldi guztian kaudimen eta baliabide horiek benetan edukiko dituela eta beste entitate horiek ez badaude kontratatzeke inolako debekuren pean.



SPKLren 69. artikularekin bat etorri berariaz eraten diren aldi baterako enpresa elkarteek ere aurkezte eskaintza. Elkartea osatzen duen enpresa bakoitzak jarduteko bere gaitasuna, finantza eta ekonomia kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala frogatu beharko ditu, ondoko klausuletan adierazten agiriak aurkeztuz, eta, agiri pribatu batean, adierazi beharko dira hura izenpetzen duten enpresen izenak eta gainerako datuak, haietako bakoitzaren partaidetza, eta esparru akordioaren indarraldian administrazioaren aurrean haien guztien ordezkartza osoa izango duen pertsona edo entitatea, eta orobat adierazi beharko da konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko, adjudikazioa jasoz gero. Dokumentu hori elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariak sinatu behar dute.

5.2. Lizitazioan parte hartzeko eskaera (eta, hala badagokio, eskaintza) aurkezteak berekin ekarriko du:

- agiri honetako baldintza guztiak eta ezaugarrien taulan, baldintza teknikoen agirian eta kontratuko gainerako agirietan zehazten den guztia onartzea, inolako baldintzarik eta salbuespen edo erreserbarik gabe.
- aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla eta kontratuaren xede diren prestazio guztiak gauzatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela baieztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- kontratazio mahaiarentzako eta organoarentzako baimena, Sektore Publikoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Saikatuaren Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan bildutako datuak aztertu ahal izateko.

Enpresek ezingo dute parte hartu prozedura honetan, zuzenean edo zeharka, haiei loturiko enpresen bitartez, esparru akordioaren zehaztapen teknikoak edo prestatzeko agiriak egiten parte hartu edo aholku eman badiote kontratu honen prozedura prestatu bitartean kontratazio organoari, parte hartze horrek lehia faltsutu edo gainerako enpresa lizitatuzaileen aldean tratu pribilegiatua ekar baliezaieke.

Enpresa lizitatuzaile bakoitzak eskaintza bakar bat aurkeztu ahal izango du. Banako lizitatuzaileek ezin izango dute aurkeztu beste eskaintzarik beste enpresa batzuekin egindako aldi baterako elkarre batean. Arau hauek hausteak berekin ekarriko du aurkeztutako eskaintza guztiak ez onartzea.

Hala ere, ezaugarrien taulako G) apartatuan aldaera batzuk aurkezteko aukera ezar daiteke. Hala gertatzen denean, aldaerak bertan zehazten diren elementuekin eta baldintzekin bat etorri aurkeztu behar dira.

Horrelako kasuetan, ohiko eskaintza ekonomikoarekin batera proposatzen diren gainerako soluzioei dagozkienak ere aurkeztu behar dira; gainera, eskaintza ekonomikoan eskatzen diren datuak adierazi behar dira eta aldaeren justifikazioak aurkeztu behar dira.

6.- LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA

Lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistemari esker eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkez daitezke, agiriak bidali eta jaso daitezke, eta kontratuak sinatu daitezke. Sistema hori Administrazioaren atarian dago (ezaugarrien taulako E) apartatuan azaltzen da).



Eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak egiteko, lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistema hori erabili behar da, XIII. eranskinean azaltzen diren jarraibideak aintzat hartuz. Ezaugarrien taulako I) apartatuan aipatzen den epealdiko azken egunera arte egin ahal izango dira. Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Baldin eta, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian azaltzen diren kasuetan, ez badira nahitaez erabili behar balibide elektronikoak eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko, dokumentazioa administrazio kontratatzailearen erregistro orokorrean aurkeztu beharko da (horren egoitza ezaugarrien taulako H) apartatuan zehazten da) edo postaz bidali; ezaugarrien taulako I) apartatuan zehazten den epealdiko azken eguneko 14:30 arte egin ahal izango da (azken egunean jendearen arretarako ordutegi berezia badago, eguerdiko 12:30 arte aurkeztu ahal izango da erregistro orokorrean). Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Enpresa lizitatuak bi edo hiru gutun azal (A eta C, eta B, ezaugarrien taulako J) apartatuan hala ezarritako gero) aurkeztu beharko ditu, itxita, ondoren azalduko den dokumentazioarekin. Honako datu hauek adierazi beharko dira bakoitzean:

- a) parte hartzen duen lizitazioa
- b) enpresaren izena
- c) eskaintza sinatzen duenaren izen-abizenak, eta horretarako duen izaera. Horiek guztiak, erraz irakurtzeko moduan.

Gutun azalak, nahitaez, enpresa lizitatuaren ordezkariak sinatuta egon behar dira.

Eskaintza aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa hartu duten enpresa batzuek aurkezten badute, denen ordezkariak sinatu behar dute.

Eskaintza eta hari atxikitako dokumentazioa postaz bidaliz gero, postetxean bidalketa egin den eguna frogatu beharko da eta egun berean Administrazioaren Erregistro Orokorrari bidalketaren berri eman beharko zaio telex, fax edo telegrama bidez. Gainera, bidalketaren berri eman daiteke posta elektronikoz, ezaugarrien taulako E) apartatuan zehazten den helbidera, SPKLren 80. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bi betekizunok bete ezean, dokumentazioa aurkezteko epealdia amaitu ondoren aurkezten bada proposamena, ez da onartuko. Aipatu datatik hara egutegiko hamar egun igaro eta dokumentazioa ez bada jaso, hura ez da onartuko inola ere.

Eskaintza aurkeztu ondoren lizitatuak ezin izango du atzera egin, bidezko arrazoia daukala frogatu ezean.

6.1.- A GUTUN AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULEN BITARTEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN INGURUKO DOKUMENTAZIOA. Eskaintza ekonomikoan, adierazi behar da lizitazioaren xedea den zerbitzua emateko esparru akordioaren prezio gisa eskaintzen den zenbatekoa eta, aparteko partida batean, jasalarazi behar den balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi behar da, I. eranskinean ageri den ereduaren arabera.

Gainera, eskaintza ezaugarrien taulako M) apartatuan adierazten diren formula bidezko adjudikazio irizpideen arabera baloratzeko behar diren agiriak aurkeztu behar dira.



6.2.- B GUTUN AZALA: BALDINTZA TEKNIKOAK, BALIO JUDIZIO BATEN ARABERA HAZTATU BEHAR DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA ETA GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE PERTSONALAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA. Ezaugarrien taulako J) apartatuan hala ezarri gero, gutun azal honetan honako dokumentu hauek sartu behar dira: ezaugarrien taulako M) apartatuan ezartzen diren adjudikazio irizpideak (formula bidez ebaluatu ezin direnak) baloratzeko behar diren dokumentuak, eta baldintza teknikoaren agirian aipatzen diren gainerako dokumentu guztiak.

Ezaugarrien taulako J) apartatuan ezarri gero, administrazioak enpresa lizitatuak eskatu ahal izango die beren kaudimena eta gaitasuna edo, behar denean, sailkapena frogatzeaz gainera esparru akordioaren xedea behar bezala gauzatzeko behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak jar ditzatela (eskaintzan zehaztu behar dira, II. eranskineko ereduaren arabera).

Gainera, gutun azal honetan sartu behar da enpresak emandako informazioaren konfidentzialtasunaren adierazpena, behar denean (eredua III. eranskinean).

Gutun azalaren edukiaren zerrenda zenbakiduna jakinaraziko da aparteko orri batean.

6.3.- C GUTUN AZALA: KONTRATATZEKO GAITASUNA. Gutun azal honetan enpresa lizitatuaren erantzukizunpeko adierazpena sartu behar da (eredua IV. eranskinean), Europar Batasunak onetsitako Europako kontratazio dokumentu bakarreko (EKDB) formulazio normalizatuarekin bat datorrena eta esaten duena lizitatuak betetzen dituela Arabako Foru Aldundiarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak, kontratazio ezaugarrien taulan eta administrazio baldintza berezietan agirian ezartzen direnak, SPKLren 140. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

Enpresak beste enpresa batzuetara jotzen badu kaudimena, gaitasuna eta baliabideak ziurtatzeko, SPKLren 75. artikuluekin bat etorri, haietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du honelako kasuetarako behar den informazioarekin, IV. eranskinean jasotako EREDUaren arabera.

Enpresa batzuek ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA eratzen badute lizitazioan parte hartzeko, elkarteko kide bakoitzak aurkeztu behar du bere erantzukizunpeko adierazpena (EREDUA IV. eranskinean). Horrez gainera, dokumentu batean aldi baterako elkarteko enpresen izenak eta inguruabarrak adierazi behar dituzte eta bakoitzaren partaidetzaren berri eman behar dute, elkarteko ordezkari edo ahaldu bakarra nor den azaldu behar dute, eta adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela esparru akordioa adjudikatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko, SPKLren 69.3 artikuluan ezartzen denaren arabera.

Baldintza-agirian esparru akordioaren objektua lotetan banatzea ezarri denean, eskatzen diren ekonomia eta finantza kaudimeneko edo kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak lote batetik bestera aldatzen badira, kaudimen-betekizun berak aplikatzen zaizkion lote bakoitzari edo lote multzo bakoitzari buruzko erantzukizunpeko deklarazio bana aurkeztuko da.

Enpresa lizitatuaren erantzukizunpeko adierazpenean, Europar Batasunak onetsitako Europako kontratazio dokumentu bakarreko inprimaki normalizatuaren arabera, enpresaren edo, hala balegokio, aldi baterako enpresa elkartean helbide elektronikoko bat sartu behar da, dagozkion jakinarazpenak hara bidali ahal izateko, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera.

Halaber, gutun azal honetan sartu behar da lizitatuaren enpresa talde bateko kidea delako adierazpena, hala badagokio (eredua V. eranskinean).



6.4.- Esparru akordioa adjudikatu aurretik zein adjudikatu ondoren zein lanak egiten diren bitartean administrazioak egiaztatu ahal izango du egia denetz adierazten dena C gutun azaleko agirietan, enpresa adjudikaziodunak bere kontratatze gaitasunaz aurkeztu duen dokumentazioan eta, behar den kasuetan, ezaugarrien taulan gauzatze baldintza bereziak betetzen direla frogatzeko sartzen diren agirietan. Enpresak adierazitako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak izatea esparru akordioa deuseza izateko arrazoia izan daiteke, enpresa kontratistari egotz dakioken hutsegitea baita, eta horrek jarritako behin betiko bermea galtzea ekar dezake edo, bestela, bermea jarri ez bada, edo jarri beharrik izan ez bada, bermearen balio bereko kalte ordaina ordaindu beharra. Gainera, administrazioari eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko zaizkio, bahitutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruaz, SPKLren 194. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA

7.1.- KONTRATAZIO MAHAIA. Kontratazio mahaia eratuko da jasotzen diren eskaintzak aztertzeko. Mahaiko kideak ezaugarrien taulako K) apartatuan ezartzen dira.

Baldin eta balio judizio baten arabera zenbatzen diren irizpideen araberako balorazioaren haztapena handiagoa bada modu automatikoan ebaluatzen diren irizpideen araberako balorazioarena baino, balorazio hori egitea kalifikazio egokia duten adituek osatutako batzorde baten esku utziko da edo, bestela, erakunde tekniko espezializatu bati agindu ahal izango zaio, batzordea edo erakunde ezaugarrien taulako K) apartatuan behar bezala identifikatuta.

7.2.- ESKAINTZEN AZTERKETA. Aldez aurretik, kontratazio mahaia C) gutun azalen edukia aztertuko du eta garaiz eta behar bezala aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuko ditu. Adierazpenak egiaztatze, mahaiburuak gutun azalak irekitzeko aginduko du. Mahaia konturatuko balitz aurkeztutako dokumentazioan akats materialak daudela, enpresa interesdunei emango lieke horren berri, eta enpresa lizitatzailari, gehienez, hiru egun balioduneko epea emango lieke akatsa zuzentzeko.

Kontratazio mahiak, aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatu eta, halakorik balego, sumatutako akatsak edo hutsuneak konpondu ondoren, lizitazioa onartutako enpresak zehaztuko ditu, berriaz adieraziz errefusaturakoak eta errefusatzeko zioak.

Hala badagokio, kontratazio mahaia B gutun azalak irekiko ditu (baldintza teknikoak eta balio judizioa eginez haztatu behar diren irizpideei dagokien dokumentazioa). B gutun azalak ireki eta gero, haiek baloratzeko ardura duen organoari emango zaio haietan jasotako dokumentazioa.

Ezaugarrien taulako L) apartatuan ezartzen diren tokian, egunean eta orduan kontratazio mahaia lizitazioarako onartutako enpresen A gutun azalak irekiko ditu egintza publiko batean, hau da, eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatu daitezkeen gainerako irizpideei dagokien dokumentazioa dituzten gutun azalak.

Egintza horretan, A gutun azalak ireki aurretik, C gutun azaletako erantzukizunpeko adierazpenen egiaztapenaren ondorioz lizitazioarako zer enpresa onartu diren eta zeintzuk baztertu diren jakinaraziko da eta, adjudikazioarako kontuan hartu behar badira balio judizio baten arabera haztatzen diren balorazio irizpideak, B gutun azaletako dokumentazioetako eskaintzen alderdi teknikoaren balorazioa irakurriko da.



7.3.- ESKAINTZEN KALIFIKAZIOA.- Eskaintzaren bat ez badator aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat, lizitazio oinarria gainditzen bada, ezarritako eredu funtsean aldatzen bada, zenbatekoan errore nabarmenik badago, edo enpresa lizitatuak aitortzen badu errore edo akatsen bat dagoela eta ondorioz eskaintza ez dela bideragarria, kontratazio mahaiak bertan behera utziko du ebatzen arrazoitu baten bidez (HAKLAO, 84. artikulua).

Hain zuzen ere, eskaintza lizitaziotik kanpo uzteko arrazoi izango da balio judizioa eginez haztatu behar diren irizpideei dagokien dokumentazioa aparteko gutun azal batean aurkeztu beharra ez betetzea.

7.4.- ESKAINTZA BAXUEGIAK.- Eskaintzak baxuegiztat joko dira ezaugarrien taulako N) apartatuan zehazten diren parametroei jarraituz identifikatutako kasuen barruan daudenak. Eskaintza horiek direla eta SPKLren 149. artikuluan eta HAKLAOren 85. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Kontratazio mahaiak anormaltasun presuntzioa duten eskaintza bat edo batzuk identifikatzen dituzenean, errekerimendua egin beharko die haiek aurkeztu dituzten enpresa lizitatuak prezioen, kostuen edo eskaintzaren anormaltasuna definitzeko erabilitako beste edozein parametroren maila txikia arrazoituta eta zehaztasunez arrazoitu eta xeha dezaten, informazio hori eta horretarako egoki diren agiriak aurkeztuz, eta horretarako nahikoa den epea emango zaie.

Enpresa lizitatuak epean emandako informazio eta dokumentazio guztia ebaluatuko du kontratazio mahaiak eta onartzeko edo errefusatzeko proposamena bidaliko dio kontratazio organoari, arrazoituta.

Kontratazio organoaren ustez, enpresa lizitatuak egindako justifikazioa eta dagozkion txosten teknikoak aztertuta, bildutako informazioak ez badu ondo azaltzen enpresa lizitatuak proposatutako prezioen edo kostuen maila txikia eta, beraz, eskaintza ezin bada bete ezohiko balioak sartzeagatik, lizitaziotik kanpo utziko du. Oro har, anormaltasun presuntzioa duten eskaintzak errefusatu dira ikuspuntu tekniko, ekonomiko edo juridikotik hipotesi edo jardunbide desegokietan oinarritzen badira.

7.5.- ESKAINTZEN EBALUAZIOA.- Kontratazio mahaiak eskaintzak ebaluatuko ditu agiri honetako M) apartatuan garrantzia eta haztaketa handienetik txikienerako hurrenkeran jasotzen diren balorazio irizpideei jarraiki. Hala, egoki deritzen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, eta egokia deritzon proposamena egingo dio kontratazio organoari. Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa denean, preziorik baxuena duena joko da eskaintza onentzat.

Balorazio irizpideen aplikazioaren ondoren bi eskaintza edo gehiago berdindurik gertatzen badira balorazio onenarekin, ezaugarrien taulako M) apartatuko irizpideak aplikatuko dira (bertan agertzen diren ordenan) berdinketa hausteko.

Irizpide horiek ezarri ez badira, esparru akordioa adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskaintza berdindurik gertatzen badira, SPKLren 147.2 artikuluan ezartzen diren irizpide sozialak hartuko dira kontuan kontratua adjudikatzeko, bertan agertzen diren ordenan eta eskaintzak aurkezteko epealdiko azken eguna erreferentzia hartuta.



III. ADJUDIKAZIOA

8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATUTAKO ENPRESA LIZITATZAILEAK EDO ENPRESA LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

8.1.- SPKLren 150. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, kontratazio mahaiak behar bezala hurrenkeran sailkatuta igorriko dizkio kontratazio organoari aurkeztutako eskaintzak (salbu eta baztertuak izan direnak edo neurritz edo ohiz kanpokatzen direnak), bai eta akta eta adjudikazio proposamena ere.

8.2.- Adjudikatutako proposatutako enpresa lizitatuak (edo enpresa lizitatuak, bat baino gehiago aukeratzea aurreikusiz gero) kontratazio organoaren aurrean eta esparru kontratua adjudikatu aurretik egiaztatuko behar du administrazio klausula berezietan agiriaren 8.3. klausulan adierazitako gaitasuna eta kaudimena egiaztatuko agiriak dituela eta horiek baliozkoak direla.

Administrazioarekin kontratatutako eskatzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen direnetz eta kontratatutako debekurik dagoenetz ikusteko une erabakigarria eskaintzak aurkezteko epearen amaierakoa izango da, eta esparru kontratua formalizatzeko unean irauz behar du.

Aurretik esandakoa betetzeko, zerbitzu egokiak eskaintzarik onena egin duen enpresa lizitatuari eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun pasatu baino lehen (edo bost, izapideak presaz eginez gero) aurkez ditzala honako hauek frogatzen dituzten agiriak, bai enpresa lizitatuari dagozkionak, bai gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko laguntza bila jotzen den enpresei dagozkienak: 140. artikuluko 1. apartatuko a) eta c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarrak; zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela (edo baimena eman kontratazio organoari froga agiriok zuzenean eskuratzeko); badauzkala ezaugarrien taulako J) apartatuan ezartzen denaren arabera esparru akordioa gauzatzeko behar diren baldintzak. Halaber, agiri honetako 9. klausulan adierazitakoaren arabera bidezkoa den behin betiko bermea jarri izanaren froga agiriak ere eskatuko dira.

8.3.- 140. artikuluko 1. apartatuko a) eta c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarrak frogatzeko agiriak dagokienez (enpresa lizitatuak nahiz gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko laguntza bila jotzen den enpresenak), agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

a) Nortasun agiri nazionala, eskabidea bere izenean edo ahalduz gisa aurkeztu duenarena.

b) Pertsona juridikoaren lizitatuaren jarduteko gaitasuna Merkataritza Erregistroan jasotako eratzeko edo aldatzeko eskuratzeko bidez egiaztatuko da, baldin eta aplikagarri zaizkion merkataritza legeek hala eskatzen badute. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzea haren jardunari buruzko arauak jasotzen dituzten eta, beharrezkoa bada, erregistro ofizial egokian inskribatuta dauden eratzeko eskritura edo agiriaren, estatutuen edo sortze aktaren bidez egingo da.

c) Honetarako behar besteko ahalordea, beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituztenen aldekoa. Enpresa lizitatuak pertsona juridikoa bada, ahalmen horrek Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar du. Merkataritza Erregistroaren Arautegiaren 94.1.5. artikuluan xedaturikoaren arabera, ahalordetze hori egintza jakin baterako bada, ez du Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharrik.



d) Finantza eta ekonomia kaudimenaren eta gaitasun tekniko eta profesionalaren froga agiriak eta, behar denean, enpresa edo lanbide gaikuntzaren froga agiriak (ezaugarrien taulako F) apartatuan azaltzen dira), SPKLren 87. eta 90. artikuluetan ezartzen denaren arabera eta gutxieneko sailkapen eta kategoria talde edo azpitaldea kontuan hartuz, baldin eta esparru akordioaren xedea indarreko sailkapen talde edo azpitaldeetako batean badago (horretarako, esparruaren CPV kodea hartu behar da aintzat).

Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresa lizitatuzaileek ez dute aurkeztu beharko b), c) eta d) letretan aipatutako dokumentazioa. Salbuespen hori ziurtagiriaren beraren bidez egiazta daitezkeen gaitasun kaudimenaren inguruabarren egiaztagiriei baino ez dagokie.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken datan bete beharko dira eta esparru kontratua burutzeko unean iraun beharko dute.

Aldi baterako elkarteak eratuak lehiatu nahi duten enpresek banaka aurkeztu behar dute aurreko apartatuetan eskatzen den dokumentazioa.

Jatorrizko agiriak edo kopia kautoak aurkeztu behar dira, indarreko legeriarekin bat etorritik.

SPKLren 65.–76. eta 95. artikuluetan ezarritako ondorioetarako, kontratazio zerbitzuak eta mahaiak argibideak eskatu ahal izango dizkiote enpresari aurkeztutako ziurtagiriei eta agiriei buruz, edo beste osagarri batzuk aurkezteko errekerimendua egin. Errekerimendua egin eta bost egun balioduneko epean bete beharko du hori.

Atzerriko enpresek VI. eranskinean xedatzen dena bete behar dute.

8.4.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Lizitatuzailearen zerga egoitza dagoen lurraldeko zerga administrazioak emandako ziurtagiria eta zergapeko jarduerak egin dituen lurraldeetako zerga administrazioek emandakoak, lizitatuzaileak bere zerga betebeharrak egunean dituela frogatzen dutenak.

Merkataritzakoak ez diren sozietateak edo nortasun juridikorik gabeko entitateak badira, ziurtagiriak sozietate, entitate edo establezimenduaren titularrari edo titularrei buruzkoak izango dira.

Arabako Foru Ogasunarekiko betebeharren ziurtagiria administrazioak eskatuko du ofizioz.

- Ekonomia jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria, edo zerga horren matrikulako alta, ekitaldi horretan hasi bada jarduera, esparru kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Halaber, zerga horretan baja eman ez zaiolako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da (eredua VII. eranskinean).
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria, lizitatuzaileak haren kuoten ordainketak egunean dauzkala frogatzen duena.



Jarduera ekonomikoen gaineko zergako matrikulan baja hartu ez izanaren erantzukizunpeko aitortpena salbuetsita, lizitatuzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta dagoelako indarreko ziurtagiria daukatela egiaztatzen edo egiaztatu dutenak ziurtagiri horiek aurkeztetik salbuetsita daude indarraldi horrek iraun eta ziurtagiri egokian jasotzen diren inguruabarretan aldakuntzarik den bitartean. Puntu horiek espresuki adierazi beharko ditu enpresak, esparru akordioa formalizatzen den dokumentuan.

8.5.- 8.2 puntuak aipatzen duen errekerimendua adierazitako epean betetzen ez bada, enpresa lizitatuzaileak bere eskaintza kendu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZ gabe, zehapen gisa, eta dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo enpresa lizitatuzaileari, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

Behin betiko bermea esparru akordioan oinarritutako kontratu bakoitzaren adjudikaziodun bezala proposatutako enpresari bakarrik eskatuko zaio, agiri hauetako 14.4. apartatuan ezarritako prozeduraren arabera, baldin eta haren salbuespena bidezkotuta ez badago.

10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA

10.1.- Kontratazio organoak, adjudikaziodun bezala proposatu den enpresa lizitatuzaileak aurkeztutako dokumentazioa jaso ondoko bost egun baliiodunetan (hiru, presaz izapidetzekotan) adjudikatu beharko du esparru akordioa.

10.2.- Esparru akordioaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa bada, eskaintzak irekitzeko epealdia amaitu eta hurrengo egunetik hamabost egun pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (presaz izapidetzekotan, zortzi egun pasatu baino lehen).

Esparru akordioa adjudikatze hainbat irizpide hartu behar badira kontuan, edo aplikatzen den irizpide bakarra bizi zikloaren kostua ahalik eta txikiena izatea bada, eskaintzak irekitzen direnetik bi hilabete pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (presaz izapidetzekotan, hilabete pasatu baino lehen), ezaugarrien taulako P) apartatuan besterik ezarri ezean.

Proposamena gutun azal batean baino gehiagotan balego, halako moldez non ekitaldi bereiztan zabaldu behar diren, epe hori C gutun azala irekitzeko ekitalditik zenbatuko da.

10.3.- Administrazioak bi aukera izango ditu: esparru akordioa eskaintzarik onena egin duenari adjudikatzea, adjudikazio irizpideak aplikatuta; eta kontratua adjudikatu gabe uztea, agirietan ezarritako irizpideen arabera onar daitezkeen eskaintzarik ez badago.

Hala ere, SPKLren 152. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, administrazioak, esparru akordioa formalizatu baino lehen, uko egin ahal izango dio adjudikatzeari herritarren interesak direla eta, edo bertan behera utzi ahal izango du izapidetutako prozedura, konponezineko akatsik gertatu bada. Batera zein bestera, enpresa lizitatuzaileei konpentsazioa eman beharko die ezaugarrien taulako Q) apartatuan ezartzen den bezala. 10.4.- Adjudikazioa arrazoitua izan beharko da, bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie enpresa hautagai edo lizitatuzaileei eta, aldi berean, kontratatzaile profileen argitaratuko da hamabost eguneko epean.

Jakinarazpenean adjudikazio prozeduran izan diren interesdunek adjudikazio erabakiaren kontra ondo oinarritutako errekurtsioa aurkeztu ahal izateko behar den informazio guztia eman beharko da. Bereziki, honako datu hauek adierazi beharko dira:



- a) Baztertu diren enpresa hautagaiak direla eta, bazter uzteko kontuan hartu diren arrazoen laburpena.
- b) Adjudikazio prozeduratik kanpo utzitako enpresa lizitatzailerari dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, laburtuta, eta enpresa lizitatzaileraren balorazioen banakapena (adjudikaziodunarena barne).
- c) Kasu guztietan, enpresa adjudikaziodunaren izena, beraren eskaintzaren ezaugarriak eta onartutako gainerako eskaintza guztiak gaindituta kontratua berari adjudikatzea eragin duten onurak.

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, SPKLren 153.3 artikulua arabera adjudikazioa zer epetan formalizatu behar den zehaztu beharko da.

10.5.- Aurkezten diren eskaintzak (bai onartzen direnak, bai ireki gabe baztertzen direnak, bai ireki ondoren ezesten direnak) lizitazioaren espedientearen artxibatuko dira. Esparru akordioa adjudikatu ondoren, errekursoak aurkezteko epealdian bat ere aurkezten ez bada, eskaintzarekin aurkeztutako agiriak interesdunen eskura geratuko dira.

Enpresa lizitatzailerak urtebeteko epean eskatzen ez badute, dokumentazio hori deuseztatu ahal izango da.

IV. ESPARRU AKORDIOA FORMALIZATZEA

11.- ESPARRU AKORDIOA FORMALIZATU AURREKO EGINBEHARRAK

11.1.- Behin betiko adjudikazioaren jakinarazpenaren hartu agiria jaso ondoren, enpresa adjudikaziodunak esparru akordioa formalizatu aurretik ezaugarrien taulako R) apartatuan aipatzen diren aseguruaren esparru akordioaren polizaren kopia eta kontratazio primen ordainagiria aurkeztu beharko ditu. Enpresak aseguru horiek kontratatu eta bere kargura mantendu behar ditu esparru akordioaren iraunaldian eta bermealdian.

Aseguruaren mugak administrazioak zehaztuko ditu kontratuaren xedea den zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta.

11.2.- Esparru akordioa indarrean den bitartean kontratazio organoak enpresa kontratatari eskatu ahal izango dio erakutsi diezaiola aseguruaren dokumentazioa edo, bestela, eman diezakiola aseguru horien polizen kopiak edo ziurtagiriak, eta froga diezaiola primen ordainketak egunean dauzkala. Adjudikaziodunak eskakizun hori bete beharko du eta, hala egiten ez badu, kontratazio organoak ziurtapenen eta/edo fakturen ordainketa eten ahal izango ditu, bai eta, obrak jasota badaude, bermealdiaren konputuaren hasiera ere. Etenaldi hau ez da konputatuko kalte ordainen ondorioetarako. Gainera, eskaera ez betetzeak erantzukizunak sor ditzake.

12.- ESPARRU AKORDIOA FORMALIZATZEA



12.1.- Administrazioak egiten dituen esparru akordioak lizitazioaren baldintzak zehazki betetzen dituen agiri administratibo batean formalizatu beharko dira. Esparru akordioa aldi baterako enpresa elkarte bati adjudikatzen bazaio, enpresek eskritura publiko bidez egiaztatu beharko dute enpresa elkarte hori eratu dela, ondoko 12.2 eta 12.3 apartatueta xedatutako epearen barruan. Elkarte horren iraunaldia bat etorriko da esparru akordioaren iraupenarekin. Horrez gainera, aldi baterako enpresa elkarteari esleitutako IFZ ere aurkeztu beharko du.

12.2.- Esparru akordioaren kontra kontratazio alorreko errekurtsio berezia jarri ahal bada, ezingo da formalizatu enpresa lizitazileei jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igarota ez bada aurkeztu esparru akordioaren formalizazioa etetea berekin dakarren errekurtsorik, kontratazio organoak enpresa adjudikaziodunari eskatuko dio esparru akordioa gehienez ere bost eguneko epean (hiru eguneko epean, presaz izapidetzekotan) formaliza dezala, eskaera hori jaso duen egunetik aurrera. Berdin-berdin jokatu du errekurtsioa ebazteko organo eskudunak etendura kentzea erabakitzen duenean.

12.3.- Gainerako kasuetan, enpresa lizitazileei adjudikazioa jakinarazten zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen formalizatu beharko da esparru akordioa (izapideak presaz eginez gero, zortzi egun baliodun pasatu baino lehen).

12.4.- SPKLren 71. artikuluko 2. apartatuko b) letran xedatutakoa eragotzi gabe, esparru akordioa adierazitako epearen barruan ez bada formalizatu enpresa adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, administrazioak lizitazioko oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3 exijituko dio, BEZa aparte, zigor moduan. Horren ordainketa, lehenengo eta behin, behin betiko bermearen kontura egingo da, hura jarri baldin bada.

Kasu horretan, gainera, esparru akordioa hurrengo enpresa lizitazileari adjudikatuko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraituz, eta agiri honetako 8. klausulan ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta aurreko apartatueta ezarritako epeak aplikatuko dira.

12.5.- Kontratu ez formalizatzea administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik gertatu bada, berandutzeak eragin dizkion kalte-ordainak ordainduko zaizkio enpresa kontratistari.

12.6.- Esparru akordioa ezin izango da gauzatu ez bada aurretik formalizatu. Salbuespen izango dira premiaz izapidetu beharreko espedienteetarako aurreikusitako kasuak.

V. ESPARRU AKORDIOA GAUZATzea

13.- ARAU OROKORRAK

13.1- Esparru akordioa adjudikatzeak berekin dakar entitate adjudikazioduna(k) hornitzaile aukeratu izendatzea, eta akordioa indarrean dagoen aldian, atxikitako organismoak hari loturik daude eta, horrengatik, bereganatu egiten dute esparru akordioaren gaia diren eta ezaugarrien taulan azaltzen diren zerbitzuetako bat ere aukeratu gabeko inongo enpresa hornitzaileekin ez kontratatze egin beharra.

13.2- Hornitzaile aukeratu izendatzeak ez dakar aipatutako zerbitzuen emaile eta hornitzaile bihurtzerik berez eta besterik gabe.



Hornitzaile izaera hori ez da lortuko atxikitako organismoek beren beharrian espezifikoen arabera izapidetzen dituzten kontratu oinarritu egokien adjudikaziodun gertatu ondoren baino. Haiek esparru akordioan parte hartzeak ez die sortuko haren xede diren zerbitzuen gutxieneko kopuru bat kontratatzeke eginbeharririk batere.

13.3.- Hornitzaile aukeratu izendatzeak berekin dakar atxikitako organismoek hornitzaile aukeratuen artean kontratu oinarrituak adjudikatzeko eragiten dituzten prozedura guztietan eskaintza egiteko eginbarra.

Eginbehar hori funtsezkoa izango da agiri hauetako 15.14 apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako.

14.- ESPARRU AKORDIOAN OINARRITUTAKO KONTRATUEN ADJUDIKAZIOA

Esparru akordioaren garapena gauzatzen duten ondoko ondoko kontratu oinarrituak adjudikatzeko prozedura ondoko baldintza hauek arautuko dute.

14.1.- AUKERATUTAKO HORNITZAILEEI KONTSULTAK.

14.1.1.- Esparru akordioa aukeratutako hornitzaile bakar batekin egin denean, akordio hartan ezarritako baldintzen arabera adjudikatuko dira oinarritutako kontratuak. Kontratazio organoek idatziz egin ahal diote kontsulta aukeratutako enpresari. Beharrezkoa bada, eskaintza osatzeko eskatu ahal izango diote.

14.1.2.- Esparru akordioa aukeratutako hornitzaile bat baino gehiagorekin egin bada eta baldintza guztiak hartan ezarrita badaude, oinarritutako kontratuen adjudikazioa baldintza horiei jarraituz egingo da, aldeak beste lizitazio batera deitu beharrik gabe.

14.1.3.- Baldintza guztiak ez badaude ezarrita esparru akordioan, kontratu oinarrituen adjudikazioa aldeak beste lizitazio batera deituta egingo da. Lizitazio horretan, oinarri hartuko dira esparru akordioan finkatutako baldintzak, era zehatzagoan formulatuz, beharrezkoa bada, eta, hala badagokio, esparru akordioaren zehaztapenetan adierazten diren beste batzuk.

Kontratu zehatz bakoitzeko, dagokion kontratazio organoak eskaintza aurkezteko eskaera bidaliko die esparru akordioan hornitzaile aukeratu izendatu diren enpresei. Eskaera fax bidez, posta elektronikoz edo ohiko postaz bidali ahal izango da, eta haren ezaugarri espezifikoak jasoko dira hartan.

14.2.- ESKAINTZAK AURKEZTEA.

Prozedura bakoitzean parte hartzen duten enpresek, atxikitako organismo bakoitzak erabakitzen duen erregistroan aurkeztu beharko dituzte eskaintzak, eskaeran adierazitako epean. Eskaintzetan, hurrengo apartatuan ezartzen diren irizpideen arabera haiek baloratu ahal izateko behar diren elementu guztiak jaso beharko dira, baita ere beren zerga eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen egunean daudela egiaztatzen duten agiriak.

Aukeratutako hornitzaileek ezingo dute aurkeztu eskaintzarik kontratu oinarrituetarako, haietan jasotzen diren prezio, baldintza edo prestazioak administrazioarentzat txarragoak badira haiek esparru akordioan hornitzaile aukeratu izendatzea eragin zuen eskaintzakoak baino.

14.3.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK.



Kontratu oinarrituak, eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa hornitzaile aukeratuari adjudikatuko zaizkio, kontratu oinarrituetarako ezaugarrien taulako M) apartatuan zehaztutako irizpideen arabera baloratuta.

14.4.- BEHIN BETIKO BERMEA.

14.4.1.- Kontratu oinarrituaren adjudikazioduna izateko proposatutako enpresak kontratazio organoaren esku berme bat jarri beharko du, gutxienez kontratu oinarrituaren azkeneko prezio eskainiaren ehuneko 5 egiten duena, balio erantsiaren gaineko zerga kontatu gabe.

Kontratu oinarrituaren zenbatekoa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada, eratu beharreko bermearen zenbatekoa haren gehieneko aurrekontuaren arabera finkatuko da, balio erantsiaren gaineko zerga kontatu gabe.

Behin-behineko prezioak dituzten kontratuak izanez gero, ehuneko haia erantzuteko finkatutako gehieneko prezioa erreferentzia hartuz kalkulatu da, balio erantsiaren gaineko zerga kontatu gabe.

SPKLren 107.2 artikuluan arautzen diren kasu berezietan, berme osagarria eskatu ahal izango da, ezaugarrien taulako O) apartatuan hala ezartzen bada.

14.4.2.- Atxikitako organismo bakoitzak errekerimendua egingo dio kontratu oinarrituaren adjudikazio moduan proposatutako enpresari, bidezkoa den behin betiko bermea jarri dela frogatzen duten agiriak aurkez ditzan, hamar egun baliodun (bost, presaz izapidetzekotan) igaro baino lehen, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, atxikitako organismoak ez dio hari emango adjudikazioa, eta SPKLren 150.2 artikuluko azken paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

14.4.3.- Bermea eratzeko SPKLren 108. artikuluan ezartzen diren bideak erabil daitezke, HAKLAOren 55. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzak beteta. Onetsitako ereduak VIII., IX., X. eta XI. eranskinetan daude.

Behin betiko bermearekin SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzun zaie.

Bermeak itzultzea eta ezeztatzea, SPKLren 111. artikuluan eta HAKLAOren 65. artikuluan xedatutakoa betez egingo du atxikitako organismo bakoitzak.

14.5.- KONTRATU OINARRITUEN ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA.

Kontratazio organo eskudunak adjudikazio irizpideen arabera kalitate/prezio erlaziorik onena duen eskaintzari adjudikatu beharko dio kontratu oinarritua.

Adjudikazioa arrazoitua izan behar da, enpresa hautagai edo lizitatzaleei jakinaraziko zaie eta, kontratazio organoak hala erabakiz gero, argitara emango da kontratatzailearen profilean.

Jakinarazpenean, behar den informazio guztia jasoko da, horretan oinarrituta kanpoan utzitako lizitatzaleak edo baztertutako hautagaiak adjudikazio erabakiaren aurka errekurtsioa jarri ahal izateko. Bereziki, adjudikaziodunaren izena eta beraren eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak, gainerako enpresa lizitatzaleek aurkeztu dituzten eta onartuak izan diren eskaintzen aurretik beraren eskaintza aukeratzea eragin dutenak.



14.6.- ADJUDIKAZIOA, KONTRATU OINARRITUA EZ BADU GAINDITZEN MUGA EKONOMIKO JAKIN BAT (AFA-REN KONTRATU OINARRITUEI BAKARRIK APLIKATZEKO ZAIE KLAUSULA HAU)

Banakako zerbitzu prestazio bakoitzerako hartutako eskaintzek ez badute gainditzen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 19ko 27/2018 Foru Dekretuaren bidez ezarritako muga (dekretu horren bidez, prozedura onesten da administrazio kontratazio txikietako gastuak baimentzeko eta xedatzeko eta eginbeharrak onartzeko, eta Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 6ko 33/2020 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen), aurreko 14.4 eta 14.5 apartatuak ez zaizkie aplikatuko esparru akordioaren indarrez egindako adjudikazioei, eta adjudikazio prozedurak aipatu den foru xedapenean ezarritakoari jarraituko dio.

15.- KONTRATU OINARRITUA GAUZATZEA

15.1.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. Itundutako prestazioa behar bezala betetzen den egiaztatzeko, koordinatzeko eta zaintzeko ardura zuzena izango du esparru akordioko zuzendaritzak, eta titulu egokia eta nahikoa izan beharko du.

Zuzendari fakultatiboak hainbat laguntzaile eduki ditzake agindupean bere lanak egiteko. Laguntzaileak beren titulu profesionalaren edo ezagutza berezien arabera arituko dira eta esparru akordioaren zuzendaritzako kide izango dira.

Esparru akordioa formalizatzen denetik hamabost egun natural pasatu baino lehen, administrazioak kontratazio organoak izendatutako zuzendaritzaren berri emango dio kontratistari, eta zuzendaritza horrek gauza bera egingo du bere laguntzaileei dagokienez. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio enpresa kontratistari.

15.2.- KONTRATU OINARRITUA GAUZATZEKO ARAU OROKORRAK

15.2.1- Lanak gauzatzea. Kontratu oinarritua agiri honetan ezartzen diren baldintzei zorrozt lotuta egin behar da, eta atxikitako organismoak enpresa kontratistari interpretazioaz ematen dizkion jarraibideekin bat etorritik.

Kontratua SPKLren 311. artikuluan ezarritako erantzukizunekin gauzatuko du enpresa kontratistak. Kontratuko lanak egiten diren artean eta bermealdia amaitu arte enpresa kontratistak sumatzen diren akats guztien erantzukizuna edukiko du.

15.2.2.- Lanen eta kalteen erantzukizuna. Enpresa adjudikazioduna izango da egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita administrazioarentzat zein hirugarrenentzat kontratua gauzatzeko ez-egiteengatik, akatsengatik, metodo desegokiengatik edo ondorio okerregatik sortutako ondorioena ere. Hirugarrenei egiten zaizkien kalteak bere kontura ordainduko ditu.

15.2.3.- Gauzatze epeak. Lanak hasteko eguna, kontratu oinarrituaren adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo eguna izango da. Gauzatze epeak eta zatikako epeak, halakorik ezartzen bada, lanak hasteko eguna izango dute erreferentzia.

Izapidetzea presako deklaratu baldin bada, kontratu oinarritua gauzatzen hasteko epea ezingo da izan hamabost egun balioudun baino luzeagoa, formalizatzen den egunetik aurrera. Epe hori gaindituz gero, kontratua suntsiarazi ahal izango da, atzerapena atxikitako organismo kontratugileari eta enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkien arrazoien gertatu eta dagokion ebazpen arrazoituan hala jaso ezean.



Kontratu oinarritua gauzatzeko epe orokorra, zatikako epeak, holakorik badago, eta litezkeen luzapenak ezaugarrien taulako S) apartatuan edo kontratu oinarrituaren lizitazioan parte hartzeko gonbidapenean ezarriko dira.

Kontratuaren epea, indarrean dagoen legerian aipatzen diren kasuetan eta ezarritako baldintzak betetzen direnean soilik luza daiteke.

15.3.- EZINBESTEKO KASUAK. Ezinbesteko kasuetan, enpresa kontratistak kalte-ordaina jaso ahal izango du jasandako kalte eta galerengatik, baldin eta hark zuhurtziaz gabe jardun ez badu.

Ezinbesteko kasuak SPKLren 239. artikuluan arautzen dira. Kasu horiek HAKLAOren 146. artikuluan xedatzen denarekin bat etorri izapidetuko dira.

15.4.- ZEHAPENAK KONTRATUAREN XEDEA GAIZKI EGITEAGATIK, ZATI BAT EZ BETETZEAGATIK ETA ATZERAPENAGATIK. Kontratu oinarrituaren xedea gaizki betetzen bada, kontratu oinarritua gauzatzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak ez badira betetzen, edo enpresa kontratistak kontratu oinarrituan zehazten diren prestazioen zati baten gauzatea ez badu betetzen berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, zehapenak jarri ahal izango dira, ezaugarrien taulako U) apartatuan hala jasota badago.

Enpresa adjudikaziodunak bete beharko ditu kontratu oinarritua gauzatzeko epea eta atxikitako organismoak ezarritako zatikako epeak.

Epe horietako edozein amaituta, enpresa kontratista berandututa badago berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, atxikitako organismoak aukeratu ahal izango du kontratua suntsiaraztea ala zehapen ekonomikoak ezartzea. Zehapenen zenbatekoak ezaugarrien taulako U) apartatuan ezarrita daude.

Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik gertatzen bada, SPKLren 195.2 artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Nolanahi ere, enpresa kontratistaren berandutzea ezartzeko ez da beharrezkoa izango administrazioak aurretik interpellatzea ez hertsatzea.

15.5.- KALTE ETA GALERAK.

Kontratuaren zati bat bete ez, kontratua akatsekin bete edo haren gauzatean atzerapena gertatzen bada eta, hala ere, zehapenik ezarri behar ez bada edo, horregatik ezarri beharrek zehapenak ez baditu estaltzen atxikitako organismoari egindako kalteak, hark kalte eta galeren ordaina eskatuko dio enpresa kontratistari.

15.6.- KONTRATATUTAKO LANEI BURUZKO ARAU OROKORRAK

15.6.1.- Enpresak zerbitzua edo prestazioa esparru akordioan edo kontratua oinarrituan ezarritako epeetan behar bezala emateko beharrezkoak diren ekipo eta bitarteko guztiak jarri beharko ditu.

Administrazioak uste badu elementuren bat ez dela egokia, baztertu egin dezake. Hala ere, enpresak ebazpen horren aurka erreklamazioa aurkez dezake egutegiko hamar eguneko epean, zuzendaritzak erabakiaren idatzizko jakinarazpena bitarteko elektronikoz igortzen dionetik kontatuta.



15.6.2.- Zerbitzugintzari lotutako langileak enpresa adjudikaziodunaren mendekoak izango dira; berak bakarrik edukiko ditu enplegatzaile izateari datxekion eskubideak eta betebeharrak. Horretarako, betebeharrak hartuko ditu bere gain enpresa adjudikaziodunak:

1.- Enpresa adjudikaziodunak bakarrik edukiko du kontratu oinarrituen gauzatzeari lotutako lantaldea osatuko duten langileak aukeratzeko ardura; aukeratzaren diren langileek bete beharko dituzte eskatutako titulazio eta esperientzia baldintzak. Doakien organismo atxikiek egiaztatu ahal izango dute baldintza haiek betetzen diren.

2.- Enpresa adjudikaziodunak ahaleginak egingo ditu lantaldean egonkortasuna egon dadin, eta haren osaketan aldaketak unean unekoak izan daitezzen eta arrazoi justifikatuak izan ditzaten, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez nahasteko. Doakien organismo atxikiak informatuta eduki behar ditu beti.

3.- Enpresa adjudikaziodunak enpresa ororen berezko zuzendaritza ahalmena erabili behar du kontratu oinarrituak gauzatzeko ardura duen lantaldeko langileengan, benetan, eraginkortasunez eta etengabe. Zehazki, bere gain hartuko du soldatak negoziatzea eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, langileen ordezkariak hartu edo huts egiteko kasuetan, Gizarte Segurantzaren arloko lege betebeharrak, hala dagokionean kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne dela, lan arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina ahalmena erabiltzea, eta alderdi enplegatu eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik datozen eskubide eta betebeharrak guztiak.

4.- Enpresa adjudikaziodunak bereziki zaindu behar du kontratu oinarrituak gauzatzeari lotutako langileek betetzen dituzten eginkizunetan esparru akordioaren xede bezala mugatutako jardueraren mugak gainditu gabe egiten dutela beren jardura.

5.- Enpresa adjudikaziodunak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, langileen plantillakoa; horren betebeharrak batzuk honako hauek izango dira:

- a) Administrazioaren aurrean enpresa adjudikaziodunaren solaskide jardutea, alde batetik enpresa adjudikaziodunaren eta kontratu oinarrituei lotutako lantaldeko langileen eta, beste aldetik, entitate kontratatzailearen arteko komunikazioa bideratuz, kontratu oinarrituen gauzatzetik eratorritako kontuei dagokien guztian.
- b) Lana kontratu oinarritua gauzatzeko ardura duten langileen artean banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateari dagokionez behar diren lan aginduak eta jarraibideak ematea.
- c) Lantaldeko langileek bere gain dauzkaten eginkizunak zuzen betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura doazela kontrolatzea.
- d) Kontratu oinarritua gauzatzeari loturiko langileen opor araubidea antolatzea: horretarako, enpresa adjudikazioduna ondo koordinatu beharko da atxikitako organismoarekin zerbitzuaren funtzionamendu ona ez nahasteko.
- e) Doakien organismo atxikiei jakinaraztea kontratuaren gauzatzeari lotutako lantaldearen osakeran gertatutako aldaketa guztiak, unean unekoak nahiz iraunkorrak.



15.6.3.- Enpresa adjudikaziodunak bere bulego edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratu oinarritua, kasu honetan izan ezik: zerbitzuak atxikitako organismoen bulegoetan eman beharra ezaugarrien taulan edo baldintza teknikoaren agirian ezartzen bada eta berariaz baimenduta badago. Hala izanez gero, enplegatu publikoek okupatzen dituztenetatik bereizitako lan esparruak jarriko ditu atxikitako organismoak enpresa adjudikaziodunaren eskura, eta enpresa adjudikaziodunak izango du ardura zerbitzu horiei lotutako bere langileek esleitu den kokalekua errespetatzen dutela zaintzeko.

Esparru akordioaren xedearen izaera dela-eta, atxikitako organismoaren lan zentroetan dauden instalazioetan etengabe eman behar badira zerbitzuak, enpresa adjudikaziodunak, gainera, prestazioa hasi aurretik, frogatu beharko du dagokion kontratu oinarritua gauzatzeari lotutako langileak Gizarte Segurantzari afiliatuta eta alta emanda daudela.

15.6.4.- Lanen jabetza. Egindako lanak, edozein fasetan daudela, doakien organismo atxikiaren jabetza izango dira eta, ondorioz, haiek edozein unetan eskatu ahal izango dute prestazioen zati bat eman dakiela, baldin eta behin betiko lan programarekin bat badator eta lanak behar bezala egitea eragozten ez badu.

15.6.5.- JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA. Kontrakoa berariaz aurreikusi ezean, jabetza industrial edo intelektualeko eskubideak sortu edo haiei eragin diezaieketen lanetan, enpresa adjudikazioduna izango da proposamenaren ideia originala izatearen erantzule beste edozeinen aurrean. Halaber, berak bermatu eta ordainduko ditu jabetza industrialaren edo intelektualaren eraginpean dauden elementuak erabiltzearen kostuak.

Kontratazio honen bitartez, kontrakoa espresuki xedatuta egon ezean, atxikitako organismo kontratatzaileak industria aplikazioa edo ustiapen ekonomikoa ekar dezaketen jabetza industrial eta intelektualeko eskubide guztiak eskuratzen ditu sortzen den obraren gainean. Eskubide horiek atxikitako organismoaren eskuetan egongo dira egungo legerian ezarritako eperik luzeenaz, harik eta jabari publikora igaro arte.

Eskubide horiek esklusibotasunez eskuratzen dira, orain arte dagoen ustiapen eta/edo euskarri mota ororen gainean, eta munduko herrialde guztietara salbuespenik gabe zabaltzen den lurralde eremuarekin. Ondorioz, ekoizteko formatu originala eta bera hedatzeko, erakusteko zein zabaldu edo ustiatzeko beste edozein modutarako komenigarritzat jotzen duen erreproduzio oro gauzatzeko eskumena gordetzen du beretzat. Zehazki, doakion organismo atxikiaren titulartasuneko jabetza intelektualeko eskubideak, sortu den obra erreproduzitu, banatu, jendaurrean komunikatu eta eraldatzeko eskubideak eta ekonomikoki ustia daitezkeen gainerakoak dira.

Enpresa kontratistak edo prestaketan esku hartu duen edozein pertsonak ezingo dute lana beretzat erabili, ez hirugarrenei kontratatutako lanaren filiazioaren, testuen, irudien edo argazkien zatirik eman, eta ezingo dute haren edukia osorik edo partez argitaratu atxikitako organismo titularraren baimen espresu eta idatzirik gabe. Kasu guztietan enpresa kontratistak edukiko du betebeharrak ez betetzeak eragiten dituen kalte eta galeren erantzukizuna. Orobat, kontratu oinarrituaren xede diren lanak egitearen ondoriozko material guztiak ere doakien organismo atxikiaren jabetza izango dira. Enpresa adjudikaziodunak hitz ematen du eragindako organismo bakoitzak jabetza industrial eta intelektualeko eskubide guztien eskuratzea gauzatzeko eskatzen dizkion agiri guztiak sinatuko dituela.

15.6.6.- Indemnitete erregela. Enpresa adjudikaziodunak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, atxikitako organismo bat kondenatua bada



enpresa adjudikaziodunarekin solidarioki diru kopuruak ordaintzera, ordaindutako kopurua hari jasanaraziko zaio eta, horretarako, atxikitako organismoak beretzat gordetzen du ordaindutako kopuruak osorik berreskuratu arte egoki eta komenigarriak diren ekintza administratibo eta judizial guztiak erabiltzeko aukera.

15.7.- LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI EGINAK

15.7.1.- Ezaugarrien taulako AB) apartatuan ezarritako bermealdia amaitu arte enpresa kontratistak erantzungo du kontratatutako lanak ondo eginda egoteaz, bai eta lan horiek dauzkaten akatsez ere, nahiz eta atxikitako organismoaren ordezkariak lanak ikuskatu edo egiaztatu haiek egiten ari diren bitartean edo haien egiaztapen, balioztapen edo ziurtapen partzialetan onartu (horrek ez dio eskubiderik bat ere emango, ez da aske geratuko erantzukizun horretatik).

15.7.2.- Ez du erantzukizunik izango lan akastuna edo gaizki egina atxikitako organismoak emandako agindu baten zuzeneko ondorioa bada.

15.7.3.- Atxikitako organismoak uste badu ez direla bete kontratu oinarrituko baldintza teknikoak, HAKLAOren 203. artikuluan xedaturikoari jarraituko zaio, eta prestazioak ez baditu betetzen haren harrerarako behar diren baldintzak, HAKLAOren 204. artikuluan eta agiri honetako 15.2.2, 15.4 eta 15.5 klausuletan xedatutakoari jarraituko zaio.

15.8.- ORDAINKETAK ENPRESA KONTRATISTARI. Enpresa kontratistak eskubidea izango du egiaz gauzatzen dituen prestazioak kobratzeko, esparru akordioan eta haren aldaketetan (halakorik egonez gero) ezarritako baldintzen arabera, eta itundutako prezioetan. Kontratu oinarrituen xedea den prestazioaren prezioa, doakien organismo atxikiek ordainduko dute, ezaugarrien taulako V) apartatuan ezarritako moduan.

Kontratu oinarritua hainbat prestazioren bidez gauzatzen bada, zatikako ordainketak egin ahal izango dira, baldin eta zatikako prestazio horiek ezarritako epeen barruan egiten badira.

Abenduaren 30eko 67/2014 Foru Dekretuan, zeinaren bidez foru administrazioko fakturen kontabilitate erregistroa sortu eta horren tramitaziorako prozedura onesten baita, xedatutakoa betetzeko, enpresa kontratistak formatu elektronikoan aurkeztu beharko ditu fakturak horretarako ezarritako prozedurari jarraituz, atxikitako organismoa AFA baldin bada.

Egindako prestazioekiko adostasuna frogatzen duten agirien onespren egunetik hogeita hamar egun igaro baino lehen ordaindu beharko du prezioa atxikitako organismo bakoitzak, ezertan eragotzi gabe SPKLren 210. artikuluko 4. letran ezarritakoa. Ordainketa atzeratzen bada, epealdia amaitu ondoko berandutze interesak ordaindu beharko dizkio enpresa kontratistari, bai eta kobrantza kostuen kalte ordaina eman ere, eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak xedatzen duenarekin bat etorri, SPKLren 198.4 artikuluan xedatzen denaren arabera.

Lanak HAKLAOren 199. eta 200. artikuluetan xedatzen denaren arabera baloratuko dira.

Ezaugarrien taulako W) apartatuan hala ezarritako gero, enpresa kontratistak alde aurretik eskatuta, konturako ordainketak egin ahal izango dira kontratu oinarrituaren gauzatzea prestatzeko eragiketen zenbatekoaz, haren xedearen barruan badaude, eta SPKLren 198.3 artikuluan xedatzen denaren arabera.



15.9.- ENPRESA KONTRATISTAREN EGINBEHAR ESPEZIFIKOAK ETA GASTU GALDAGARRIAK. Esparru akordio honen araubide juridikoaren ondoriozko betebeharrak orokorrean gainera, ondoko betebeharrak espezifikak hauek ere izango ditu kontratistak:

a) INGURUMEN, GIZARTE ETA LAN ARLOETAN. Enpresa kontratistak bete behar ditu ingurumen, gizarte eta lan arloetan Europar Batasuneko zuzenbidean, estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo nazioarteko ingurumen, gizarte eta lan zuzenbideko xedapenetan, estatua lotzen dutenetan, ezarrita eta indarrean dauden xedapenak, eta bereziki SPKLren V. eranskinean ezarritakoak.

Bereziki:

1. Egin beharreko prestazioak lan ordenantzari edo hitzarmen kolektiboari lotuta daudenean, dagokion lan ordenantzaren eta hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete behar ditu.

2. Enpresa kontratistak berdintasun kontuan dituen eginbeharrei dagokienez, ondoko honi jarraituko zaio, plantilla bolumenaren arabera:

a) 250 langile baino gehiago dituzten enpresetan, kontratatutako jardura hasi baino lehenago egiaztatu behar da barneko berdintasun plana dagoela, berdintasun planak eta haien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera. Halaber, enpresaren zuzendaritzaren eta langileen legezko ordezkariaren organoaren ardura da egiaztatzea hura betetzen dela eta plan haren barruan dauden neurriak benetan ezarri direla.

b) 250 langile baino gutxiago dituzten enpresetan, entitate adjudikaziodunak berdintasuna bermatuko duten neurriak ezarri behar ditu arlo hauetan, kontratua gauzatzeari lotutako langileekiko: lanpostua eskuratzea; sailkapen pertsonala; sustapena; iraupena; prestakuntza; ordainketak; kalitatea eta lan egonkortasuna; jardunaldiaren iraupena eta antolaketa; eta bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurriak, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari buruzkoak, diogenari jarraituz.

Halaber, kontratuaren gauzatzeari ondorioz sortzen dituen agiri, publizitate, irudi eta material guztietan hizkuntza ez-sexista erabili behar du, emakumeak diskriminatzen dituzten irudiak eta estereotipo sexistak ekidinen dituzte eta berdintasun, oreka, aniztasun eta erantzunkidetasun balioak sustatuko dituzte, bai eta rol ugartasuna eta genero berdintasuna ere.

Baita ere, konpromisoa hartuko du sexu jazarpenik eta sexuagatiko jazarpenik gabeko lan ingurune bat ezartzeko, eta egiaztatu behar du protokolo bat daukala sexu jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko.

3. Enpresak laneko arriskuen prebentzioarako egokiak, nahitaezkoak edo beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar ditu. Halaber, indarreko araudian laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako eginbeharrak beteko ditu eta kontratatutako jardura hasi aurretik eginbeharrak hauek betetzen dituela egiaztatu behar du:

- Kontratutako jarduerari dagokion prebentzio jardueraren arriskuak ebaluatzea eta haren plangintza egitea.



- Prebentzioari buruzko trebakuntza eta informazioa ematea esparru akordioa gauzatzean lanean edukiko dituen langileei.

- Haren kasuan beharrezkoak diren banakako babes ekipamenduak eman izanaren egiaztatzea.

4. Enpresak lanetako batzuk azpikontratzen baditu, azpikontratei aurreko eginbeharren ziurtagiriak eskatu eta atxikitako organismo kontratatzaileari aurkeztu beharko dizkio. Gainera, segurtasun eta osasun koordinatzaileei jakinarazi beharko dizkie azpikontratazioak, lanei ekin aurretik.

5. Langileei lanak egitean edozein motatako istripu edo kalterik gertatuz gero, indarrean dauden arauetan xedatutakoa beteko du, bere erantzukizunaren pean, eta erantzukizun hori ez da inoiz ere hedatuko atxikitako organismo kontratatzaileetara.

6. Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziatio kolektiboko akordio batek agintzen duela eta ezaugarrien taulako X) apartatuan hala ezarri gero, enpresa adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatu beharko da laneko harremanetan eraginpeko langileei dagokienez. SPKLren 130. artikuluan xedatutakoa betez, subrogazioak eragindako langileen kontratuetako baldintzei buruzko informazioa jasoko da baldintza teknikoaren agiriaren.

b) LAN PROGRAMA. Segidako traktuko zerbitzuen kontratu oinarrituetan, ezaugarrien taulako AC) apartatuan berariaz ezarri gero, enpresa kontratatista lan programa aurkeztu behar du eskaintzarekin batera aurkeztutakoa garatzeko, kontratu oinarrituaren adjudikazioa jakinarazten zaionetik hamabost egun igaro baino lehen. Programa hau kontratazio organoak onetsi behar du.

Enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako plana kontratuko dokumentua izango da ondorio guztietarako.

Lan plana aurkeztu eta hurrengo hamabost egunetan (edo baldintza teknikoaren agiriaren ezartzen den epean) kontratazio organoak hari buruz ebatziko du, edo, hala bada, dagokio, aldaketak sartu edo betekizun batzuk ezarriko ditu, ez baldin badaude esparru akordioaren klausuletan ezarritakoaren kontra.

Enpresa kontratatista aurkeztutako lan programa onesten ez den bitartean, enpresa lizitatzailerak lizitazio fasean aurkeztutakoa izango da aginduzkoa.

Atxikitako organismo bakoitzak erabaki ahal izango du fakturen ordainketari biderik ez ematea enpresa kontratatista behar den moduan lan programa aurkeztu arte, eta horrek ez du sortuko faktura horien ordainketan atzerapenagatiko interesak kobratzeko eskubiderik.

c) GAUZATZEKO EGIN BEHARREKO GASTUAK. Enpresa kontratatistaren kontura ordainduko dira lizentziak, agiriak edo erakunde ofizialen edo partikularren informazio oro lortzeko behar diren gastuak. Halaber, indarrean diren xedapenen aplikazioak dakartzan zerga, sari, tasa, konpentsazio eta gainerako gastu edo kargak ere, xedapen horiek berek zehaztutako moduan eta zenbatekoan.



Enpresa adjudikaziodunaren ardura da prestazioa egiteko behar diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratzea, hala ofizialak nola partikularrak.

d) ATXIKITAKO ORGANISMO KONTRATATZAILEAREKIKO LANKIDETZA. Doakien organismo atxikiei eskuratu beharko zaizkio, inolako kostu gehigarririk gabe, kontratu oinarritua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu profesionalak, hala nola, argibideak emateko bileretara joatea, jendeari informazioa ematea eta abar.

e) HIZKUNTZA IRIZPIDEAK. Esparru akordioaren adjudikazioa duen enpresak eta litezkeen enpresa azpikontrastek egiaztatu beharko dute kontratu oinarrituak gauzatzean bi hizkuntza koofizialak (euskara eta gaztelania) erabiltzen direla, eta jarduera elebitasunarekin eta herritarren hizkuntza eskubideen errespetuarekin lotuta egon beharko da, bat etorritz Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko xedapenekin, Euskararen Normalizaziorako 10/1982 Legearekin, Euskadiko Administrazio Publikoaren Normalizazio Prozesuak arautzen dituen 86/1997 Dekretuarekin eta Arabako Foru Aldundiko 2013-2017 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planarekin.

15.10.- GAUZATZE BALDINTZA BEREZIAK. Adjudikazioa duen enpresa kontratistak erantzuna eman beharko die atxikitako organismo bakoitzak Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren gardentasunerako, herritarren parte hartzerako eta gobernu onerako otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren III. kapituluko eginbeharrak betetzeko egiten dituen informazio eskakizunei, eta kontratu oinarritua gauzatzean aplikatu beharko ditu esparru akordioaren xedearekin lotutako izaera sozialeko eta ingurumeneko baldintzak eta bestelako baldintza bereziak (horiek guztiak ezaugarrien taulako X) apartatuan zehazten dira).

15.11.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA. Kontratuaren lagapenean SPKLren 214. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Enpresa adjudikaziodunak kontratu oinarrituaren zati bat hirugarren batzuekin azpikontratatzeari dagokionez, SPKLren 215. artikuluan ezarritako betekizunen pean egongo da, eta enpresa azpikontrastetei eta hornitzaileei egiten zaizkien ordainketak SPKLren 216. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz egin beharko dira.

Azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa ezaugarrien taulako Y) apartatuan zehaztuta egongo da; bertan ezarritako gero, enpresa lizitatzailak eskaintzan honako datu hauek eman beharko dituzte: kontratuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duten, azpikontratazioaren zenbatekoa, eta lanak gauzatzeko aginduko zaien enpresa azpikontrastisten izenak edo profilak, gaitasun profesional edo teknikoko baldintzen arabera zehaztuta. Enpresa kontratistak EKDBn gai honi buruz jasorazitakoaz gainera, betiere jakinarazi beharko dio kontratazio organoari, idatziz, kontratua adjudikatu ondoren, eta beranduenez ere kontratua gauzatzen hasten denerako, azpikontratuak egiteko asmoa duela, adierazi beharko du prestazioaren zein zati nahi duen azpikontratatu, zer enpresa azpikontratatu duen, nor den enpresa azpikontrastisten legeko ordezkaria (edo ordezkariak), eta harremanetarako datuak eman beharko ditu. Baita ere, frogatu beharko du enpresak behar besteko gaitasuna duela lanak egiteko, elementu tekniko eta giza baliabideei eta esperientziari dagokionez, eta egiaztatu beharko du ez duela kontratatzeke debekurik, eta informazio hori kontratu nagusia gauzatzean aldatzen bada, horren berri eman beharko du, bai eta enpresa azpikontrastista berriei buruzko beharrezko informazio guztia ere.



15.12.- ESPARRU AKORDIOA ETA KONTRATU OINARRITUAK ALDATZEA. SPKLren 309. artikuluan jasotako salbuespenarekin, esparru akordio hau eta bertan oinarritutako kontratuak ezingo dira aldatu interes publikoko arrazoiengatik baino, ezaugarrien taulako Z) apartatuan edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan, eta SPKLren 207. artikuluan araututako prozedurari jarraituz.

Kasu horietan, kontratazio organoak erabakitzen dituen aldaketak nahitaezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat, 205. artikuluan jasotako aldaketa kasuetan izan ezik. Holakoetan, ez dira nahitaezkoak izango haren zenbatekoan (banaka nahiz batera) sortzen duten aldaketa handiagoa bada esparru akordioaren edo kontratu oinarrituaren hasierako prezioaren ehuneko 20 baino (BEZ gabe).

15.13.- KONTRATU OINARRITUA ETETEA. Gai honetaz, SPKLren 208. artikuluan eta HAKLAOren 103. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Kontratu osoa edo haren zati bat aldi baterako edo behin betiko eteten baldin bada, etete akta egingo da eta bertan honako datuak jaso beharko dira: atxikitako organismoak kontratua eteteko hartutako erabakia, etetea eragin duten inguruabarrak, kontratuaren gauzatzea dagoen egitatezko egoera, eta eteteak ukitzen dituen prestazio zatia edo zatiak, edo osotasuna.

Etetea erabaki ondoren, atxikitako organismoak enpresa kontratistari ordainduko dizkio horrek benetan jasan dituen kalte eta galerak, SPKLren 208.2 artikuluan adierazitako erregelen arabera.

15.14.- KONTRATU OINARRITUAREN HARRERA ETA LIKIDAZIOA. SPKLren 210. eta 311. artikuluetan xedatzen denarekin bat etorri egingo da harrera.

15.14.1.- Kontratu oinarritua enpresa kontratistak betetakotzat emango da azken honek prestazio osoa burutu duenean, hartan ezarritakoaren arabera eta atxikitako organismo kontratatzailearen gogobetetasunez.

Hala jasota gera dadin, atxikitako organismo bakoitzak harrera edo adostasun egintza formal eta positibo bat egin beharko du kontratu oinarrituaren xedea entregatu edo burutu eta hurrengo hilabetearen barruan, edo ezaugarrien taulako AA) apartatuan zehazten den epean.

Enpresa kontratistak ezarrita dagoen epean entregatu beharko ditu egindako lanak, eta, beharrezkoa izanez gero, aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du eragindako kontratazio organoaren ordezkariak; baldintza teknikoak betetzat emanez gero, hura hartzea proposatuko du, eta orduan dagokion akta egingo da.

Eragindako kontratazio organoak erabakiko du enpresa kontratistak egindako prestazioak betetzen dituen gauzatzeko eta betetzeko ezarritako baldintzak, eta horretarako SPKLren 190. eta 191. artikuluetan xedatutako eskumenak izango ditu eta, beharrezkoa izanez gero, eskatuko du kontratatutako prestazioak egiteko eta harreran nabaritutako akatsak zuzentzeko. Baldin eta lanak ez badira egin hitzartutako prestazioaren arabera, eta akatsak edo hutsegiteak kontratistari egotzi ahal bazaizkio, ezetsi ahal izango ditu, eta aske geratuko da ordaintzeko betebeharretik edo, aurretik zer edo zer ordaindu badu, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

15.14.2.- Harrera aktaren datatik hogeita hamar egun igaro baino lehen, kontratu oinarrituaren likidazioa erabaki eta enpresa kontratistari jakinarazi beharko zaio, bidezkoa bada, eta likidazio horren ondoriozko saldoa ordaindu beharko zaio.



15.15.- BERME EPEA. Harrera aktaren datatik aurrera, kontatzen hasiko da ezaugarrien taulako AB) apartatuan ezartzen den berme epea. Epe hori igarota, atxikitako organismoak ez badu jarri eragozpenik, enpresa kontratistaren erantzukizuna azkenduko da (ezkutuko akatsengatiko erantzukizuna izan ezik), eta ondoren bermea itzuli edo ezeztatuko da eta, bidezkoa bada, ordaindu gabeko kopuruak ordainduko dira.

Berme epearen barruan egiaztatzen bada lanetan hutsak edo akatsak daudela, doakion organismo atxikiak eskubidea izango du enpresa kontratistari horiek konpontzea erreklamatzeko.

Berme epea igarota, atxikitako organismoak ez badu jarri eragozpenik edo salaketarik, enpresa kontratista emandako zerbitzuengatiko erantzukizunetik libre geratuko da, eta bermea itzuliko da.

Kontratu oinarritua amaitzen denetik urtebete igarota, eta berme epea pasatuta, harrera formala eta likidazioa egin ez badira enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkion kausengatik, itzuli edo ezeztatuko da bermea, luzapen gehiagorik gabe, SPKLren 110. artikulua arabera bermeak loturik dauden erantzukizunei aurre egin zaiela egiaztatu ondoren.

15.16.- ESPARRU AKORDIOA EDO KONTRATU OINARRITUA SUNTSIARAZTEA. Esparru akordioa edo kontratu oinarritua SPKLren 211. eta 313. artikuluetan adierazten diren kasuetan suntsiaraziko da. Suntsiaraztea eragindako kontratazio organoak erabakiko du, ofizioz nahiz enpresa kontratistak eskatuta, hari entzualdia bermatuko zaion prozedura baten bidez, eta SPKLren 212., 213. eta 313. artikuluetan ezarritako ondorioak sortuko ditu.

Ezaugarrien taulako U) apartatuan kontratua ez betetzeagatik berariazko zehapenak ezarri ezean, ezaugarrien taulako X) apartatuan zehazten diren gauzatze baldintza bereziak esparru akordioaren eta kontratu oinarritu bakoitzaren funtsezko eginbeharrak izango dira, kontratua suntsiarazteko arrazoiei buruz SPKLren 211.f) artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako.

Era berean, ondorio horietarako, esparru akordioa edo kontratu oinarrituetako funtsezko eginberrak izango da ezaugarrien taulako J) apartatuan eskatutako konpromisoa, nahiko giza baliabide edo baliabide material atxikitzea.

Esparru akordioa edo kontratu oinarritua enpresa adjudikaziodunaren erruz suntsiarazten bada, behin betiko bermea bahitu egingo zaio. Gainera, hala badagokio, kalte ordaina eman beharko du doakion organismo atxikiari egindako kalte eta galerengatik, bahitutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten neurrian.

15.17.- KONFIDENTZIALTASUNA. Agiri honen xedea den prestazioa gauzatzeko beharrezkoa bada doakion organismo atxikiaren titulartasuneko fitxategietako datu pertsonalak erabiltzea, entitate adjudikaziodunak datu horien tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, kontuan harturik Datuen Babesari buruzko Europar Batasunaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoa. Hirugarrenek datu pertsonalak nola tratatu behar dituzten konfidentzialtasunari buruzko klausuletan arautuko da. Entitate adjudikaziodunak bete beharreko dokumentu ereduak agiri honen XII. eranskinean daude.



Era berean, adjudikazioaren publikotasunaren eta enpresa hautagai eta lizitatzailerei eman behar zaien informazioaren inguruan SPKLk xedatzen dituenak ezertan eragotzi gabe, kontratazio organoak ezingo du zabaldu enpresek emandako eta beraiek III. eranskinean (seketu tekniko edo komertzialekin duten loturagatik) konfidentzialtzat jotako informazioa. Enpresak azaldu beharko ditu lotura horren arrazoiak.

VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

16.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

16.1.- Kontratazio organoak eskumena dauka administrazio kontratuak interpretatzeko, betetzearen inguruan sortzen diren zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik haiek aldatzeko, kontratua gauzatzearen ondorioz enpresa kontratistari egotzi behar zaion erantzukizuna ebazteko, haren gauzatzea eteteko, suntsiaraztea erabakitzeke eta horren ondorioak zehazteko, SPKLk eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, adierazitako mugen barruen eta ezarritako baldintza eta ondorioei lotuta.

Halaber, kontratua gauzatu bitartean enpresa kontratistek egiten dituzten jarduerak ikuskatzeko eskumenak dauzka kontratazio organoak, aipatutako legean ezarritako baldintzetan eta mugen barruan.

Kontratazio organoak kontratuak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko ahalmenez baliatuz ematen dituen erabakiak berehala bete beharrekoak izango dira.

16.2.- Esparru akordio honen interpretazioaz, aldatzeko, suntsiarazteaz eta ondorioez sortzen diren auziak kontratazio organo eskudunak ebatziko ditu. Haren erabakiek amaiera emango diote administrazio bideari, eta haien kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legean ezarritakoarekin bat etorritik. Hala ere, enpresa interesdunek berraztertzeke errekurtsua jarri ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, bidezkoa denean.

16.3.- Errekurtsu berezia jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, SPKLren 44.2 artikuluan aipatzen diren egintzen kasuan. Errekurtsu berezi horiek aztertzea eta ebaztea Arabako Foru Aldundiaren Kontratu Errekurtsuaren Foru Organo Administrazioaren egitekoak dira (organo hori Diputatuen Kontseiluaren irailaren 28ko 44/2010 Foru Dekretuaren bidez sortu zen).

3. ERANSKINA

HORNIDUREN ESPARRU AKORDIOA
ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRI EREDUA**HORNIDUREN ESPARRU AKORDIOA. Prozedura
irekia****ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA**

I. - ESPARRU AKORDIOAREN XEDEA ETA KONTU OROKORRAK	2
1.- ESPARRU AKORDIOAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA 2	
2.- ESPARRU AKORDIOAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA, GEHIENEN AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA IZATEA ETA ESPARRU AKORDIOAREN PREZIOA ... 3	
3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA	4
4.- AGIRIAK ETA DOKUMENTAZIO ETA INFORMAZIO OSAGARRIA	4
II.- ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIOAREN ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA.. 5	
5.- ENPRESA LIZITATZAILEAK	5
6.- LIZITAZIOAREN ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA	6
7.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA	9
III. ADJUDIKAZIOA	10
8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATUTAKO ENPRESA LIZITATZAILEAK EDO ENPRESA LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.....	10
9.- BEHIN BETIKO BERMEA	13
10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA	13
IV. ESPARRU AKORDIOA FORMALIZATzea	11
ESPARRU AKORDIOA FORMALIZATU AURREKO EGINBEHARRAK	14
12.- ESPARRU AKORDIOA FORMALIZATzea	14
V. ESPARRU AKORDIOA GAUZATzea	15
13.- ARAU OROKORRAK	15
14.- ESPARRU AKORDIOAN OINARRITUTAKO KONTRATUEN ADJUDIKAZIOA	16
15.- KONTRATU OINARRITUAK GAUZATzea	18
VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	25
16.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	25



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Foru Gobernu Kontseilua
Consejo de Gobierno Foral

HORNIDUREN ESPARRU AKORDIOA

ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

I. - ESPARRU AKORDIOAREN XEDEA ETA KONTU OROKORRAK

1.- ESPARRU AKORDIOAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA

1.1.- Esparru akordio honen xedea da ezaugarrien taulako A) apartatuan azaltzen den horniduraren baldintzak zehaztea eta hura egingo duten enpresak aukeratzea, zeinen kopurua orobat ezaugarrien taulako A) apartatuan zehazten baita. Haiekin bidezko diren kontratu eratorriak izenpetu ahal izango dira.

1.2.- Ezaugarrien taulako A) apartatuan hala ezarriz gero, esparru akordioaren xedea bertan azaltzen diren loteetan zatiturik dago.

Ezaugarrien taulako A) apartatuan mugak ezartzen dira loteetarako eskaintzak aurkezteko eta loteak adjudikatzeko.

Baldin eta adjudikazio irizpideen aplikazioaren arabera enpresa lizitatzailerik batek gehienez jaso daitezkeenak baino lote gehiago jaso ahal baditu, ezaugarrien taulako A) apartatuko irizpideak edo arauak aplikatuko dira zer lote adjudikatuko zaion erabakitzeko.

1.3.- Agiri honetan eta baldintza teknikoan agirian ezartzen denarekin bat etorritik egin behar da hornidura.

Ondorio guztietarako, administrazio baldintza berezien agiri hau, ezaugarrien taula, baldintza teknikoan agiriak eta horien eranskinak kontratu agiriak dira, eta halakoak diren aldetik alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte. Enpresa adjudikaziodunak esparru akordioa formalizatzeko egintzan sinatu beharko ditu, onartzen dituela adierazteko.

1.4.- Kontratazioa honako xedapen hauetan ezartzen denari lotuko zaie: agiri hau; baldintza teknikoan agiriak; 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, zeinaren bidez Espainiako antolamendu juridikora aldatzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak; 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Araubide Orokorra onesten duena (HAKLAO); eta Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuak arautzen dituzten gainerako xedapen aplikagarri guztiak.



1.5.- Esparru akordioa SPKLren 156. – 158. artikuluetan ezarritako prozedura irekiaren bidez adjudikatuko da, eta, salbuesenez, lege beraren 160. – 165. artikuluetan araututako prozedura murriztuaren bidez. Gainera, HAKLAOko edo hura ordeztzen duen erregelamendu xedapeneko artikulua egokiak ere aplikatuko dira. Aukeratutako enpresa hornitzaile batekin edo gehiagorekin burutu ahal izango da, ezaugarrien taulako A) apartatuan ezarritakoaren arabera. Horri buruz ezer ezarrita ez badago, enpresa adjudikazioduna bakarra izan daiteke.

SPKLren 221.4 eta 221.5 artikuluetan ezarritakoaren arabera, esparru akordioaren xedea enpresa hornitzaile bat baino gehiago aukeratzea denean, ezaugarrien taulako A) apartatuan adierazi behar da kontratazio oinarrituaren termino guztiak ezartzen dituen eta, hala izanez gero, kontratazio eratorria lizitazioaz ala lizitaziorik gabe egingo den, ala biak erabil daitezkeen, eta zein kasutan erabiliko den bide bat edo bestea. Esparru akordioak ez baditu ezartzen termino guztiak, beste lizitazio bat egingo da.

1.6.- Esparru akordio honen indarrez kontratatzen diren horniduren azken HARTZAILEAK ezaugarrien taulako oharren apartatuan zerrendatutako entitateak izango dira.

Esparru akordio honen aplikazio eremu subjektiboa zehazteko, entitate horiei "atxikitako organismoak" esango zaie agiri honetan.

1.7.- Esparru akordioa bukatzeko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) organo egokia izango da, akordioaren balio zenbatetsiaren arabera, Arabako Foru Kontratazioen Zentralak (aurrerantzean, Zentrala) lagundurik.

1.8.- Esparru akordio honetan oinarritutako kontratuak adjudikatzeko organo eskuduna, atxikitako organismo bakoitzean legeria aplikagarriaren arabera kontratazio eskudantzia egokiak dituen izango da.

2.- ESPARRU AKORDIOAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA. GEHIENENKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA IZATEA ETA ESPARRU AKORDIOAREN PREZIOA

2.1.- Esparru akordioaren balio zenbatetsia agiri honetako ezaugarrien taulako B) apartatuan ageri da.

Esparru akordioaren prezioa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada hornitu beharreko unitate kopuruaren arabera, unitateko prezioak agiri honetako ezaugarrien taulako B) apartatuan ageri direnak izango dira.

Balio zenbatetsia orientatzailea da, eta hura indarrean dagoen bitartean egin daitezkeen kontratu oinarritu guztien zenbatekoaren gutxi gorabeherako kalkulua da.

Egiazko gastua, enpresa adjudikaziodunak eskainitako prezioen eta atxikitako organismoek kontratu oinarrituetan benetan eskatutako hornidura kopuruaren emaitza izango da.

2.2.- Lizitazioa oinarri baten pean ez dagoenez, ez da ezarri behar esparru akordioaren gehiengo aurrekontu bat. Adjudikazio aurrekontu zehatzak kontratu oinarrituetako bakoitzean ezarriko dira.

2.3.- Kontratu oinarrituen prezioa haien adjudikazioaren ondoriozkoa izango da.



Helburu guztietarako, ondoko hauek sartzen dira haren barruan: enpresa kontratistak kontratatu den prestazioa normalki gauzatzeko egin beharreko gastu guztiak, zuzenekoak zein zeharkakoak, indarreko xedapenen arabera aplikatu beharreko tasa guztiak, eta era guztietako errega eta lizentziak, udalena, probintziakoak zein estatukoak.

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

3.1.- Esparru akordio honetan oinarritutako kontratuak enpresa kontratistaren arrisku eta menturaz gauzatu dira.

3.2.- Prezioen berrikuspena hasiera batean bidezkoa den edo bidezkoa ez den zehazteko, ezaugarrien taulako D) apartatuan ezartzen denari jarraituko zaio. Berrikuspena bidezkoa ez bada, hala adieraziko da apartatu horretan. Prezioen berrikuspena hasiera batean bidezkoa bada, berrikuspenerako aplikatuko diren indizeak edo formula polinomikoak adieraziko dira, hala badagokio, apartatu horretan.

Prezioak berrikusteko araubide juridikoa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) 103.–105. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Arautegi Orokorraren (HAKLAO) 104., 105. eta 106. artikuluetan ezarritakoa izango da.

3.3.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena ezartzen ez bada, kontratua gauzatzeko epealdia luzatzeak ez du inolaz ere hura aldatuko, luzapen horren arrazoia administrazioari egotzi ahal izan edo ezinbesteko kasua izan ezean (ezinbesteko kasuak SPKLren 239. artikuluan ezartzen dira).

3.4.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena jasotzen bada, hura egin ahal izateko ezinbestekoa izango da bi baldintza hauek betetzea: kontratu oinarrituaren zenbatekoaren ehuneko 20 gauzatu egotea eta kontratua formalizatu zenetik bi urte igaro izana. Beraz, lehenengo ehuneko (ehuneko 20) eta gauzate aldiko lehenengo bi urteak, kontratu oinarrituaren adjudikaziotik kontatuta, ezin daitezke berrikusi, SPKLren 103. artikuluan ezartzen den bezala.

4.- AGIRIAK ETA DOKUMENTAZIO ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

Administrazio baldintza berezien agiria, baldintza teknikoaren agiria eta gainerako dokumentazio osagarria kontratatzailearen profilean eskuratu ahal izango dira; gainera, SPKLren 138.2 artikuluan aipatzen diren kasuetan, ezaugarrien taulako E) apartatuan aipatzen den administrazio zerbitzuaren bulegoetan eskuratu ahal izango dira jendaurreko ordutegian, eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte.

Eskaintza aurkeztu aurretik enpresa interesdunek zerbitzu horretara jo ahal izango dute lizitazioaren inguruabar berezien berri jakiteko.

Enpresa interesdun batek, ezarritako epealdian, agiriei buruzko informazio osagarria eta gainerako dokumentu osagarriak eskatuz gero, SPKLren 138. artikuluan eta HAKLAOren 78. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Agiriaz eta dokumentazio osagarriaz eskatzen den informazioa eskaintzak jasotzeko ezarritako epealdia amaitu baino sei egun lehenago gutxienez eman behar da (izapidetzea presazkoa bada,



hiru egun lehenago; salbuespena: arau harmonizatuei lotutako esparru akordioetan, lau egun lehenago), baldin eta eskaera gutxienez hamabi egun lehenago aurkeztu bada, edo kontratazio organoak esparru akordioaren ezaugarriak eta prozedura kontuan hartuta agiritan ezartzen duen epealdian, ezaugarrien taulako E) apartatuan ezartzen den bezala.

Baldin eta eskaeraren xedea baldintza teknikoan agirian, administrazio baldintza berezietan edo gainerako dokumentazioan ezartzen den zerbait argitzea bada, erantzunak lotesleak izango dira eta kontratatzailearen profileen argitaratuko dira.

Kontratu espedienteari buruzko informazio guztia eta administrazioaren kontratu jardueraren inguruko beste datu eta informazio guztiak kontratatzailearen profileen agertuko dira, SPKLren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratatzailearen profila aztertzea, Administrazioaren atarian sartuz egin behar da; ataria aurretik aipatutako ezaugarrien taulako E) apartatuan azaltzen da.

II.- ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA.

5.- ENPRESA LIZITATZAILEAK

5.1. Esparru akordioaren lizitaziorako eskaintza aurkeztu ahal izango dute (aurrerago zehaztuko da nola) Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoek zein juridikoek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzea debekatuta ez badaukate SPKLren 71. artikuluan ezartzen denaren arabera, eta ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun tekniko eta profesionala frogatzen badituzte edo, SPKLk eskatzen duen kasuetan, behar den sailkapena badute.

Halaber, enpresek esparru akordioaren xedea den jarduera edo prestazioa egiteko galdagarria den enpresa edo lanbide gaitasuna eduki beharko dute (ezaugarrien taulako F) apartatuan zehazten da).

Pertsona juridikoek ezingo dute kontratuarentzako lizitatu, baldin eta horietako prestazioak ez badaude beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-esparruaren barruan.

SPKLren 75. artikuluan ezarritakoari jarraituz, esparru akordio jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresa beste entitate batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, haiekin dituen lokarrien izaera juridikoa gorabehera, baldin eta frogatzen badu esparru akordioaren gauzatze aldi guztian kaudimen eta baliabide horiek benetan edukiko dituela eta beste entitate horiek ez badaude kontratatzeko inolako debekuren pean.

SPKLren 69. artikulua ere etorriz berariaz eratzten diren aldi baterako enpresa elkarteek ere aurkez dezakete eskaintza. Elkartea osatzen duen enpresa bakoitzak jarduteko bere gaitasuna, finantza eta ekonomia kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala frogatu beharko ditu, ondoko klausuletan adierazten agiriak aurkeztuz, eta, agiri pribatu batean, adierazi beharko dira hura izenpetzen duten enpresen izenak eta gainerako datuak, haietako bakoitzaren partaidetza, eta esparru akordioaren indarraldian administrazioaren aurrean haien guztien ordezkari osoa izango duen pertsona edo entitatea, eta orobat adierazi beharko da



konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkarte formalki eratzeko, adjudikazioa jasoz gero. Dokumentu hori elkarte osatzen duten enpresa guztien ordezkariak sinatu behar dute.

5.2. Lizitazioan parte hartzeko eskaera (eta, hala badagokio, eskaintza) aurkezteak berekin ekarriko du:

- agiri honetako baldintza guztiak eta ezaugarrien taulan, baldintza teknikoaren agiriaren eta kontratuko gainerako agiriaren zehazten den guztia onartzea, inolako baldintzarik eta salbuespen edo erreserbarik gabe.
- aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla eta kontratuaren xede diren prestazio guztiak gauzatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela baieztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- kontratazio mahaiarentzako eta organoarentzako baimena, Sektore Publikoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Saillkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu bateko eragile ekonomikoaren zerrenda ofizialean bildutako datuak aztertu ahal izateko.

Enpresek ezingo dute parte hartu prozedura honetan, zuzenean edo zeharka, haiei loturiko enpresen bitartez, esparru akordioaren zehaztapen teknikoak edo prestatzeko agiriak egiten parte hartu edo aholku eman badiote kontratu honen prozedura prestatu bitartean kontratazio organoari, parte hartze horrek lehia faltsutu edo gainerako enpresa lizitatuzaileen aldean tratu pribilegiatua ekar baliezaieke.

Enpresa lizitatuzaile bakoitzak eskaintza bakar bat aurkeztu ahal izango du. Banako lizitatuzaileek ezin izango dute aurkeztu beste eskaintzarik beste enpresa batzuekin egindako aldi baterako elkarte batean. Arau hauek haustek berekin ekarriko du aurkeztutako eskaintza guztiak ez onartzea.

Hala ere, ezaugarrien taulako G) apartatuan aldaera batzuk aurkezteko aukera ezar daiteke. Hala gertatzen denean, aldaerak bertan zehazten diren elementuekin eta baldintzekin bat etorritik aurkeztu behar dira.

Horrelako kasuetan, ohiko eskaintza ekonomikoarekin batera proposatzen diren gainerako soluzioei dagozkienak ere aurkeztu behar dira; gainera, eskaintza ekonomikoan eskatzen diren datuak adierazi behar dira eta aldaeren justifikazioak aurkeztu behar dira.

6.- LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA

Lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistemari esker eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkez daitezke, agiriak bidali eta jaso daitezke, eta kontratuak sinatu daitezke. Sistema hori Administrazioaren atarian dago (ezaugarrien taulako E) apartatuan azaltzen da).

Eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak egiteko, lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistema hori erabili behar da, XIII. eranskinean azaltzen diren jarraibideak aintzat hartuz. Ezaugarrien taulako I) apartatuan aipatzen den epealdiko azken egunera arte egin ahal izango dira. Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.



Baldin eta, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian azaltzen diren kasuetan, ez badira nahitaez erabili behar baliabide elektronikoak eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko, dokumentazioa administrazio kontratatzailearen erregistro orokorrean aurkeztu beharko da (horren egoitza ezaugarrien taulako H) apartatuan zehazten da) edo postaz bidali; ezaugarrien taulako I) apartatuan zehazten den epealdiko azken eguneko 14:30 arte egin ahal izango da (azken egunean jendearen arretarako ordutegi berezia badago, eguerdiko 12:30 arte aurkeztu ahal izango da erregistro orokorrean). Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Enpresa lizitatzailerak bi edo hiru gutun azal (A eta C, eta B, ezaugarrien taulako J) apartatuan hala ezarritako gero) aurkeztu beharko ditu, itxita, ondoren azalduko den dokumentazioarekin. Honako datu hauek adierazi beharko dira bakoitzean:

- a) parte hartzen duen lizitazioa
- b) enpresaren izena
- c) eskaintza sinatzen duenaren izen-abizenak, eta horretarako duen izaera. Horiek guztiak, erraz irakurtzeko moduan.

Gutun azalak, nahitaez, enpresa lizitatzaileraren ordezkariak sinatuta egon behar dira.

Eskaintza aldi baterako enpresa elkarte eratzeko konpromisoa hartu duten enpresa batzuek aurkezten badute, denen ordezkariak sinatu behar dute.

Eskaintza eta hari atxikitako dokumentazioa postaz bidaliz gero, postetxean bidalketa egin den eguna frogatu beharko da eta egun berean Administrazioaren Erregistro Orokorrari bidalketaren berri eman beharko zaio telex, fax edo telegrama bidez. Gainera, bidalketaren berri eman daiteke posta elektronikoz, ezaugarrien taulako E) apartatuan zehazten den helbidera, SPKLren 80. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bi betekizunok bete ezean, dokumentazioa aurkezteko epealdia amaitu ondoren aurkezten bada proposamena, ez da onartuko. Aipatu datatik hara egutegiko hamar egun igaro eta dokumentazioa ez bada jaso, hura ez da onartuko inola ere.

Eskaintza aurkeztu ondoren lizitatzailerak ezin izango du atzera egin, bidezko arrazoia daukala frogatu ezean.

6.1.- A GUTUN AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULEN BITARTEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN INGURUKO DOKUMENTAZIOA. Eskaintza ekonomikoan, adierazi behar da lizitazioaren xedea den ondasun hornidura egiteko esparru akordioaren prezio gisa eskaintzen den zenbatekoa eta, aparteko partida batean, jasanarazi behar den balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi behar da, I. eranskinean ageri den ereduaren arabera.

Gainera, eskaintza ezaugarrien taulako M) apartatuan adierazten diren formula bidezko adjudikazio irizpideen arabera baloratzeko behar diren agiriak aurkeztu behar dira.

6.2.- B GUTUN AZALA: BALDINTZA TEKNIKOAK, BALIO JUDIZIO BATEN ARABERA HAZTATU BEHAR DIREN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA ETA GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE PERTSONALAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA. Ezaugarrien taulako J) apartatuan hala ezarritako gero, gutun azal honetan honako dokumentu hauek sartu behar dira: ezaugarrien taulako M) apartatuan ezartzen diren adjudikazio irizpideak (formula bidez ebaluatu ezin



direnak) baloratzeko behar diren dokumentuak, eta baldintza teknikoen agirian aipatzen diren gainerako dokumentu guztiak.

Ezaugarrien taulako J) apartatuan ezarri gero, administrazioak enpresa lizitatuzaileei eskatu ahal izango die beren kaudimena eta gaitasuna edo, behar denean, sailkapena frogatzeaz gainera esparru akordioaren xedea behar bezala gauzatzeko behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak jar ditzatela (eskaintzan zehaztu behar dira, II. eranskineko ereduaren arabera).

Gainera, gutun azal honetan sartu behar da enpresak emandako informazioaren konfidentzialtasunaren adierazpena, behar denean (eredua III. eranskinean).

Gutun azalaren edukia zerrenda zenbakiduna jakinaraziko da aparteko orri batean.

6.3.- C GUTUN AZALA: KONTRATATZEKO GAITASUNA. Gutun azal honetan lizitatuzailearen erantzukizunpeko adierazpena sartu beharko da (eredua IV. eranskinean), Europar Batasunak onetsitako Europako kontratazio dokumentu bakarreko (EKDB) formulazio normalizatuarekin bat datorrena eta esaten duena lizitatuzaileak betetzen dituela Arabako Foru Aldundiarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak, kontratazio ezaugarrien taulan eta administrazio baldintza berezien agirian ezartzen direnak, SPKLren 140. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

Enpresak beste enpresa batzuetara jotzen badu kaudimena, gaitasuna eta baliabideak ziurtatzeko, SPKLren 75. artikuluaekin bat etorritik, haietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du honelako kasuetarako behar den informazioarekin, IV. eranskinean jasotako EREDUaren arabera.

Enpresa batzuek ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA eratzen badute lizitazioan parte hartzeko, elkarteko kide bakoitzak aurkeztu behar du bere erantzukizunpeko adierazpena (EREDUA IV. eranskinean). Horrez gainera, dokumentu batean aldi baterako elkarteko enpresen izenak eta inguruabarrak adierazi behar dituzte eta bakoitzaren partaidetzaren berri eman behar dute, elkarteko ordezkari edo ahaldun bakarra nor den azaldu behar dute, eta adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela esparru akordioa adjudikatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko, SPKLren 69.3 artikuluan ezartzen denaren arabera.

Baldintza-agiriari esparru akordioaren objektua sortatan banatzea aurreikusten duenean, eskatzen diren ekonomia- eta finantza-kaudimeneko edo kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak sortatik sortara aldatzen badira, kaudimen-betekizun berak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzari edo sorta multzo bakoitzari buruzko erantzukizunpeko deklarazio bana aurkeztuko da.

Enpresa lizitatuzailearen erantzukizunpeko adierazpenean, Europar Batasunak onetsitako Europako kontratazio dokumentu bakarreko inprimaki normalizatuaren arabera, enpresaren edo, hala balegokio, aldi baterako enpresa elkartearen helbide elektronikoa sartu beharko da, dagozkion jakinarazpenak hara bidali ahal izateko, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera.

Halaber, gutun azal honetan sartu behar da lizitatuzailea enpresa talde bateko kidea delako adierazpena, hala badagokio (eredua V. eranskinean).

6.4.- Esparru akordioa adjudikatu aurretik zein adjudikatu ondoren zein lanak egiten diren bitartean administrazioak egiaztatu ahal izango du egia denetz adierazten dena C gutun



azaleko agirietan, enpresa adjudikaziodunak bere kontratatze gaitasunaz aurkeztu duen dokumentazioan eta, behar den kasuetan, ezaugarrien taulan gauzatze baldintza bereziak betetzen direla frogatzeko sartzen diren agirietan. Enpresak adierazitako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak izatea esparru akordioa deuseza izateko arrazoia izan daiteke, enpresa kontratistari egotz dakiokkeen hutsegitea baita, eta horrek jarritako behin betiko bermea galtzea ekar dezake edo, bestela, bermea jarri ez bada, edo jarri beharrik izan ez bada, bermearen balio bereko kalte ordaina ordaindu beharra. Gainera, administrazioari eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko zaizkio, bahitutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruaz, SPKLren 194. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA

7.1.- KONTRATZIO MAHAIA. Kontratzio Mahaia eratu da jasotzen diren eskaintzak aztertzeke. Mahaiko kideak ezaugarrien taulako K) apartatuan ezartzen dira.

Baldin eta balio judizio baten arabera zenbatzen diren irizpideen arabera balorazioaren haztapena handiagoa bada modu automatikoa ebaluatzen diren irizpideen arabera balorazioarena baino, balorazio hori egitea kalifikazio egokia duten adituek osatutako batzorde baten esku utziko da edo, bestela, erakunde tekniko espezializatu bati agindu ahal izango zaio, batzordea edo erakunde ezaugarrien taulako K) apartatuan behar bezala identifikatuta.

7.2.- ESKAINTZEN AZTERKETA. Aldez aurretik, kontratzio mahaia C) gutun azalen edukia aztertuko du eta garaiz eta behar bezala aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuko ditu. Adierazpenak egiaztatzeke, mahaiburua gutun azalak irekitzeko aginduko du. Mahaia konturatuko balitz aurkeztutako dokumentazioan akats materialak daudela, enpresa interesdunei emango lieke horren berri, eta enpresa lizitatuileari, gehienez, hiru egun balioduneko epea emango lieke akatsa zuzentzeko.

Kontratzio mahaia, aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatu eta, halakorik balego, sumatutako akatsak edo hutsuneak konpondu ondoren, lizitazioa onartutako enpresak zehaztuko ditu, berariaz adieraziz errefusatutakoak eta errefusatzeko zioak.

Hala badagokio, kontratzio mahaia B gutun azalak irekiko ditu (baldintza teknikoak eta balio judizioa eginez haztatu behar diren irizpideei dagokien dokumentazioa). B gutun azalak ireki eta gero, haiek baloratzeko ardura duen organoari emango zaio haietan jasotako dokumentazioa.

Ezaugarrien taulako L) apartatuan ezartzen diren tokian, egunean eta orduan Kontratzio Mahaia lizitazioarako onartutako enpresen A gutun azalak irekiko ditu egintza publiko batean, hau da, eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatu daitezkeen gainerako irizpideei dagokien dokumentazioa dituzten gutun azalak. Egintza horretan, A gutun azalak ireki aurretik, C gutun azalako erantzukizunpeko adierazpenen egiaztapenaren ondorioz lizitazioarako zer enpresa onartu diren eta zeintzuk baztertu diren jakinaraziko da eta, adjudikazioarako kontuan hartu behar badira balio judizio baten arabera haztatzen diren balorazio irizpideak, B gutun azalako dokumentazioetako eskaintzen alderdi teknikoaren balorazioa irakurriko da.

7.3.- ESKAINTZEN KALIFIKAZIOA.- Eskaintzaren bat ez badator aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat, lizitazio oinarria gainditzen bada, ezarritako eredu funtsean aldatzen bada, zenbatekoan errore nabarmenik badago, edo enpresa lizitatuileak aitortzen badu errore edo akatsen bat dagoela eta ondorioz eskaintza ez dela bideragarria, kontratzio mahaia bertan behera utziko du ebazpen arrazoitu baten bidez (HAKLAO, 84. artikulua).



Hain zuzen ere, eskaintza lizitaziotik kanpo uzteko arrazoi izango da balio judizioa eginez haztatu behar diren irizpideei dagokien dokumentazioa aparteko gutun azal batean aurkeztu beharra ez betetzea.

7.4.- ESKAINTZA BAXUEGIAK.- Eskaintzak baxuegizat joko dira ezaugarrien taulako N) apartatuan zehazten diren parametroei jarraituz identifikatutako kasuen barruan daudenak. Eskaintza horiek direla eta SPKLren 149. artikuluan eta HAKLAOren 85. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Kontratazio mahaiak anormaltasun presuntzioa duten eskaintza bat edo batzuk identifikatzen dituenean, errekerimendua egin beharko die haiak aurkeztu dituzten enpresa lizitzaileei prezioen, kostuen edo eskaintzaren anormaltasuna definitzeko erabilitako beste edozein parametroren maila txikia arrazoituta eta zehaztasunez arrazoituta eta xeha dezaten, informazio hori eta egoki diren agiriak aurkeztuz, eta horretarako nahikoa den epea emango zaie.

Enpresa lizitzaileak epean emandako informazio eta dokumentazio guztia ebaluatuko du kontratazio mahaiak eta onartzeko edo errefusatzeko proposamena bidaliko dio kontratazio organoari, arrazoituta.

Kontratazio organoaren ustez, enpresa lizitzaileak egindako justifikazioa eta dagozkion txosten teknikoak aztertuta, bildutako informazioak ez badu ondo azaltzen enpresa lizitzaileak proposatutako prezioen edo kostuen maila txikia eta, beraz, eskaintza ezin bada bete ezohiko balioak sartzeagatik, lizitaziotik kanpo utziko du. Oro har, anormaltasun presuntzioa duten eskaintzak errefusatu dira ikuspuntu tekniko, ekonomiko edo juridikotik hipotesi edo jardunbide desegokietan oinarritzen badira.

7.5.- ESKAINTZEN EBALUAZIOA.- Kontratazio mahaiak eskaintzak ebaluatuko ditu agiri honetako M) apartatuan garrantzia eta haztaketa handienetik txikienerako hurrenkeran jasotzen diren balorazio irizpideei jarraiki. Hala, egoki deritzen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, eta egokia deritzon proposamena egingo dio kontratazio organoari. Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa denean, preziorik baxuena duena joko da eskaintza onentzat.

Balorazio irizpideen aplikazioaren ondoren bi eskaintza edo gehiago berdindurik gertatzen badira balorazio onenarekin, ezaugarrien taulako M) apartatuko irizpideak aplikatuko dira (bertan agertzen diren ordenan) berdinketa hausteko.

Irizpide horiek ezarri ez badira, esparru akordioa adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskaintza berdindurik gertatzen badira, SPKLren 147.2 artikuluan ezartzen diren irizpide sozialak hartuko dira kontuan kontratua adjudikatzeko, bertan agertzen diren ordenan eta eskaintzak aurkezteko epealdiko azken eguna erreferentzia hartuta.

III. ADJUDIKAZIOA

8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATUTAKO ENPRESA LIZITATZAILEAK EDO ENPRESA LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

8.1.- SPKLren 150. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, kontratazio mahaiak behar hurrenkeran sailkatuta igorriko dizkio kontratazio organoari aurkeztutako eskaintzak (salbu eta baztertuak izan direnak edo neurritz edo ohiz kanpokotzat jo direnak), bai eta akta eta adjudikazio proposamena ere.



8.2.- Adjudikatzeko proposatutako enpresa lizitatzailerak (edo enpresa lizitatzailerak, bat baino gehiago aukeratzea aurreikusiz gero) kontratazio organoaren aurrean eta esparru kontratua adjudikatu aurretik egiaztatu beharko du administrazio klausula berezien agiriaren 8.3. klausulan adierazitako gaitasuna eta kaudimena egiaztatzeko agiriak dituela eta horiek baliozkoak direla.

Administrazioarekin kontratatze eskatzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen diren eta kontratatze debekurik dagoenetz ikusteko une erabakigarria eskaintzak aurkezteko epearen amaierakoa izango da, eta esparru kontratua formalizatzeko unean irauan beharko dute.

Aurretik esandakoa betetzeko, zerbitzu egokiak eskaintzarik onena egin duen enpresa lizitatzailerari eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun pasatu baino lehen (edo bost, izapideak presaz eginez gero) aurkez ditzala honako hauek frogatzen dituzten agiriak, bai enpresa lizitatzailerari dagozkionak, bai gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko laguntza bila jotzen den enpresei dagozkienak: 140. artikuluko 1. apartatuko a) eta c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarrak; zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela (edo baimena eman kontratazio organoari froga agiriok zuzenean eskuratzeko); badauzkala ezaugarrien taulako J) apartatuan ezartzen denaren arabera esparru akordioa gauzatzeko behar diren balibideak. Halaber, agiri honetako 9. klausulan adierazitakoaren arabera bidezkoa den behin betiko bermea jarri izanaren froga agiriak ere eskatuko dira.

8.3.- 140. artikuluko 1. apartatuko a) eta c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarrak frogatzeko agiriak dagokienez (enpresa lizitatzailerak nahiz gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko laguntza bila jotzen den enpresenak), agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Nortasun agiri nazionala, eskabidea bere izenean edo ahaldun gisa aurkezten duenarena.

b) Pertsona juridiko diren lizitatzaileraren jarduteko gaitasuna Merkataritza Erregistroan jasotako eratzeko edo aldatzeko eskuraren bidez egiaztatuko da, baldin eta aplikagarri zaizkion merkataritza legeek hala eskatzen badute. Hala ez badira, jarduteko gaitasuna egiaztatzea haren jardunari buruzko arauak jasotzen dituzten eta, beharrezkoa bada, erregistro ofizial egokian inskribatuta dauden eratzeko eskritura edo agiriaren, estatutuen edo sortze aktaren bidez egingo da.

c) Honetarako behar besteko ahalordea, beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituztenen aldekoa. Enpresa lizitatzailerak pertsona juridikoa bada, ahalmen horrek Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du. Merkataritza Erregistroaren Arautegiaren 94.1.5. artikuluan xedaturikoaren arabera, ahalordetze hori egintza jakin baterako bada, ez du Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharrik.

d) Finantza eta ekonomia kaudimenaren eta gaitasun tekniko eta profesionalaren froga agiriak eta, behar denean, enpresa edo lanbide gaikuntzaren froga agiriak (ezaugarrien taulako F) apartatuan azaltzen dira), SPKLren 89. eta 91. artikuluetan ezartzen denaren arabera eta gutxienezko sailkapen eta kategoria talde edo azpitaldea kontuan hartuz, baldin eta esparru akordioaren xedea indarreko sailkapen talde edo azpitaldeetako batean badago (horretarako, esparruaren CPV kodea hartu behar da aintzat).

Lizitatzaileraren eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresa lizitatzailerak ez dute aurkeztu beharko b), c) eta d) letretan aipatutako dokumentazioa.



Salbuespen hori ziurtagiriaren beraren bidez egiazta daitezkeen gaitasun kaudimenaren inguruabarren egiaztagiriei baino ez dagokie.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken datan bete beharko dira eta esparru kontratua burutzeko unean iraun beharko dute.

Aldi baterako elkartea eratuta lehiatu nahi duten enpresek banaka aurkeztu behar dute aurreko apartatueta eskatzen den dokumentazioa.

Jatorrizko agiriak edo kopia kautoak aurkeztu behar dira, indarreko legeriarekin bat etorritz.

SPKLren 65.–76. eta 95. artikuluetan ezarritako ondorioetarako, kontratazio zerbitzuak eta mahaiak argibideak eskatu ahal izango dizkiote enpresari aurkeztutako ziurtagiriei eta agiriei buruz, edo beste osagarri batzuk aurkezteko errekerimendua egin. Errekerimendua egin eta bost egun balioduneko epean bete beharko du hori.

Atzerriko enpresek VI. eranskinean xedatzen dena bete behar dute.

8.4.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Lizitatzaileren zerga egoitza dagoen lurraldeko zerga administrazioak emandako ziurtagiria eta zergapeko jarduerak egin dituen lurraldeetako zerga administrazioek emandakoak, lizitatzailak bere zerga betebeharrak egunean dituela frogatzen dutenak.

Merkataritzakoak ez diren sozietateak edo nortasun juridikorik gabeko entitateak badira, ziurtagiriak sozietate, entitate edo establezimenduaren titularrari edo titularrei buruzkoak izango dira.

Arabako Foru Ogasunarekiko betebeharren ziurtagiria administrazioak eskatuko du ofizioz.

- Ekonomia jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria, edo zerga horren matrikulako alta, ekitaldi horretan hasi bada jarduera, esparru kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Halaber, zerga horretan baja eman ez zaiolako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da (eredua VII. eranskinean).
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria, lizitatzailak haren kuoten ordainketak egunean daukela frogatzen duena.

Jarduera ekonomikoen gaineko zergako matrikulan baja hartu ez izanaren erantzukizunpeko aitorpena salbuetsita, lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta dagoelako indarreko ziurtagiria daukatela egiaztatzen edo egiaztatu dutenak ziurtagiri horiek aurkeztetik salbuetsita daude indarraldi horrek iraun eta ziurtagiri egokian jasotzen diren inguruabarretan aldakuntzarik den bitartean. Puntu horiek espresuki adierazi beharko ditu enpresak, esparru akordioa formalizatzen den dokumentuan.



8.5.- 8.2 puntuak aipatzen duen errekerimendua adierazitako epean betetzen ez bada, enpresa lizitatuak bere eskaintza kendu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZ gabe, zehapen gisa, eta dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo enpresa lizitatuari, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

9.1.- Behin betiko bermea esparru akordioan oinarritutako kontratu bakoitzaren adjudikaziodun bezala proposatutako enpresari bakarrik eskatuko zaio, agiri hauetako 14.4. apartatuan ezarritako prozeduraren arabera, baldin eta haren salbuespena bidezkotuta ez badago, bereziki prezioa ordaindu baino lehenago entregatu eta hartu behar diren ondasun kontsumigarrien hornidurretan.

10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA

10.1.- Kontratazio organoak, adjudikaziodun bezala proposatu den enpresa lizitatuak aurkeztutako dokumentazioa jaso ondoko bost egun baldinuetan (hiru, presaz izapidetzekotan) adjudikatu beharko du esparru akordioa.

10.2.- Esparru akordioaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa bada, eskaintzak irekitzeko epealdia amaitu eta hurrengo egunetik hamabost egun pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (presaz izapidetzekotan, zortzi egun pasatu baino lehen).

Esparru akordioa adjudikatzeo hainbat irizpide hartu behar badira kontuan, edo aplikatzen den irizpide bakarra bizi zikloaren kostua ahalik eta txikiena izatea bada, eskaintzak irekitzen direnetik bi hilabete pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (presaz izapidetzekotan, hilabete pasatu baino lehen), ezaugarrien taulako P) apartatuan besterik ezarri ezean.

Proposamena gutun azal batean baino gehiagotan balego, halako moldez non ekitaldi bereiztan zabaldu behar diren, epe hori C gutun azala irekitzeko ekitalditik zenbatuko da.

10.3.- Administrazioak bi aukera izango ditu: esparru akordioa eskaintzarik onena egin duenari adjudikatzea, adjudikazio irizpideak aplikatuta; eta kontratua adjudikatu gabe uztea, agerietan ezarritako irizpideen arabera onar daitekeen eskaintzarik ez badago

Hala ere, SPKLren 152. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, administrazioak, esparru akordioa formalizatu baino lehen, uko egin ahal izango dio adjudikatzeari herritarren interesak direla eta, edo bertan behera utzi ahal izango du izapidetutako prozedura, konponezineko akatsik gertatu bada. Batera zein bestera, enpresa lizitatuak konpentsazioa eman beharko die ezaugarrien taulako Q) apartatuan ezartzen den bezala.

10.4.- Adjudikazioa arrazoitua izan beharko da, bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie enpresa hautagai edo lizitatuak eta, aldi berean, kontratatuak profileen argitaratuko da hamabost eguneko epean.

Jakinarazpenean adjudikazio prozeduran izan diren interesdunek adjudikazio erabakiaren kontra ondo oinarritutako errekurtsioa aurkeztu ahal izateko behar den informazio guztia eman beharko da. Bereziki, honako datu hauek adierazi beharko dira:



- a) Baztertu diren enpresa hautagaiak direla eta, bazter uzteko kontuan hartu diren arrazioen laburpena.
- b) Adjudikazio prozeduratik kanpo utzitako enpresa lizitatzailerari dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, laburtuta, eta enpresa lizitatzaileraren balorazioen banakapena (adjudikaziodunarena barne).
- c) Kasu guztietan, enpresa adjudikaziodunaren izena, beraren eskaintzaren ezaugarriak eta onartutako gainerako eskaintza guztiak gaindituta kontratua berari adjudikatzea eragin duten onurak.

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, SPKLren 153.3 artikulua arabera adjudikazioa zer epean formalizatu behar den zehaztu beharko da.

10.5.- Aurkezten diren eskaintzak (bai onartzen direnak, bai ireki gabe baztertzen direnak, bai ireki ondoren ezesten direnak) lizitazioaren espedientearen artxibatuko dira. Esparru akordioa adjudikatu ondoren, errekursoak aurkezteko epealdian bat ere aurkezten ez bada, eskaintzarekin aurkeztutako agiriak interesdunen eskura geratuko dira.

Enpresa lizitatzailerak urtebeteko epean eskatzen ez badute, dokumentazio hori deuseztatu ahal izango da.

IV. ESPARRU AKORDIOA FORMALIZATzea

11.- ESPARRU AKORDIOA FORMALIZATU AURREKO EGINBEHARRAK

11.1.- Behin betiko adjudikazioaren jakinarazpenaren hartu agiria jaso ondoren, enpresa adjudikaziodunak esparru akordioa formalizatu aurretik ezaugarrien taulako R) apartatuan aipatzen diren aseguru kontratuen polizaren kopia eta kontratazio primen ordainagiria aurkeztu beharko ditu. Enpresak aseguru horiek kontratatu eta bere kargura mantendu behar ditu esparru akordioaren indarraldian eta bermealdian.

Aseguruen mugak administrazioak zehaztuko ditu kontratuaren xedearen ezaugarriak kontuan hartuta.

11.2.- Esparru akordioa indarrean den bitartean kontratazio organoak enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio erakuts diezaiola aseguruaren dokumentazioa edo, bestela, eman diezakiola aseguru horien polizen kopiak edo ziurtagiriak, eta froga diezaiola primen ordainketak egunean dauzkala. Adjudikaziodunak eskakizun hori bete beharko du eta, hala egiten ez badu, kontratazio organoak ziurtapenen eta/edo fakturen ordainketa eten ahal izango ditu, bai eta, obrak jasota badaude, bermealdiaren konputuaren hasiera ere. Etenaldi hau ez da konputatuko kalte ordainen ondorioetarako. Gainera, eskaera ez betetzeak erantzukizunak sor ditzake.

12.- ESPARRU AKORDIOA FORMALIZATzea

12.1.- Administrazioak egiten dituen esparru akordioak lizitazioaren baldintzak zehazki betetzen dituen agiri administratibo batean formalizatu beharko dira. Esparru akordioa aldi baterako enpresa elkarte bati adjudikatzen bazaio, enpresek eskritura publiko bidez egiaztatuko beharko dute enpresa elkarte hori eratu dela, ondoko 12.2 eta 12.3 apartatueta xedatutako



epearen barruan. Elkarre horren iraunaldia bat etorriko da esparru akordioaren iraupenarekin. Horrez gainera, aldi baterako enpresa elkarteari esleitutako IFZ ere aurkeztu beharko du.

12.2.- Esparru akordioaren kontra kontratazio alorreko errekurtsio berezia jarri ahal bada, ezingo da formalizatu enpresa lizitatzaleei jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igarota ez bada aurkeztu esparru akordioaren formalizazioa etetea berekin dakarren errekurtsorik, kontratazio organoak enpresa adjudikaziodunari eskatuko dio esparru akordioa gehienez ere bost eguneko epean (hiru eguneko epean, presaz izapidetzekotan) formaliza dezala, eskaera hori jaso duen egunetik aurrera. Berdin-berdin jokatu du errekurtsioa ebazteko organo eskudunak etendura kentzea erabakitzen duenean.

12.3.- Gainerako kasuetan, enpresa lizitatzaleei adjudikazioa jakinarazten zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen formalizatu beharko da esparru akordioa (izapideak presaz eginez gero, zortzi egun baliodun pasatu baino lehen).

12.4.- SPKLren 71. artikuluko 2. apartatuko b) letran xedatutakoa eragotzi gabe, esparru akordioa adierazitako epearen barruan ez bada formalizatu enpresa adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, administrazioak lizitazioko oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3 exijituko dio, BEZa aparte, zigor moduan. Horren ordainketa, lehenengo eta behin, behin betiko bermearen kontura egingo da, hura jarri baldin bada.

Kasu horretan, gainera, esparru akordioa hurrengo enpresa lizitatzaleari adjudikatuko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraituz, eta agiri honetako 8. klausulan ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta aurreko apartatuetan ezarritako epeak aplikatuko dira.

12.5.- Kontratu ez formalizatzea administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik gertatu bada, berandutzeak eragin dizkion kalte-ordainak ordainduko zaizkio enpresa kontratistari.

12.6.- Esparru akordioa ezin izango da gauzatu ez bada aurretik formalizatu. Salbuespen izango dira premiaz izapidetu beharreko espedienteetarako aurreikusitako kasuak.

V. ESPARRU AKORDIOA GAUZATZEA

13.- ARAU OROKORRAK

13.1- Esparru akordioa adjudikatzeak berekin dakar prozedurako entitate adjudikazioduna(k) hornitzaile aukeratu izendatzea, eta akordioa indarrean dagoen aldian, atxikitako organismoak hari loturik daude eta, horrengatik, bereganatu egiten dute esparru akordioaren gaia diren eta ezaugarrien taulan azaltzen diren horniduretako bat ere aukeratu gabeko inongo entitate hornitzaileekin ez kontratatzeke eginbarra.

13.2- Entitatea hornitzaile aukeratu izendatzeak ez dakar aipatutako ondasunen hornitzaile bihurtzerik berez eta besterik gabe.



Hornitzaile izaera hori ez da lortuko atxikitako organismoek beren beharrian espezifikoen arabera izapidetzen dituzten kontratu oinarritu egokien adjudikaziodun gertatu ondoren baino. Organismo horiek esparru akordioan parte hartzeak ez die sortuko haren xede diren horniduren gutxieneko kopuru bat kontratatzeke egin beharrik batere.

13.3.- Entitatea hornitzaile aukeratu izendatzeak berekin dakar atxikitako organismoek hornitzaile aukeratuen artean kontratu oinarrituak adjudikatzeke eragiten dituzten prozedura guztietan eskaintza egiteko egin beharra.

Egin behar hori funtsezkoa izango da agiri hauetako 15.14 apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako.

14.- ESPARRU AKORDIOAN OINARRITUTAKO KONTRATUEN ADJUDIKAZIOA

Esparru akordioaren garapena gauzatzen duten ondoko ondoko kontratu oinarrituak adjudikatzeke prozedura ondoko baldintza hauek arautuko dute.

14.1.- AUKERATUTAKO ENTITATE HORNITZAILEEI KONTSULTAK.

14.1.1.- Esparru akordioa aukeratutako hornitzaile bakar batekin egin denean, akordio hartan ezarritako baldintzen arabera adjudikatuko dira oinarritutako kontratuak. Kontratazio organoek idatziz egin ahal diote kontsulta aukeratutako enpresari. Beharrezkoa bada, eskaintza osatzeko eskatu ahal izango diote.

14.1.2.- Esparru akordioa aukeratutako enpresa hornitzaile bat baino gehiagorekin egin bada eta baldintza guztiak hartan ezarrita badaude, oinarritutako kontratuen adjudikazioa baldintza horiei jarraituz egingo da, aldeak beste lizitazio batera deitu beharrik gabe.

14.1.3.- Baldintza guztiak ez badaude ezarrita esparru akordioan, kontratu oinarrituen adjudikazioa aldeak beste lizitazio batera deituta egingo da. Lizitazio horretan, oinarri hartuko dira esparru akordioan finkatutako baldintzak, era zehatzagoan formulatuz, beharrezkoa bada, eta, hala badagokio, esparru akordioaren zehaztapenetan adierazten diren beste batzuk.

Kontratu zehatz bakoitzeko, dagokion kontratazio organoak eskaintza aurkezteko eskaera bidaliko die esparru akordioan hornitzaile aukeratu izendatu diren entitateei. Eskaera fax bidez, posta elektronikoz edo ohiko postaz bidali ahal izango da, eta haren ezaugarri espezifikoak jasoko dira hartan.

14.2.- ESKAINTZAK AURKEZTEA.

Prozedura bakoitzean parte hartzen duten entitateek, atxikitako organismo bakoitzak erabakitzen duen erregistroan aurkeztu beharko dituzte eskaintzak, eskaeran adierazitako epean. Eskaintzetan, hurrengo apartatuan ezartzen diren irizpideen arabera haiek baloratu ahal izateko behar diren elementu guztiak jaso beharko dira, baita ere beren zerga egin beharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen egunean daudela egiaztatzen duten agiriak.

Aukeratutako hornitzaileek ezingo dute aurkeztu eskaintzarik kontratu oinarrituetarako, haietan jasotzen diren prezio, baldintza edo prestazioak administrazioarentzat txarragoak badira haiek esparru akordioan hornitzaile aukeratu izendatzea eragin zuen eskaintzakoak baino.

14.3.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK.



Kontratu oinarrituak, eskaintzarik onena aurkeztu duen hornitzaile aukeratuari adjudikatuko zaizkio, kontratu oinarrituetarako ezaugarrien taulako M) apartatuan zehaztutako irizpideen arabera baloratuta.

14.4.- BEHIN BETIKO BERMEA.

14.4.1.- Kontratu oinarrituaren adjudikazioduna izateko proposatutako enpresak kontratazio organoaren esku berme bat jarri beharko du, gutxienez kontratu oinarrituaren azkeneko prezio eskainiaren ehuneko 5 egiten duena, balio erantsiaren gaineko zerga kontatu gabe.

Kontratu oinarrituaren zenbatekoa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada, eratu beharreko bermearen zenbatekoa haren gehieneko aurrekontuaren arabera finkatuko da, balio erantsiaren gaineko zerga kontatu gabe.

Behin-behineko prezioak dituzten kontratuak izanez gero, ehuneko haiaerako finkatutako gehieneko prezioa erreferetzia hartuz kalkulatu da, balio erantsiaren gaineko zerga kontatu gabe.

SPKLren 107.1 artikuluan arautzen diren kasu berezietan, behin betiko bermea jartzeko beharretik salbuetsi ahal izango da, ezaugarrien taulako O) apartatuan hala ezartzen bada.

SPKLren 107.2 artikuluan arautzen diren kasu berezietan, berme osagarria eskatu ahal izango da, ezaugarrien taulako O) apartatuan hala ezartzen bada.

14.4.2.- Atxikitako organismo bakoitzak errekerimendua egingo dio kontratu oinarrituaren adjudikazio moduan proposatutako enpresari, bidezkoa den behin betiko bermea jarri dela frogatzen duten agiriak aurkez ditzan, hamar egun baliodun (bost, presaz izapidetzekotan) igaro baino lehen, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Proposatutako enpresari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, atxikitako organismoak ez dio hari emango adjudikazioa, eta SPKLren 150.2 artikuluko azken paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

14.4.3.- Bermea eratzeko SPKLren 108. artikuluan ezartzen diren bideak erabil daitezke, HAKLAOko 55. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzak beteta. Onetsitako ereduak VIII., IX., X. eta XI. eranskinetan daude.

Behin betiko bermearekin SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo zaie.

Bermeak itzultzea eta ezeztatzea, SPKLren 111. artikuluan eta HAKLAOren 65. artikuluan xedatutakoa betez egingo du atxikitako organismo bakoitzak.

14.5.- KONTRATU OINARRITUEN ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA.

Kontratazio organo eskudunak adjudikazio irizpideen arabera kalitate/prezio erlaziorik onena duen eskaintzari adjudikatu beharko dio kontratu oinarritua.

Adjudikazioa arrazoitua izan behar da, hautagai edo lizitatzaleei jakinaraziko zaie eta, kontratazio organoak hala erabakiz gero, argitara emango da kontratatzailearen profilean.



Jakinarazpenean, behar den informazio guztia jasoko da, horretan oinarrituta kanpoan utzitako enpresa lizitatuak edo baztertutako hautagaiak adjudikazio erabakiaren aurka errekurtsioa jarri ahal izateko. Bereziki, adjudikaziodunaren izena eta beraren eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak, gainerako entitate lizitatuak aurkeztu dituzten eta onartuak izan diren eskaintzen aurretik beraren eskaintza aukeratzea eragin dutenak.

14.6.- ADJUDIKAZIOA, KONTRATU OINARRITUA EZ BADU GAINDITZEN MUGA EKONOMIKO JAKIN BAT (AFA-REN KONTRATU OINARRITUEI BAKARRIK APLIKATZEKO ZAIE KLAUSULA HAU)

Banakako zerbitzu prestazio bakoitzerako hartutako eskaintzek ez badute gainditzen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 19ko 27/2018 Foru Dekretuaren bidez ezarritako muga (dekretu horren bidez, prozedura onesten da administrazio kontratazio txikitako gastuak baimentzeko eta xedatzeko eta eginbeharrak onartzeko, eta Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 6ko 33/2020 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen), aurreko 14.4 eta 14.5 apartatuak ez zaizkie aplikatuko esparru akordioaren indarrez egindako adjudikazioei, eta adjudikazio prozedurak aipatu den foru xedapenean ezarritakoari jarraituko dio.

15.- KONTRATU OINARRITUAU GAUZATZEA

15.1.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. Itundutako prestazioa behar bezala betetzen den egiaztatzeko, koordinatzeko eta zaintzeko ardura zuzena izango du esparru akordioan oinarritutako kontratu oinarritu bakoitzeko zuzendaritzak, eta titulu egokia eta nahikoa izan beharko du.

Zuzendari fakultatiboak hainbat laguntzaile eduki ditzake agindupean bere lanak egiteko. Laguntzaileak beren titulu profesionalaren edo ezagutza berezien arabera arituko dira eta horniduraren zuzendaritzako kide izango dira.

Kontratu oinarritua adjudikatzen denetik hamabost egun natural pasatu baino lehen, atxikitako organismoak kontratazio organoak izendatutako zuzendaritzaren berri emango dio kontratistari, eta zuzendaritza horrek gauza bera egingo du bere laguntzaileei dagokienez. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio enpresa kontratistari.

15.2.- KONTRATU OINARRITUAU GAUZATZEKO ARAU OROKORRAK

15.2.1.- Entregatzeko epea eta tokia. Hornidura egiteko edo entregatzeko epe osoa, edo kontratuaren iraunaldia, kontratu oinarrituaren lizitazioan parte hartzeko gonbidapenean ezarriko da.

Ezaugarrien taulako 5) apartatuan edo parte hartzeko gonbidapenean hala ezarrita badago, kontratu oinarritua behin edo gehiagotan luzatu ahal izango da; luzapenak kontratazio organoak erabakiko ditu eta nahitaezkoak izango dira enpresarentzat.

Izapidetzea presako deklaratu baldin bada, kontratu oinarritua gauzatzen hasteko epea ezingo da izan hilabete baino luzeagoa, formalizatzen den egunetik aurrera. Epe hori gaindituz gero, kontratu oinarritua suntsiarazi ahal izango da, atzerapena atxikitako organismo kontratugileari eta enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik gertatu eta dagokion ebazpen arrazoituan hala jaso ezean.

Atxikitako organismo bakoitzak adierazten dituen zentroetan egingo da entrega, funtzionamendu egoera on-onean, baldintza teknikoaren agirian ezartzen den moduan. Garraio, instalatze eta entrega gastuak enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira.



Hornidura mota edozein dela ere, enpresa adjudikaziodunak ez du kalte ordaina jasotzeko eskubiderik izango atxikitako organismo bakoitzari entregatu baino lehen ondasunek jasaten dituzten galera, matxura edo kalteengatik, organismoa haiek jasotzean berandutu ezean.

15.2.2.- Horniduren egiaztapenak. SPKLren 303. artikuluan aurreikusitako ahalmenak dituzte atxikitako organismoek. Bereziki, beretzat gordetzen dute ondasunen kalitateaz egokitzen jotzen dituzten egiaztapen guztiak egiteko eskubidea, haiek egiten ardi diren bitartean. Horren ondorioetarako, atxikitako organismoko pertsona batek, horretarako ahalguztaria, lehengaiak kontrolatu ahal izango ditu in situ, fabrikazio prozesuko edozein unetan eta aurretik abisatu gabe, enpresak eskaintako materialarekin bat datozen egiaztatzeke. Hala badagokio, desadostasun akta egingo du, eta horrek kontratu oinarritua eta esparru akordioa suntsitzea ekar lezake.

15.3.- EZINBESTEKO KASUAK. Ezinbesteko kasuetan, enpresa kontratistak kalte ordaina jaso ahal izango du jasandako kalte eta galerengatik, baldin eta hark zuhurtziaz gabe jardun ez badu.

Ezinbesteko kasuak SPKLren 239. artikuluan arautzen dira. Kasu horiek HAKLAOren 146. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz izapidetuko dira.

15.4.- ZEHAPENAK KONTRATUAREN XEDEA GAIZKI EGITEAGATIK, ZATI BAT EZ BETETZEAGATIK ETA ATZERAPENAGATIK. Kontratu oinarrituaren xedea gaitzak betetzen bada, esparru akordioa gauzatzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak ez badira betetzen, edo enpresa kontratistak esparru akordioan zehazten diren prestazioen zati baten gauzatzeko ez badu betetzen berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, zehapenak jarri ahal izango dira, ezaugarrien taulako U) apartatuan hala jasota badago.

Enpresa adjudikaziodunak bete beharko ditu kontratu oinarritua gauzatzeko epea eta atxikitako organismoak ezarritako zatikako epeak.

Epe horietako edozein amaituta, enpresa kontratista berandututa badago berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, atxikitako organismoak aukeratu ahal izango du kontratu oinarritua suntsiaraztea ala zehapen ekonomikoak ezartzea. Zehapenen zenbatekoak ezaugarrien taulako U) apartatuan ezarrita daude.

Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik gertatzen bada, SPKLren 195.2 artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Nolanahi ere, enpresa kontratistaren berandutzea ezartzeko ez da beharrezkoa izango atxikitako organismoek aurretik interpelatzea ez hertsatzea.

15.5.- KALTE ETA GALERAK. Kontratuaren zati bat bete ez, kontratua akatsekin bete edo haren gauzatzeko atzerapena gertatzen bada eta, hala ere, zehapenik ezarri behar ez bada edo, horregatik ezarri beharrezko zehapenak ez baditu estaltzen atxikitako organismoen egindako kalteak, horiek kalte ordaina eskatuko diote enpresa kontratistari, SPKLren 194. artikuluan ezarritakoaren arabera.

15.6.- ORDAINKETAK ENPRESA KONTRATISTARI. Enpresa kontratistak eskubidea izango du egiaz entregatu diren eta atxikitako organismo bakoitzak formalki hartu dituen hornidurak kobratzeko, esparru akordioan edo kontratu oinarrituan eta haien aldaketetan (halakorik egonez gero) ezarritako baldintzen arabera, eta itundutako prezioetan. Kontratu oinarritu bakoitzaren xedea den prestazioaren prezioa, doakien organismo atxikiek ordainduko dute, ezaugarrien taulako V) apartatuan ezarritako moduan.



Kontratu oinarritua hainbat ondasun-emateren bidez gauzatzen bada, zatikako ordainketak egin ahal izango dira, baldin eta hornidurak ezarrita dauden epeen barruan entregatzen badira, eta SPKLren 300. eta 301. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Abenduaren 30eko 67/2014 Foru Dekretuan, zeinaren bidez foru administrazioko fakturen kontabilitate erregistroa sortu eta horren tramitaziorako prozedura onesten baita, xedatutakoa betetzeko, enpresa kontratistak formatu elektronikoan aurkeztu beharko ditu fakturak horretarako ezarritako prozedurari jarraituz, atxikitako organismoa AFA baldin bada.

Emandako ondasunekiko adostasuna frogatzen duten agirien onespren egunetik hogeita hamar egun igaro baino lehen ordaindu beharko dute prezioa atxikitako organismoek, ezertan eragotzi gabe SPKLren 210. artikuluko 4. letran ezarritakoa. Ordainketa atzeratzen bada, epealdia amaitu ondoko berandutze interesak ordaindu beharko dizkiote enpresa kontratistari, bai eta kobrantza kostuen kalte ordaina eman ere, eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak xedatzen duenarekin bat etorriz, SPKLren 198.4 artikuluan xedatzen denaren arabera.

Ezaugarrien taulako W) apartatuan hala ezarritako gero, enpresa kontratistak aldeztu aurretik eskatuta, kontratutako ordainketak egin ahal izango dira kontratu oinarrituaren gauzatzea prestatzeko eragiketen zenbatekoaz, haren xedearen barruan badaude, eta SPKLren 198.3 artikuluan xedatzen denaren arabera.

15.7.- KONTRATISTAREN EGINBEHAR ESPEZIFIKOAK ETA GASTU GALDAGARRIAK. Esparru akordio honen araubide juridikoaren ondoriozko betebeharrak orokorrean gainera, ondoko betebeharrak espezifikoki hauek ere izango ditu kontratistak:

a) INGURUMEN, GIZARTE ETA LAN ARLOETAN. Enpresa kontratistak bete behar ditu ingurumen, gizarte eta lan arloetan Europar Batasuneko zuzenbidean, estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo nazioarteko ingurumen, gizarte eta lan zuzenbideko xedapenetan, estatua lotzen dutenetan, ezarrita eta indarrean dauden xedapenak, eta bereziki SPKLren V. eranskinean ezarritakoak.

Bereziki:

1. Egin beharreko prestazioak lan ordenantzari edo hitzarmen kolektiboari lotuta daudenean, dagokion lan ordenantzaren eta hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete beharko ditu.

2. Enpresa kontratistak berdintasun kontuan dituen eginbeharrei dagokienez, ondoko honi jarraituko zaio, plantilla bolumenaren arabera:

a) 250 langile baino gehiago dituzten enpresetan, kontratatutako jarduera hasi baino lehenago egiaztatu beharko da barneko berdintasun plana dagoela, berdintasun planak eta haien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera. Halaber, enpresaren zuzendaritzaren eta langileen legezko ordezkari organoaren ardura da egiaztatzea hura betetzen dela eta plan haren barruan dauden neurriak benetan ezarri direla.

b) 250 langile baino gutxiago dituzten enpresetan, entitate adjudikaziodunak berdintasuna bermatuko duten neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan, kontratua gauzatzeari lotutako langileekiko: lanpostua eskuratzea; sailkapen pertsonala; sustapena; iraupena; prestakuntza; ordainketak; kalitatea eta lan



egonkortasuna; jardunaldiaren iraupena eta antolaketa; eta bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurriak, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari buruzkoak, dioenari jarraikiz.

Halaber, kontratuaren gauzatzearen ondorioz sortzen dituen agiri, publizitate, irudi eta material guztietan hizkuntza ez-sexista erabili beharko du, emakumeak diskriminatzen dituzten irudiak eta estereotipo sexistak ekidinen dituzte eta berdintasun, oreka, aniztasun eta erantzunkidetasun balioak sustatuko dituzte, bai eta rol ugartasuna eta genero berdintasuna ere.

Baita ere, konpromisoa hartuko du sexu jazarpenik eta sexuagatiko jazarpenik gabeko lan ingurune bat ezartzeko, eta egiaztatu beharko du protokolo bat daukala sexu jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko.

3. Enpresak laneko arriskuen prebentziorako egokiak, nahitaezkoak edo beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar ditu. Halaber, indarreko araudian laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako eginbeharrak beteko ditu eta kontratatutako jarduera hasi aurretik eginbehar hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:

- Kontratatutako jarduerari dagokion prebentzio jardueraren arriskuak ebaluatzea eta haren plangintza egitea.
- Prebentzioari buruzko trebakuntza eta informazioa ematea esparru akordioa gauzatzean lanean edukiko dituen langileei.
- Haren kasuan beharrezkoak diren banakako babes ekipamenduak eman izanaren egiaztatzea.

4. Enpresak lanetako batzuk azpikontratatzeko baditu, azpikontratei aurreko eginbeharren ziurtagiriak eskatu eta atxikitako organismo kontratatzaileari aurkeztu beharko dizkio. Gainera, segurtasun eta osasun koordinatzaileei jakinarazi beharko dizkie azpikontratazioak, lanei ekin aurretik.

5. Langileei lanak egitean edozein motatako istripu edo kalterik gertatuz gero, indarrean dauden arauetan xedatutakoa beteko du enpresak, bere erantzukizunaren pean, eta erantzukizun hori ez da inoiz ere hedatuko atxikitako organismo kontratazaileetara.

6. Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negozio kolektiboko akordio batek agintzen duela eta ezaugarrien taulako X) apartatuan hala ezarrituz gero, enpresa adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatu beharko da laneko harremanetan eraginpeko langileei dagokienez. SPKLren 130. artikuluan xedatutakoa betetz, subrogazioak eragindako langileen esparru akordioetako baldintzei buruzko informazioa jasoko da baldintza teknikoaren agirian.

c) GAUZATZEKO EGIN BEHARREKO GASTUAK. Enpresa kontratistaren kontura ordainduko dira lizentziak, agiriak edo erakunde ofizialen edo partikularren informazio oro lortzeko behar diren gastuak. Halaber, indarrean diren xedapenen aplikazioak dakartzan zerga, sari, tasa, konpentsazio eta gainerako gastu edo kargak ere, xedapen horiek berek zehaztutako moduan eta zenbakekoan.



Enpresa adjudikaziodunaren ardura da prestazioa egiteko behar diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratzea, hala ofizialak nola partikularrak.

c) HIZKUNTZA IRIZPIDEAK. Esparru akordioaren adjudikazioa duen enpresak eta litezkeen enpresa azpikontrastek egiaztatu beharko dute kontratu oinarrituak gauzatzean bi hizkuntza koofizialak (euskara eta gaztelania) erabiltzen direla, eta jarduera elebitasunarekin eta herritarren hizkuntza eskubideen errespetuarekin lotuta egon beharko da, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko xedapenekin, Euskararen Normalizaziorako 10/1982 Legearekin, Euskadiko Administrazio Publikoaren Normalizazio Prozesuak arautzen dituen 86/1997 Dekretuarekin eta Arabako Foru Aldundiko 2013-2017 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planarekin.

15.8.- GAUZATZE BALDINTZA BEREZIAK. Adjudikazioa duen enpresa kontratistak erantzuna eman beharko die atxikitako organismo bakoitzak Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren gardentasunerako, herritarren parte hartzerako eta gobernu onerako otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren III. kapituluko eginbeharrak betetzeko egiten dituen informazio eskakizunei, eta kontratu oinarritua gauzatzean aplikatu beharko ditu esparru akordioaren xedearekin lotutako izaera sozialeko eta ingurumeneko baldintzak eta bestelako baldintza bereziak (horiek guztiak ezaugarrien taulako X) apartatuan zehazten dira).

15.9.- KONTRATU OINARRITUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA. Kontratuaren lagapenean SPKLren 214. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Enpresa adjudikaziodunak kontratu oinarrituaren zati bat hirugarren batzuekin azpikontratatzeari dagokionez, SPKLren 215. artikuluan ezarritako betekizunen pean egongo da, eta enpresa azpikontrastek eta hornitzaileei egiten zaizkien ordainketak SPKLren 216. artikuluan xedatzen denarekin bat etorri egin beharko dira.

Azpikontratazioaren gehieneko ehuneko ezaugarrien taulako Y) apartatuan zehaztuta egongo da; bertan ezarri gero, enpresa lizitatzaleek eskaintzan honako datu hauek eman beharko dituzte: esparru akordioaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duten, azpikontratazioaren zenbatekoa, eta lanak gauzatzeko aginduko zaien enpresa azpikontrastek izenak edo profilak, gaitasun profesional edo teknikoko baldintzen arabera zehaztuta.

Enpresa kontratistak EKDBn gai honi buruz jasoarazitakoaz gainera, betiere jakinarazi beharko dio kontratazio organoari, idatziz, kontratua adjudikatu ondoren, eta beranduenez ere kontratua gauzatzen hasten denerako, azpikontratuak egiteko asmoa duela, adierazi beharko du prestazioaren zein zati nahi duen azpikontratatu, zer enpresa azpikontratatu duen, nor den enpresa azpikontrastaren legezko ordezkaria (edo ordezkariak), eta harremanetarako datuak eman beharko ditu. Baita ere, frogatu beharko du enpresak behar besteko gaitasuna duela lanak egiteko, elementu tekniko eta giza baliabideei eta esperientziari dagokionez, eta egiaztatu beharko du berak ez duela kontratatzeke debekurik, eta informazio hori kontratu nagusia gauzatzean aldatzen bada, horren berri eman beharko du, bai eta enpresa azpikontrata berriei buruzko beharrezko informazio guztia ere.

15.10.- ESPARRU AKORDIOA ETA KONTRATU OINARRITUAK ALDATZEA. SPKLren 301. artikuluan jasotako salbuespenarekin, esparru akordio hau eta bertan oinarritutako kontratuak ezingo dira aldatu interes publikoko arrazoiengatik baino, ezaugarrien taulako Z) apartatuan edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan, eta SPKLren 207. artikuluan araututako prozedurari jarraituz.



Kasu horietan, kontratazio organoak erabakitzen dituen aldaketak nahitaezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat, 205. artikuluan jasotako aldaketa kasuetan izan ezik. Holakoetan, ez dira nahitaezkoak izango haren zenbatekoan (banaka nahiz batera) sortzen duten aldaketa handiagoa bada esparru akordioaren edo kontratu oinarrituaren hasierako prezioaren ehuneko 20 baino (BEZ gabe).

15.11.- KONTRATU OINARRITUA ETETEA. Gai honetaz, SPKLren 208. artikuluan eta HAKLAOren 103. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Kontratu osoa edo haren zati bat aldi baterako edo behin betiko eteten baldin bada, etete akta egingo da eta bertan honako datuak jaso beharko dira: atxikitako organismoak kontratua eteteko hartutako erabakia, etetea eragin duten inguruabarrak, kontratu oinarrituaren gauzatzea dagoen egitatezko egoera, eta eteteak ukitzen dituen hornidura zatia edo zatiak, edo osotasuna.

Etetea erabaki ondoren, atxikitako organismoak enpresa kontratistari ordainduko dizkio horrek benetan jasan dituen kalte eta galerak, SPKLren 208.2 artikuluan adierazitako erregelen arabera.

15.12.- KONTRATU OINARRITUAREN HARRERA ETA LIKIDAZIOA. SPKLren 210. eta 300. artikuluetan xedatzen denarekin bat etorritz egingo da harrera.

15.12.1.- Kontratu oinarritua enpresa kontratistak betetakotzat emango da azken honek prestazio osoa burutu duenean, hartan ezarritakoaren arabera eta doakion organismo atxikiaren gogobetetasunez.

Hala jasota gera dadin, atxikitako organismoak harrera edo adostasun egintza formal eta positibo bat egin beharko du kontratu oinarrituaren xedea entregatu edo burutu eta hurrengo hilabetearen barruan, edo ezaugarrien taulako AA) apartatuan zehazten den epean.

Eragindako kontratazio organoak erabakiko du enpresa kontratistak egindako prestazioak betetzen dituen gauzatzeko eta betetzeko ezarritako baldintzak, eta horretarako SPKLren 190. eta 191. artikuluetan xedatutako eskumenak izango ditu.

Ondasunak ez badaude harrera egiteko moduan, hala jasoko da harrera aktan, eta enpresa kontratistari jarraibide zehatzak emango zaizkio aurkitutako akatsak konpon ditzan edo beste hornidura bat egin dezan itundutakoaren arabera.

15.12.2.- Harrera aktaren datatik hogeita hamar egun igaro baino lehen, kontratu oinarrituaren likidazioa erabaki eta enpresa kontratistari jakinarazi beharko zaio, bidezkoa bada, eta likidazio horren ondoriozko saldoa ordaindu beharko zaio.

15.13.- BERME EPEA. Harrera aktaren datatik aurrera, kontaktzen hasiko da ezaugarrien taulako AB) apartatuan ezartzen den berme epea. Epe hori igarota, atxikitako organismoak ez badu jarri eragozpenik, enpresa kontratistaren erantzukizuna azkenduko da (ezkutuko akatsengatik erantzukizuna izan ezik), eta ondoren bermea itzuli edo ezeztatuko da eta, bidezkoa bada, ordaindu gabeko kopuruak ordainduko dira.

Berme epearen barruan egiaztatzen bada emandako ondasunetan hutsak edo akatsak daudela, atxikitako organismoak eskubidea izango du enpresa kontratistari ondasun ezegokiak ordezteko edo, nahikoa baldin bada, konpontzea erreklamatzeko.



Atxikitako organismoak, bermealdian, erabakitzen badu ondasunak ez direla egokiak kontratuaren xedea betetzeko enpresari egotzi ahal zaizkion akatsengatik, SPKLren 110 e) eta 305. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

Berme epea igarota, atxikitako organismoak ez badu jarri SPKLren 305. artikuluko 1. eta 3. apartatueta aipatzen den eragozpenik edo akatsen salaketarik, enpresa kontratista emandako hornidurengatik erantzukizunetik libre geratuko da, eta bermea itzuliko da.

Kontratu oinarritua amaitzen denetik urtebete igarota, eta berme epea pasatuta, harrera formala eta likidazioa egin ez badira enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkion kausengatik, itzuli edo ezeztatuko da bermea, luzapen gehiagorik gabe, SPKLren 110. artikuluen arabera bermeak loturik dauden erantzukizunei aurre egin zaiela egiaztatu ondoren.

15.14.- ESPARRU AKORDIOA EDO KONTRATU OINARRITUA SUNTSIARAZTEA. Esparru akordioa edo kontratu oinarritua SPKLren 211. eta 306. artikuluetan adierazten diren kasuetan suntsiaraziko da. Suntsiaraztea eragindako kontratazio organoak erabakiko du, ofizioz nahiz enpresa kontratistak eskatuta, hari entzunaldia bermatuko zaion prozedura baten bidez, eta SPKLren 212., 213. eta 307. artikuluetan ezarritako ondorioak sortuko ditu.

Ezaugarrien taulako U) apartatuan kontratua ez betetzeagatik berariazko zehapenak ezarri ezean, ezaugarrien taulako X) apartatuan zehazten diren gauzatze baldintza bereziak esparru akordioaren eta kontratu oinarritu bakoitzaren funtsezko eginbeharrak izango dira, kontratua suntsiarazteko arrazoiei buruz SPKLren 211.f) artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako.

Era berean, ondorio horietarako, esparru akordioko eta kontratu oinarritu bakoitzeko funtsezko eginberrak izango da ezaugarrien taulako J) apartatuan eskatutako konpromisoa, nahiko giza baliabide edo baliabide material atxikitzea.

Esparru akordioa edo kontratu oinarritua enpresa adjudikaziodunaren erruz suntsiarazten bada, behin betiko bermea bahitu egingo zaio. Gainera, hala badagokio, kalte ordaina eman beharko du doakion organismo atxikiari egindako kalte eta galerengatik, bahitutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten neurrian.

15.15.- KONFIDENTZIALTASUNA. Agiri honen xedea den prestazioa gauzatzeko beharrezkoa bada atxikitako organismoen titulartasuneko fitxategietako datu pertsonalak erabiltzea, entitate adjudikaziodunak datu horien tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, kontuan harturik Datuen Babesari buruzko Europar Batasunaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoa. Hirugarrenek datu pertsonalak nola tratatu behar dituzten konfidentzialtasunari buruzko klausuletan arautuko da. Entitate adjudikaziodunak bete beharreko dokumentu ereduak agiri honen XII. eranskinean daude.

Era berean, adjudikazioaren publikotasunaren eta enpresa hautagai eta lizitatuzaileei eman behar zaien informazioaren inguruan SPKLk xedatzen dituenak ezertan eragotzi gabe, kontratazio organoak ezingo du zabaldu enpresek emandako eta beraiek III. eranskinean (sekreto tekniko edo komertzialekin duten loturagatik) konfidentzialtzat jotako informazioa. Enpresak azaldu beharko ditu lotura horren arrazoiak.



VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

16.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

16.1.- Kontratazio organoak eskumena dauka administrazio kontratuak interpretatzeko, betetzearen inguruan sortzen diren zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik haiek aldatzeko, kontratua gauzatzearen ondorioz enpresa kontratistari egotzi behar zaion erantzukizuna ebazteko, haren gauzatzea eteteko, suntsiaraztea erabakitzeke eta horren ondorioak zehazteko, SPKLk eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, adierazitako mugen barruan eta ezarritako baldintza eta ondorioei lotuta.

Halaber, esparru akordioa gauzatu bitartean enpresa kontratistek egiten dituzten jarduerak ikuskatzeko eskumenak dauka kontratazio organoak, aipatutako legean ezarritako baldintzetan eta mugen barruan.

Kontratazio organoak kontratuak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko ahalmenez baliatu ematen dituen erabakiak berehala bete beharrekoak izango dira.

16.2.- Esparru akordio honen interpretazioaz, aldaketaz, suntsiarazteaz eta ondorioez sortzen diren auziak kontratazio organo eskudunak ebatziko ditu. Haren erabakiek amaiera emango diote administrazio bideari, eta haien kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legean ezarritakoarekin bat etorriz. Hala ere, enpresa interesdunek berraztertzeke errekurtsua jarri ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezkoa denean.

16.3.- Errekurtsu berezia jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, SPKLren 44.2 artikuluan aipatzen diren egintzen kasuan. Errekurtsu berezi horiek aztertzea eta ebaztea Arabako Foru Aldundiaren Kontratu Errekurtsuen Foru Organo Administrazioaren egitekoak dira (organo hori Diputatuen Kontseiluaren irailaren 28ko 44/2010 Foru Dekretuaren bidez sortu zen).